

HEPTAMERONA

HIRUGARREN EGUNA

MARGARITA NAFARROAKOA



Itzulpena:
Xabier Artola Zubillaga

Ohargilea:
Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MARGARITA NAFARROAKOA

heptamerona

hirugarren eguna

Hirugarren egun honetan mintzagai ditugu beren
harremanetan xede bakar onest izatea baizik
ukan ez duten emaztekiak, eta elizgizonen
hipokrisia eta gaiztakeria.

Itzultzailea:

Xabier Artola Zubillaga

Ohargilea:

Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà

Azala:

Jone Taberna

AITZINSOLASA

Goizean, lagunartekoak salarat goizik joan baziren ere, ordukotz han zen Oisille anderea, eta bazen oren erdi on bat bertzeei irakurri beharreko ikasgaia estudiantua zuela; eta lehen eta bigarren egunetan entzuleak kontent utzi zituen bezala, berdin kontentatu zituen hirugarrenean. Eta ez balitz izan fraideetarik bat xerka jin zitzaielako meza nagusirat joan zitezen, hura entzun gabe gelditu ziratekeen; hain zeuden barna sarturik kontakizunean, non ezkila ere ezin baitzuten aditu. Meza debozio handiz entzun eta otordua biziki neurritz eginik, hazkurriak memoria traba ez ziezaien eta batbedera ahalik eta ongiena egon zedin bere eginbidea betetzeko aldia hel zekionean, ganberetarat erretiratu ziren beren oroitzapenak ikertzera, pentzera joateko tenorea noiz helduko; eta heldu zelarik, nehork ez zion bidaia eder hari huts egin. Erokeriaren bat kontatzera deliberatuak zirenek hain begitarte arraia zuten, non sarri irri egiteko motiborik emanen zutelakoan baitzeuden bertze guziak. Eta guziak eseri zirelarik, galdegin zioten Saffredenti ea nori emanen zion hitza hirugarren egunari ekiteko.

«Iduri zait —erran zuen— ezen, nik atzo egin hobena, zuek diozuenez, hain handia izaki, eta ez dakidanez hura erreparatzeko gai datekeen istoriorik, hitza Parlamenteri emanen diodala, ongi jakinen baitu hark, bere zuhurtziaz, damak laudatzen, halako moldez laudatu ere, non aise ahantzaraziko baitizkigu atzo erran nizekizuen egiak».

«Ez naiz ni hasiko zure hutsak konpontzen —erran zuen Parlamentek—, baina biziki entseatuko naiz haietarik hasantzera. Zeren deliberatua bainaiz, prometatutako eta juratutako dugun egiaren izenean, zuei erakusterat badirela beren amodioetan onestasuna baizik bilatu ez duten emaztekiak. Eta orain aipatu nahi dudana emaztea etxe onetara zenez, ez dut mendrenik ere kanbiatuko haren istorioan, ezpada izena. Eta arren galdatzen dizuet, ene andereok, pentsa dezazuen amodioak ez duela bihotz garbi eta prestu bat aldarazteko behar bertzeko ahalik, orain kontatuko dizuedan istorioan ikusiko duzuen bezala».

HOGITA BATGARREN ISTORIOA

Rolandine-k, hogeita hamar urteko adineraino ezkongai egon ondoan, eta aitaren ezaxola eta nagusi andereak ematen zion laguntza eskasa ikusirik, halako atxikimendua hartu zion zaldun bastart bati, ezen ezkontzeko promesa egin baitzion, baina aitak, oharturik, ahalik eta zorroztasun handienaz jokatu zuen alabak ezkontza hura desegitea onar zezan; Rolandinek, ordea, fermu iraun zuen bere amodioan harik eta bastarta hila zela segur jakin zuen arte, eta orduan ezkondu zen bere etxeko deitura-armarriak zeramatzan zaldun batekin.

Bazen Frantzian erregina bat, zeinak bere ingururat biltzen baitzituen etxe handi eta onenetariko alabak¹. Haien artean bazen, bertzeak bertze, Rolandine izeneko neska bat, Erreginarene ahaide hurbila bera². Baina Erreginak, haren aitari zion ikusiezinen baten kariaz, ez zuen sobera ongi tratatzen³. Neska hura, ez izanagatik ez ederrenetarik ez eta itsusienetarik ere, hain zen zuhurra eta bertutetsua, non zenbait handikik eginga baitzioten ezkontzeko galdea, baina arrapostu hotza hartu zuten guziek; izan ere, hainbertze maite zuen aitak bere dirua, ezen gutietsi egiten baitzuen alabaren ongizatea eta aitzinamendua, eta, erran dudan bezala, hain laguntza eskasa ematen zion nagusi andereak, non Erreginarene oniritziaren xerka zebiltzan gizonak ez baitzuten batere prezatzen. Horrela, aitaren ezaxola eta dama haren erdeinua zirela kari, gaizo neska hura luzaz egon zen ezkongai. Eta luzarat samurturik, ez hainbertze ezkondu egoteko zuen gutiziagatik, ezpada ahalke zelako oraino hala ez egoteagatik, Jainkoaren baitarat bildu zen osoki, gorteko mundutarkeria eta elegantziak bazter utzirik; denbora pasatzeko haren manera, bada, Jainkoari otoi edo bertze egintza on batzuk egitea izan zen. Eta hala, erretiraturik eman zituen gazte denborako urteak bizitza honetan, ezin oneski eta saindukiago biziz. Hogeita hamar urtera hurrandu zelarik, bazen han zaldun bat, bastarta eta etxe onekoa⁴, sasoi hartan zen gizonik onen eta atseginenetarik, baina aberastasunak guziz ahantzirik zeukana, eta hain edertasun gutikoa, non ezein anderek ez baitzukeen bere atseginerako hautatuko. Zaldun gaixo hura ezkongai zegoen, eta, malurusak maiz bertze malurus baten xerka jotzen ohi duenez, Rolandine dama hari inguratu zitzaion, bien fortunak, jiteak eta kondizioak idurikoak baitziren. Eta, bata bertzeari bere maluraz negar eresiz hurrandu zitzaiolarik, hagitx adiskidantza handia sortu zen bien artean; eta dohakabeen lagun izaki, bata bertzearen xerka ibili ohi ziren leku guzietan, elkar kontsolatzeko. Hala, hantatze luze hartan biziki atxikimendu handia eta luzea sortu zen. Rolandine damatxoa guziz erretiraturik eta neherekin mintzatzen ez zela ezagutua zutenak, ikusiz etxe oneko bastart harekin zebilela tai gabe, eskandalizatu egin ziren berehala, eta erran zioten haren gobernantari ez zitzala solas luze haiek permiti; eta hark erantzuki egin zion Rolandineri, erranez jende guziak eskandalizaturik zituela, berarekin esposatzeko behar bezain aberatsa, ez eta amorante izateko behar bezain ederra ere, ez zen gizon batekin hainbertze

¹ Erregina Britainiako Ana da, Karlos VIII.aren emazte izana lehenik, eta Luis XII.arena gero. Margarita Nafarroakoaren gorteko idazle eta militar Brantômeren arabera, erregina hura izan zen bere inguruan dama eta neska talde bat biltzen lehena. (I. O.)

² Rolandine Rohaneko Anne bide da, Rohaneko bizkonde Jean II.aren eta Erreginarene lehengusina Marie Britainiakoaren alaba zaharrena. (I. O.)

³ Rolandineren aita bizkondeak Erreginari herentziaren parte bat erreklamatu zion, nonbait, eta handik bide zetorkion hari Rolandineri zion ezinikusia. (I. O.)

⁴ Ez dago argi nor izanen zen bastart hori, bat baino gehiago aipatzen baitira: Gonzague etxeko bat; Jean, Angulemakoa bastarta, Karlos VII.aren semea; edo baita Bourboneko Louis, Liejako apezpikuaren semea ere. (I. O.)

egoten zelako. Rolandinek, zeina beti izan baitzen erasiatua gehiago bere zuhurtziagatik bere mundutarkeriagatik baino, erran zion gobernantari:

—Ondikoz, ene anderea!, ongi dakizu ezin dudala ene etxearen gai den senarrik ukan, eta beti ibili naizela gizon eder eta gazteen ihesi, bertze batzuk trebukatzen ikusi ukan ditudan behaztopa harriekin trabatzeko beldur; baina gizon hori zuhur eta bertutetsu kausitzen dut, ez dizkit gauza on eta bertutetsuak baizik predikatzen: zer kalte egiten ahal dizut, bada, zuhauri eta eleketan ari diren horiei, ene eneguez harekin kontsolatzen baldin banaiz?

Gaizo atsoak, bere burua baino gehiago maite baitzuen dama hura, erran zion:

—Ene damatxo hori, ongi zekinat egia dionala, eta ez dunala merezi aitag eta hire nagusi andreak ematen dinaten tratamendua. Baina, manera horretan mintzatzen direnez hire ohoreaz, bai eta hire anaia bera ere, utzi egin behar hioke gizon horrekin solastatzeari.

Rolandinek, negarrez, erran zion:

—Ene anderea, zuk aholkatzen didazunez, hala egingen dut; baina estrainioa ere bada kontsolamendurik batere ez ukan ahal izatea mundu honetan.

Bastartak, ohikoa zuenez, harekin solastatzera jin nahi zuen, baina Rolandinek gobernantak erran guzia adierazi zion, eta otoiztu zion, negarrez, egon zedin aldi batez berarekin mintzatu gabe, harik eta azantz hura guzia apur bat isil zedin arte. Eta hala egin zuen hark, neskak galdaturik.

Baina hastantze hartan, galdurik elkarren kontsolamendua, hasi ziren sentitzen ez bata eta ez bertzeak sekulan pairatua ez zuten tormentu bat. Rolandine, Jainkoari otoi egin, eta bidaiatzeari eta barur eta mehe egiteari eman zitzaion. Zeren amodio hark, ez baitzuen oraino halakorik ezagutzen, hain arrangura handia ematen zion, ezen ez baitzion pausu aldi bakar bat ere uzten. Etxe oneko bastartari ere ez zion lan gutiago ematen Amodiok, baina, bihotzez deliberatua zuenez emazteki hura maitatu eta esposatzera entseatuko zela, eta ikusiz amodioa ez ezik dama hura ere bereganaturik ukanen zuen ohorea, pentsatu zuen ezen xerkatu behar zuela manerarik hari bere nahia adierazi eta, partikulariki, haren gobernanta ere biltzeko. Eta hala egin zuen, erakutsiz atsoari zein kondizio miserablean zeukaten dama gaixo hura, zeinari kontsolamenduak oro kendu nahi baitzizkioten. Atso onak, negarrez, esker eman zion damari zion atxikimendu zintzo harengatik. Eta elkarrekin xerkatu zuten gizonak damarekin hitz egin ahal ukaiteko modua: Rolandinek migraina zuelako itxura egingen zuen ardura, eta biziki eragiten ziola harrabotsak; eta, haren lagunak Erreginaren ganberarat joanen zirelarik, biak bakarrik geldituko ziren, eta orduan gizona mintzatu ahal izanen zitzaion. Bastarta biziki loriaturik gelditu zen eta gobernantaren aholkuari jarraiki zitzaion guziz, halako gisan, non nahi zuen guzietan egoten ahal baitzen adiskidearekin. Kontentamendu hark guti iraun zion, ordea, zeren Erreginak, zeinak ez baitzuen Rolandine sobera maite, jakin nahi ukan baitzuen zer egiten zuen hark hainbertze denboraz bere ganberan. Eta norbaitek erranagatik eri zelako zela, bertzeren batek, ordea, ongi oroitzen baitzituen han ez zirenak, erran zion aise arindu zatekeela neskaren migraina hura etxe oneko bastartarekin egonik ukaiten ohi zuen atseginarekin. Erreginak, bertzeren baitan benialtzat zeuzkan bekatuak mortaltzat baitzeuzkan harenean, dama bere aitzinerat ekarrarazi zuen eta debekatu zion sekulan berriz bastartarekin mintzatzea, ez bazen ganbera edo sala errealetan. Andereñoak ez zuen keinurik egin, baina erran zion:

—Pentsatu ukan banu, ene anderea, ez zenuela laket ez hura, ez bertzeren bat, ez nintzatekeen sekulan mintzatuko berarekin.

Alabaina, bere baitan pentsatu zuen kausituko zuela maneraren bat Erreginak deus jakin gabe aritzeko, eta hala egin zuen. Eta asteazken, ortzirale eta larunbatarekin, barur egunak baitzituen, bere ganberan gelditzen zen gobernantarekin, non astia hartzen baitzuen, bertzeak afaltzen zirelarik, zinez eta fierki maitatzen hasten zen harekin solastatzeko. Eta zenbatenaz laburragoak izan bortxaz haien arteko solasaldiak, hainbatenaz atxikimendu handiagoz ziren erranak beren hitzak; denbora baitzuten

ebasten, nola ohoinak gauza balios bat. Afera ezin ukan zuten sekretuan eduki, ordea, eta sehiren batek barur egun batez gizona ganberarat sartzen ikusi zuen; bai eta gero erran ere, eta ez Erreginarenean gordean preseski, eta hain biziki koleratu zen hura, non bastarta ez baitzen gehiago menturatu emazteen ganberarat jiten. Baina, ez galtzeagatik osoki damarekin egon ahal izateko parada, bidaian joana zelako alegia egiten zuen ardura, eta gazteluko eliza edo kaperarat itzultzen zen arratsean, kordelier edo domingotar beztu, edo hain ongi desgisaturik non ez baitzuen nehork ezagutzen; eta han presentatuko zen Rolandine andereñoa gobernantarekin, gizonarekin egotera. Gizonak, ikusirik emaztekiak zion amodioaren handia, ez zuen beldurrik ukan errateko:

—Andereño, ikusten duzu zeinen peril handian jartzen naizen zu zerbitzatzeko eta nolako debekua ezarri dizun Erreginak enekin mintzatzeko? Bertzalde, ongi dakizu nolakoa den zure aita, eta hark ez duela pentsatzen zu nehola ere esposatzea. Hainbertze ezkongai on arbuia du, ezen ez baitut nehor ezagutzen, ez harengandik hurbil, ez urrun, zu ukaiteko prest denik. Ongi dakit pobrea naizela, eta ez zinatekeela ezkonduko ni baino aberatsagoa ez den zaldun batekin. Baina amodioa eta nahikundea aberastasuntzat hartuko balira, munduko gizonik aberatsena naizela erranen nuke. Jainkoak dohain handiak eman dizkizu, eta beldur naiz ez ote dituzun are gehiago ukanen: senartzat hartuko baninduzu, halako ditxa banu, senar, adiskide eta zerbitzari nintzaizuke ene mende guzian. Baina, zure parekorik hartuko bazenu —ez duzu kausitzen erraza—, zure nagusi izan nahiko du, eta hobeki artatuko ditu zure ontasunak zuhaur baino, hobeki begiratuko edertasuna bertutea baino; eta, zure ontasunez gozatuz, ez zaitu merezi duzun bezala tratatuko. Bozkario hori ukaiteko dudan desiraz eta zuk bertze neherekin ukan ez dezazun beldurrez, arrenka galdatzen dizut ezen, aldi berean, ni dohatsutu eta zure burua nehoiz izan den emaztekirik gogobeteen eta ongien artatuena bihur gaitzazun.

Rolandinek, berak errateko pentsatuak zituen ele berberak entzunik, begitartea jabal ihardetsi zion:

—Laket zait zuhaur hasi izana duela luze zuri errateko pentsatuak nituenak erraten. Badira bi urte ezagun zaitudala, eta ene baitan ez diot utzi, denbora honetan, behin eta berriz pentsatzeari asmatzen ahal nituen zure aldeko eta zure kontrako arrazoi guzietan. Baina, hondarrean, jakinik ezkondu nahi dudala, bada garaia pentsatzen has nadin eta hauta dezadan norekin biziko naizen hobeki, ene kontzientziaren sosegurako. Ez dut nehor kausitu, ez ederrik, ez aberatsik edo jaun handirik, zeinarekin ene bihotz-gogoak akortean izaten ahal diren, ezpada zuhaur. Badakit zurekin ezkonduz gero ez nukeela Jainkoa ofentsatuko, baizik eta hark manaturikoa eginen nukeela. Ene aita jaunaz denaz bezainbatean, hain guti egin du ene ongiaren xerka eta hainbat eskaintza arbuia du, non legeak baitio ezkontzen ahal naizela hark ondoregabekuko nauen beldurrik gabe. Alabaina, enea daukadana baizik ez edukirik ere, munduko emazterik aberatsena nintzateke, zu enetako zaren bezalako senar bat esposatuz gero. Eta ene andere Erreginaz denaz bezainbatean, ez nuke haren desgogara izateko batere arrangurarik Jainkoak manatua eginez gero; zeren ez baitu deus ere egin ene gaztaroan ukaiten ahal nuen ezein ongi ukan dezadan. Baina, jakin dezazun dizudan atxikimenduaren funtsa bertutea eta ohorea direla, prometatu behar didazu ezen, zurekin esposatzeko akort izaten banaiz, ez duzula nehoiz ezkontza betetzea xerkatuko, harik eta ene aita hil arte edo nik erdiets dezadan arte maneraren bat haren baia ukaiteko.

Gogo onez prometatu zuen bastartak, eta promes haien gainean eman zioten elkarri ezkontza eratzuna⁵, eta pota elizan, Jainkoaren aitzinean, Hura hartu baitzuten egin promesen lekukotzat; eta ez zen gehiago izan haien artean potak ez bertze trebantziarik.

⁵ Hemen deskribatzen den bezalako ezkontzak zilegi ziren: promesa eta eratzunen trukeak zigilatzen zuten bat egitea. Eliza XII. mendetik aitu da ezkontzak “normalizatu” eta kontrolatu nahian; istorio honetan kontatzen diren gertakariak XVI. mendearen hasierakoak dira, eta artean ez ziren Trentoko Kontzilioak gero ezarriko zituen debekuak indarrean, hura 1545ean hasi baitzen. (I. O.)

Kontentamendu ttipi hark atsegin handia eman zien bi amorante perfektu haien bihotzei, eta luzaz egon ziren elkar ikusi gabe, segurtasun hartan bizi zirela. Ez zen kasik ohorea eskuratzen ahal zen lekurik, zeinetara etxe oneko bastart hura ez zen kontentamendu handiz joaten, ezinezkoa baitzuen pobre gelditzea, ikusirik Jainkoak eman zion emazte aberatsa; eta hark, gizonaren absentsian, hain luzaz heldu zion amodio perfektu hari, ezen ez zuen munduko bertze gizonik begietsi ere. Eta, zenbaitek ezkontzan galdatu zuen arren, ez zuen harengandik bertze arraposturik ukan, ezpada hainbat denbora eman zuela ezkongai, ezen ez baitzuen engoitik halakorik nahi. Hainbatek entzun zuten arrapostu hura, non Erreginaren belarrietarat ere heldu baitzen, eta galdatu zion ea zergatik mintzatzen zen manera hartan. Rolandinek erran zion berari obeditzeagatik zela, ongi zekielako ez zuela nehoiz ukan bera ohorez eta gustura ezkondu zatekeen garaian ezkontzeko nahikunderik; eta adinak eta pazientziak irakatsi ziola zegoen kondizioan laket izaten. Eta berdin ihardesten zuen ezkontza aipatzen zioten guzietan. Gerlak bukatu eta itzuli zelarik bastarta gortera, dama ez zitzaion nehoren aitzinean mintzatzen, baina han joaten zen elizaren batera beti harekin solastatzera, kofesatzera zihoalako itxuran; zeren Erreginak debekatua baitzien biei elkarrekin hitz egitea, ez bazen jende aitzinean, heriotza gaztiguaren pean. Baina amodio zintzoa, zeinak ez baitu debekurik ezagutzen, prestago zen biak elkarrekin solastatzeko okasioak kausitzeko, etsaiak haien zelatan egoteko zeudena baino; eta munduan diratekeen erlisione guzien abituaren pean segitu zuten beren amodio zintzo hartan, harik eta Errege Tours-etik hurbil zen landa etxe baterat joan zen arte, franko urrun damak joan ahal izan zitezen oinez gaztelukoa ez bertze elizaren baterat, zeina hain gaizki baitzegoen eraikia, ezen ez baitzen han lekurik kofesora gordetzeko nehork ez ikusteko moldez. Nolanahi ere, alde batetik okasioak huts egiten bazien, kausitzen zien amodioak bertzeren bat errazagoa. Eta heldu zen gorterat dama bat, bastartaren ahaide hurbila zena. Dama eta semea Erregeren etxean aloitu zituzten. Printze gazte haren ganbera guziz zegoen Erregeren etxearen gorputzaz landa aitzinatua, halako moldez, non haren leihotik ikusi eta mintzatzen ahal baitzitzaion Rolandineri, bi leihoak preseski etxearen bi gorputzen arteko angeluan baitzeuden. Ganbera hura Erregeren salaren gainean zegoen, eta han zeuden aloituak etxe oneko andereño guziak, Rolandinerekin batera. Rolandinek, ikusia zuelarik printze hura leihoan zenbait aldiz, gobernantaren bidez gaztigatu zuen bastarta, eta hark, lekua ongi miratu ondoan, alegia egin zuen biziki laket zitzaiola Mahai Biribileko Zaldunen liburu bat, printzearen ganberan zegoena. Eta jende guziak bazkaltzera joaten zirelarik, galdatzen zion ganbera sehi bati han barnean utz zezan, liburua bururatu nahi zuela eta atxikiko ziola berak begia ganberari. Bertzeak, bai baitzekien nagusiaren ahaidea zela, eta gizon segura, nahi bezainbat irakurtzen uzten zion. Bertzalde, Rolandine leihorat hurbiltzen zen, eta, han luzazago egoteko parada izateko, zangoan min zuelako itxura egin eta goizik bazkaldu eta afaltzen zuen, eta ez zen gehiago joaten bertze damekin batera. Rolandine zetazko ohe estalki gorrimin bat egiten hasi zen, eta leiho ondoan paratu zuen, bakarrik egon nahi baitzuen han; eta, ikusten zuelarik ez zegoela nehor, senarrarekin solastatzen zen, eta net goraki mintzatzen ahal ziren, nehork ere ez aditzeko maneran. Eta norbait hurbiltzen bazitzaion, eztulka hasi eta keinu egiten zuen, eta, hala, bastarta tenorean erretiratzen ahal zen. Haien zelatan zebiltzanak oro segur ziren amodio hura iragana zela, zeren emazteak ez baitzen mugitu ere egiten gizonak ikusi ezin bide zuen ganbera batetik, han sartzea debekaturik zegoen eta.

Egun batez, printze gazte haren ama jin zen semearen ganberarat, eta liburutzar hura zegoen leiho ondoan jarri zen; handik laster, Rolandinerekin lagunetarik bat agertu zen bere ganberakorat, eta agur egin eta eleketan hasi zitzaion. Andereak galde egin zion ea nola gobernatzen zen Rolandine, eta lagunak erran zion ikusten ahal zuela hala nahi bazuen, eta leihorat hurranarazi zuen, gaueko motxota jauntzia zuela; eta, zuen eritasunaz mintzatu ondoan, nor bere aldetik erretiratu zen. Andereak, Mahai Biribilaren liburu potolo hura ikusiz, erran zion begirale zegoen sehiari:

—Harriturik nagok ikusirik gazteek nola galtzen duten denbora hainbertze zorakeria irakurtzen!

Ganberazainak ihardetsi zion ezen are miretsiago zegoela bera, ikusiz gazteak baino atxikiago zeudela jendeak zuhur eta adintsutzat zeuzkan bertze batzuk, eta, mira zedin, kontatu zion nola haren kusi bastartak lauzpabortz oren ematen zituen egunero liburu eder hura irakurtzen. Berehala ohartu zen dama helkari haren zergatiaz, eta manatu zion ganberazainari gordetzeko lekuren batean, eta behatzeko zer egiten zuen bastartak; hala egin zuen hark, eta, zer kausituko, bada gizonak irakurtzen zuen liburua Rolandine harekin elestatzera jin ohi zen leihoa zela. Eta horrela entzun zituen haiek hain ongi gorderik bide zeukaten amodio haren zenbait solas. Biharamunean, nagusiari kontatu zion, eta hark bastarta deitu zuen. Zenbait erasia egin ondoan, debekatu egin zion hara berriz joatea, eta arratsean Rolandinerekin mintzatu zen, eta mehatxu egin zion ezen, amodio ero hartan segituz gero, Erreginari emanen ziola gordekako haien guzien berri. Rolandinek, ez baitzen deusez estonatzen, zin egin zion ezen, jendeak zernahi erranagatik, nagusiak debekatu zionetik ez zela gizonarekin mintzatu, eta jakiten ahal zuela egia lagunengandik zein ganberazain eta zerbitzariengandik. Eta aipatu zion leihoaz bezainbatean, ukatu egin zion bastartarekin handik hitz egin ukana. Bastarta, aldiz, afera agerian geldituko zen beldur, periletik urrundu zen, eta denbora luzez egon zen gortera agertu gabe; baina ez Rolandineri eskribitu gabe, hain molde sotilez eskribitu ere, ezen, Erreginak zernahi zelata hedaturik ere, ez baitzen asterik iragaten emaztekiak gizonaren berri bigetan hartu gabe.

Eta lagun zituen erlisione-zko moldeek huts egin ziotelarik, paje gazte bat igortzen zion kolorez beztu, orain batekoz orain bertzekoz, zeina dama guziak iragaten ziren ateetan gelditzen baitzen, eta han eskuratzen zizkion gutunak, jende multzo hartan gordean. Egun batez, Erregina landetara zihoala, afera haiek behatzeko ardura zuenen batek pajea ezagutu zuen, eta lasterka joan zen haren gibeletik; baina pajeak, abila izaki, eta xerka zetozkiolakoan, eltzekaria sutan zeukan emazte gaixo baten etxean sartu zen, eta han erre zituen gutunak berehala. Zaldunak, ikusi egin baitzuen, harrapatu eta guziz biluzi zuen, eta arropak oro miatu zizkion, baina ez zuen deus ediren; eta joaten utzi zuen. Partitu zelarik, atsoak galdatu zion zaldunari zergatik ikertu zuen manera hartan mutil gaztea. Prioreak erran zion:

—Berekin zeramatzala uste nuen gutun batzuk kausitzeko.

—Ez zenuen kausitzeko kuida-durik —erran zuen atsoak—, ongi gorderik baitzeuzkan.

—Arren galdatzen dizut, erradazu non! —erran zuen zaldunak, berehala eskuratuko zituelakoan.

Baina, entzun zuelarik sutan zeudela, ongi jakin zuen pajea bera baino abilagoa izan zela, eta beherala joan zitzaion Erreginari kontatzera. Nolanahi ere, handik harat bastartari ez zitzaion gehiago baliatu ez pajerik ez haurrik, eta han igorri zuen aspaldiko sehi zahar bat, Rolandineri gutunak eramateko ardura hartu zuena heriotzaren beldurrik gabe, ongi jakinagatik Erreginak afera hartan nahastekatzen zen ororendako egin mehatxuaren berri. Eta, sartu zelarik hura zegoen gazteluan, zelatan jarri zen eskailera handi baten oinean, non dama guziak pasatzen baitziren; baina sehi batek, bertze nehoiz ere ikusia baitzuen, ezagutu egin zuen berehala, eta Erreginarene etxezainari erratera joan zen, eta hura supituki jin zitzaion xerka gatibu hartzeko. Zerbitzariak, zuhurra eta zentzuduna baitzen, ikusiz beha zituela urrunetik, gibelerat egin zuen harresirantz, pixa egitera bezala, eta han ttipitu zituen gutunak xehe-xehe eginez, eta ate baten gibelean aurtiki zituen. Berehala atzeman eta alde orotarik miatu zuten, eta, deus ere kausitu ez ziotenez, zinpean galdekatu zuten ea ekarri ote zituen gutun batzuk; eta ahalik gehiena entseatzen ziren gogatzera, onez eta gaitzez, egia aitorrarazteko, baina, egin zizkioten promes eta mehatxuak eginagatik, ez zuten deus ateratzerik ukan. Jakinarazi zioten Erreginari zer gertatu zen, eta han zirenetarik bat ohartu zen on izanzen zela atzeman zuten atearen gibelean miratzea; hala egin zuten, eta kausitu zuten xerka zebiltzana: han ziren gutunaren puskak. Erregeren kofesorearen galde joan ziren, eta hark, puskak mahai baten gainean juntatu zituelarik, burutik bururat irakurri zuen gutuna, non guziz agerian gelditu baitzen hain disimulatua zen ezkontza haren egia; izan ere, bastartak emazte deitzen zuen beti. Erreginak, ez

baitzuen, eginbide zuen bezala, bere ahaide haren hobena estaltzeko asmorik, biziki harrabots handia egin zuen, eta manatu zuen ezen, baliabideak oro erabiliz, kofesaraz ziezaiotela gizon hari zertan zen gutun hura, zeren, erakusten baldin bazioten, ezin ukatuko baitzuen; baina, zernahi erran edo erakusten ziotela ere, hark ez zuen bere lehen hitza kanbiatzen. Begiraleek ibai ondora eraman zuten, eta zaku baten barnean sartu zuten, erranez Jainkoari eta Erreginari gezurretan ari zitzaiaela, frogaturiko egiaren kontra. Zerbitzariak, nahiago baitzuen bizia galdu nagusia akusatu baino, kofesora eskatu zien, eta, kontzientziako etsamina ahalik eta ongiena egin ondoan, erran zien:

—Jaunak, erraiozue ene nagusi jaun bastartari ezen haren esku uzten ditudala ene emazte eta haurren bihiak, gogotik ematen baitut nik enea beraren zerbitzuagatik; eta egizue enekin plazer duzuen, ez didazue sekulan aterako ene nagusiaren kontrako hitzik.

Orduan, are beldur handiagoa emateko, zaku barnean zela uretan sartu zuten, eta deiadarrez erraten zioten:

—Egia erraten baduk, salbatuko haiz!

Baina, ikusiz ez zuela deus erraten, atera egin zuten handik eta haren fermutasunaren berri eman zioten Erreginari, zeinak berehala erran baitzuen ez Errege, senarra, ez bera ere ez zirela bastart hura bezain zorte oneko zerbitzari bezainbatean, nahiz eta hark ez zeukan bere sehiak zerekin sariztatu ere; eta biziki entseatu zen gizon hura bere zerbitzurat ekartzera, baina hark ez zuen sekulan nagusia abandonatu. Alabaina, hondarrean, nagusi hark baimendua eman zion, eta hala sartu zen gizona Erreginare zerbitzurat, non uros eta kontent bizi izan baitzen.

Erreginak, jakin ondoan, bastartaren gutunaren bidez, ezkontza hura zertan zen, Rolandine jinarazi zuen, eta, hagitz bekoki ilunez, behin eta berriz deitu zuen dohakabe ezen ez lehenkusi, erasiatuz aitaren etxea eta ahaideak oro desohoratu zituelako ezkontza harekin, bai eta nagusia zuen bera ere, berak manatu edo baimendu gabe egin baitzuen. Rolandinek, aspalditik baitzekien nagusi andereak zion atxikimendu eskasaren berri, ber gisan ihardetsi zion, eta amodioa menstuz zihoakionez, ez zen gehiago deusen beldur; eta pentsatuz ezen zenbait jenderen aitzinean egin erantzuki hura ez zela Erreginak zion amodioagatik egina, ezpada bera lotsarazteagatik, iduri baitzitzaion hark plazer handiagoa ukaiten zuela bera gaztigatuz, mensten ikusiz ukaiten ahal zuen desplazera baino, begitarte arrai bezain segur batez ihardetsi zion, Erreginak berea ilun eta samur zuela:

—Ene anderea, ezagutuko ez bazenu nolakoa den zure bihotza, orain berean erakutsiko nizuke ene aita jaunarenganako eta nihaurenganako aspalditik ukan duzun nahikunde gaiztoa; baina ongi dakizu ez zaizula arraroa eginen jende orok hala uste dutela ikustea; eta nitaz denaz bezainbatean, anderea, aspalditik dut hautemana, ene damuz. Zeren, plazer ukan bazenu ene fabore egin, nola egin baituzu ni bezain hurbilekoak ez dituzunen, ezkondurik nengoke orain, zure ohoretan bezainbat enean; baina zure grazian guziz ahantzirik utzi nauzu, halako gisan, non ukaiten ahal nituen ezkongai on guziak begi aitzinetik iragan baitzaizkit, ene aita jaunaren ezaxolakeriagatik nahiz zuk didazun estimu eskasagatik: hala, bada, etsirik nauzu guziz, eta, ene osasunak erlisione zko kondizioa pairatu ukan balu, gogotik hartuko nukeen, ez ikusteagatik zure zorrozkeriak tai gabe ematen dizkidan atsekabeak. Etsimendu horretan ediren nau, bada, enea bezain etxe onekoa litzatekeen hark, bi pertsonaren arteko amodioa eraztuna bezain estimatua balitz; zeren bai baitakizu haren aita enearen ginetik pasatuko litzatekeela. Luzaz egon da enekin, eta maite ukan nau; baina zuri, anderea, zeinak ez baitidazu sekulan hobetik ttipiena ere barkatu, zeinak ez baituzu nehoiz laudatu nik egin obra onik, nahiz eta jakin, esperientziaz, ezen ez naizela ni amodio eta mundutarkeriez mintzatu ohi direnetarik, eta guziz erretiratua nintzela oroz ginetik erlisione zko bizimoldea eramatera, zuri, hatsarretik beretik iduritu zaizu arraro bizitza honetan nihaur bezain dohakabea den zaldun bati ni mintzatzea, haren adiskidantzan ez bainuen ez bertze asmorik ez bertzerik xerkatzen, ezpada ene izpirituaren kontsolamendua. Eta ene burua guziz frustraturik kausitu nuelarik, halako etsimenduak hartu

ninduen, non deliberatu bainintzen ene pausua xerkatzerat zuk kendu nahi zenidan bezainbateko indarrez. Eta berehala ukan genituen ezkontza eleak, zeinak promes eta eraztun bidez kontsumatu baitira. Izan ere, iduri zait, anderea, guziz makur zabiltzala ni jende tzartzat harturik, zeren halako amodio handi eta perfektuan kaunitzen ahal baintuen okasioak, nahi izanez gero, baina nehoiz ez da egon gizon horren eta ene artean potak baino trebantzia handiagorik, esperantza bainuen Jainkoak emanen zidala, ezkontza kontsumatu aitzin, ene aita jaunaren bihotza baia eman zezan gogatzeko grazia. Ez dut nehola ere Jainkoa laidotu, ez eta ene kontzientzia ere, hogeita hamar urte bete arte beha egon bainaiz, zuk eta ene aita jaunak enegatik zer egingen zenuten, eta ene gaztetasuna hain kasto eta onest atxikiz, non ezein gizon bizik ezin ukanen balidake erantzuki egin. Eta, Jainkoak eman arrazoiaren kariatz, ene burua zaharturik ikusiz eta ene etxearen araberrako gizonik kaunitzeko esperantzarik batere gabe, deliberatu nuen ene gogarako bat esposatzea, ez begien irrika asetzeko, badakizu-eta ez dela ederra, ez eta haragiarena, ez baita haragizko kontsumatzerik egon, ez eta urguilua edo bizi anbizioa ere, pobrea baita eta etorki apalekoa; ez, haren baitan den bertuteari soilik behatu diot, zeina mundu guzia beharturik baita goastera; baita eneganako ukan duen amodio handiari, harengandik pausua eta tratu ona erdiesteko esperantza ematen baitit. Eta, ongi haztaturik hartarik etor zekidakeen ongia eta gaizkia, onena iduri zitzaidan alderat jo nuen, ene bihotzean ez eta bai bi urtez ibili ondoan: hil arteko egunak haren konpainian ematea. Eta hain fermuki naiz hala egitera deliberatua, non pairatzen ahal nituzkeen tormentuek oro, heriotzak barne, ez bailidakete ene asmo sendo hori utzaraziko. Horregatik, anderea, plazer ukanen duzu enegan eskusatzeko hain eskusagarria dena, zuhaurek hain ongi dakizun bezala, eta bakean bizitzen uzteko, zeina esperantza baitut gizon harekin erdiesteko.

Erreginak, ikusiz haren begitarte hain fermu eta haren eleak hain egiazko, ezin ukan zion arrazoiaren bidez ihardetsi, eta koleraz beterik laidoka eta erasiaka jarraikiz, negarrez hasi eta erran zion:

—Dohakabe hori, ene aitzinean umiliatu orde, eta halako hoben handiaz dolutu beharrean, hor ari hatzait ozarki, begian negarrik batere gabe; agerian uzten dun horrela hire bihotzean dunan tema eta gogortasuna. Baina Erregek eta hire aitzak sinesten badidate, bertzelako lengoiaz mintzatu beharko dunan lekura igorriko haute!

—Anderea —ihardetsi zion Rolandinek—, ozarkiegi ari naizela akusatzen nauzunez, deliberatua naiz isiltzera, ez baldin badidazu zuri ihardesteko baimenik eman nahi.

Eta hitz egiten jarraiki zekion manatu ziolarik, aldiz, honela erran zion:

—Ez nauzu nor, anderea, zuri mintzatzeko, ene nagusia eta giristino herriko printzesarik handiena izaki, ozarrean eta zor dizudan erreberentziarik gabe, eta ez dut halakorik egitea pentsatu ere; baina ez dudanez ene fabore egingen duen abokaturik, ezpada egia —eta hura nihaurek baizik ez dazagut—, beharturik nauzu hura beldurrik gabe adieraztera, eta badut esperantza, zuk ongi ezagut dezazunean, bertzela estimatuko nauzula eta ez ni izendatzeko baliatu nahi ukan dituzun hitz horien arabera. Ez naiz beldur nehork jakin dezan nola gobernatu naizen egozten zaidan aferan, bai baitakit ez dudala deusetan ere laidoztatu ez Jainkoa ez eta ene ohorea ere. Eta hara nork mintzarazten nauen beldurrik gabe, segur bainaiz ene bihotza ikusten duen Hura enekin dela; halako juje bat ene fabore baldin bada, makurra litzateke ene aldetik haren jujamendupean daudenen beldur izatea. Eta zergatik egin behar dut negar, orduan, ikusirik ez ene kontzientziak ez eta ene bihotzak ez didatela erantzukirik batere egiten afera honetan, eta hain naizela urrun dolutzeko, ezen, dena berriz hasiko balitz, gauza bera egingen bainuke? Baina zuk, anderea, bai, zuk baduzu negar egiteko motiborik franko, bai ene gaztaro guzian eduki nauzun kondizio makurragatik, eta bai orain jende ororen aitzinean erasiaka egiten didazulako ere, eni baino areago zuhauri egotzi beharko litzaiokeen hoben batengatik egin ere. Ofentsatu ukan banitu Jainkoa, Errege, zuhaur, ene burasoak eta ene kontzientzia, ongi tematsua nintzateke dolauren handiaz negarrik egingen ez banu. Baina auzi on, bidezko eta saindu batengatik,

zeinak ez baitu nehoiz ohorezkoa ez bertzelako harrabotsik atera, ez baldin bada zuk haize eman diozulako —erakutsiz hala ene desohorearendako duzun gogo zure etxearen eta ahaideen ohorea gordetzekoa baino handiagoa dela—, ez, horregatik ez dut negarrik egin behar. Baina, hala duzunez plazer, ene anderea, ez nauzu nor zuri kontrakoa errateko. Hala, gogo duzun gaztigu hori ezar diezadazunean, zuk emanez ukanen duzun bezainbateko plazera ukanen dut nik hura arrazoirik gabe pairatuz. Horregatik, anderea, mana iezaiozu ene aita jaunari nik pairatzea gogoko duzun tormentua, zeren bai baitakit ez duela huts eginen: hala, ontsa kontent izanen naiz, ezen ene zorigaitzerako soilik jarraikiko baitzaio zure nahiari bederen, eta, zure nahikundeari jarraikiz ene ongirako ezaxola izan den bezala, prest izanen baita ene gaizkirako zuri obeditzeagatik. Baina nik badut aita bat zeruan, eta Hark emanen dit, segur naiz, zuk enetzat prest dituzkezun makurrak bezainbat pazientzia, eta Haren baitan soilik dut nik konfiantza osoa.

Erreginak, ezin haserreago, beraren begien aitzinetik eraman eta nehorekin mintzatu ezin izanen zen ganbera batean sar zezaten manatu zuen; baina ez zion gobernanta kendu, eta haren bidez jakinarazi zion bastartari ukan zuen fortuna makurra, eta galde egin zion zer iduri zitzaion egin beharko lukeela. Hura, Erregeri egin zerbitzuak zerbitetarako baliatuko zitzaizkiolakoan, gorterat joan zen zalu. Errege landetan kausitu zuen, eta aferaren egia kontatu zion; eta arrenka galdatu zion ezen, bera zaldun pobrea izaki, egin ziezaiola fabore Erregina sosegatzeko, ezkontza kontsumatu ahal izan zedin. Erregek ez zion deus erran, ezpada:

—Segurtatzen didak esposatu duala?

—Bai, jauna —erran zuen bastartak—, presenteko hitzez baizik ez⁶; baina, plazer baduzu, bururatu ahal ukanen dugu ezkontza hori.

Errege, burua apaldu eta, bertzerik erran gabe, gaztelurat itzuli zen artez; handik hurbil zela, bere zaintzaileen kapitaina deitu zuen eta bastarta preso hartzeko manu eman zion. Alabaina, haren adiskide batek, ezagun baitzuen Erregeren bisaia, gaztigatu zion alde egin zezan eta erretira zedin berak handik hurbil zeukan etxe batera. Erregek baten bat beraren xerka igortzen bazuen, aldiz, hala izanen zela uste baitzuen, jakinaraziko ziola berehala erresumatik parti zedin, bai eta, gauzak arintzen baziren, itzuli ahal izan zedin ere. Bastartak sinetsi egin zion eta hain zalu partitu zen, non kapitainak ezin ukan baitzuen kausitu.

Errege-erreginak elkarrekin gogoetatu ziren ahaide zuten andereño gaixo harekin egin beharrekoaz, eta, Erreginaren aholkuz, erabaki zuten ezen aitaren baitarat itzularaziko zutela berriz, zeinari gertaturiko guziaren berri igorri baitzioten. Baina, harenaganat bidali aitzin, elizgizon eta bertze kontseilari batzuk ekarri zituzten damarekin mintza zitezen⁷, eta haiek ikusarazi zioten ezen, ezkontzan hitzak baizik egon ez zirenez, aise desegiten ahal zela, aski zela batak edo bertzeak gibelerat egitea, eta Erregek hala egin zezan nahi zuela, zeuden etxe haren ohorearen izenean. Damak ihardetsi zien ezen bera prest zela Erregeri zernahitan obeditzeko, horretarako ez baldin bazuen bere kontzientziaren kontra jokatu behar⁸, baina Jainkoak juntatua zuena ezin zutela gizon-emazteek separatu. Eta galdatu zien ez tentatzeko, arren, halako gauza zentzugabe batekin, zeren Jainkoaren beldurrean funtsatuak diren amodioa eta borondate ona baldin badira ezkontzaren lotura egiazko eta segurak, hain zegoela bera ongi loturik, ezen ez burdinak, ez suak, ez eta urak ere ezin ukanen zutela lotura hura eten, ezpada heriotzak, eta hari baizik ez zizkiola berak itzuliko juramentua

⁶ “Presenteko hitzak” jurisprudentziari dagokion termino bat da (*verba de presente*, latinez), zeinek ezkontzaren konpromisoa adierazten baitu; “geroko hitzak” terminoak, aitzitik, elkartzeko asmoa adierazten du, ezkon-hitza. (I. O.)

⁷ Kontseilari horiek Erregeren Kontseilua osatzen dutenak bide dira, hau da, gobernu atal nagusia —Erdi Aroko Curia Regis delakotik eratorria—, zeinetan erregeak inguruko noble eta bertze mendeko batzuen aholkuak entzuten baititu. Kontseilua organo politiko-administratiboa da, baina baditu orobat justiziari dagozkion eskuduntzak. (I. O.)

⁸ Erreformaren gai garrantzitsuetako bat dakar gogora kontzientzia klausula horrek, giza legeen aurrean kontzientzia librearen eskubide preskribaezinak jartzen baititu. (I. O.)

eta eraztuna; eta otoizten ziela ez hitz egiteko berari kontrara. Zeren, hain zegoen fermu delibero hartan, non nahiago baitzuen hil, fedeari atxikiz, ezen ez bizi hari uko egin eta gero. Erregek bidaliek arrapostu fermu hura eraman zuten, eta, ikusi zutelarik ez zegoela manerarik hark senarrari uko egin ziezaion, aitarenganat igorri zuten, hain kondizio urrikalgarrian, non jende orok negar egiten baitzuen hura pasatzen zen lekuetan. Eta huts egin bazuen ere, hain handia izan zuen gaztigua eta halakoa bere fermutasuna, ezen egin hobena bertutetzat baitzeukan. Aitak, berri penagarri hura jakin zuelarik, ez zuen ikusi ere nahi ukan, eta oihan batean zuen gaztelu baterat igorri zuen, zeina behiala eraikia baitzuen kontatzea ongi merezi duen arrazoi batengatik⁹; eta han eduki zuen luzaz preso, eta entseatu zen gogatzera, ezen, senarra abandonatzen bazuen, alabatzat hartu eta libre utziko zuela. Nolanahi den dela, fermu atxiki zion emaztekiak, eta nahiago ukan zuen bere presondegiaren lotura, ezkontzarena ere gordez, ezen ez munduko libertate guzia senarrik gabe. Eta haren begitarteari behatuz gero, iduri zuen penak oro denbora-pasa atseginak zituela, maite zuen harengatik pairatzen baitzituen.

Zer erraten ahal nuke nik hemen gizonen? Bastartak —emazteari hainbertze zor baitzion, ikusi duzuen bezala—, Alemaniarat egin zuen ihes, non lagun anitz baitzituen. Eta, jokatu zuen arintasunaz, ongi erakutsi zuen ezen Rolandineren gibeletik ibili izana ez zela amodio egiazko eta perfektu batek eragina izan, sos goseak eta handinahikeriak baizik; halako moduan erakutsi ere, non Alemaniako dama batez amorostu baitzen, eta berarengatik hainbat atsekabe pairatzen ari zen hura gutun bidez bisitatzea ere ahortzi egin baitzuen. Izan ere, ez zien fortunak, zorrotzetan zorrotzena izanik ere, sekulan kendu bata bertezari eskribitu ahal izateko bidea, ezpada gizonak bere burua erortzen utzi zuen amodio gaizto eta eroak, hark sortu baitzuen Rolandineren bihotzean halako sentimendu bat, pausurik ere uzten ez ziona. Eta ikusirik, gero, haren izkribuak ohiturik zeukan mintzairatik hain urrunak eta hotzak zirela, ez baitzuten iraganekoen eiterik batere, goganbehartu zen ez ote zuen bertze amodio batek bereizia izanen senarrarengandik, eman ahal ukan zizkioten tormentuek oro egiterik ukan ez zutena. Eta, amodio perfektu hark ez zionez uzten goganbehar baten gainean jukatzen, xerkatu zuen bidea zerbitzari fidagarri bat igortzeko, ez gizonari eskribi edo hitz egin ziezaion, hari zelata egin eta egia jakin zezan baizik. Hark, bidaiaitik itzuli zelarik, erran zion ezen segur zela bastarta Alemaniako dama batez amorostua zela guziz, eta, jendeak erraten zuenez, haren gibeletik zebilela esposatzeko, hagitx aberatsa baitzen. Berri hark ezin gehiagoko samina eragin zion gaizo Rolandineren bihotzari, eta, jasan ezinik, larriki eritu zen. Zergatia jakin zuten haiek erran zioten, aitarek partetik, ezen, ikusten zuelarik bastartaren tzartasuna, bidezkoa zela berak ere hura abandonatzea, eta hartara gogatzera entseatu ziren ahal guziez. Baina, azkeneraino tormentatu bazuten ere, ez zen manerarik izan hari bere asmoa kanbiarazteko; eta hondarreko tentamendu hartan frogatu zuen bere amodioa eta bere bertute handia. Zeren amodioa gizonaren aldetik mendratuz zihoan hein berean handitzen baitzen emaztekiarenetik, eta osorik eta perfektu iraun zuen, atxikimenduak emaztearen baitarat jo baitzuen gizonaren baitan huts egin ahala. Eta jakin zuelarik soilik bere bihotzean zetzala osorik behiala bigatan partekatua egon zen amodio hura, deliberatu zuen bata edo bertzea hil arte atxikiko zuela. Horregatik, jainkozko ontasunak, zeina karitate perfektu eta egiazko amodio baita, haren oinazeaz urrikaldu eta zeukan pazientziari begiratu zion, halako gisan, non handik egun gutira hil baitzen bastarta —bertze emazte baten gibeletik zebilela—. Rolandinek, bastarta ehortzen ikusia zutenek ongi mezuturik, igorri zuen baten bat aitari arrenka, plazer ukan zezan berarekin elestatu. Zaluki jin zitzaion aita —dama preso sartu zutenetik berarekin mintzatu gabea zen—, eta haren arrazoi bidezkoak guziz eta ongi entzun ondoan, maiz hitzez mehatxu egina zion bezala erasiatu edo hil beharrean, beso artean hartu eta, negar handiz, erran zion:

⁹ Hemen berrogeigarren istorioari egiten zaio erreferentzia, istorio horretan kontatzen baita nola eraikiarazi zuen Jossebelin-eko kondeak gaztelu bat oihanean, arreba bertan preso atxikitzeko. (I. O.)

—Ene alaba, nihurt bairno artezagoa haiz, zeren, hobenik izan baldin bada hire aferra horretan, nihurt naun kausa nagusia; baina, Jainkoak hala manatu duenez, erreparatu nahi nitizken iraganekoak.

Eta, etxerat ekarri ondoan, primatzat tratatu zuen. Eta ezkontzan galdatau zuen zaldun batek, zeina haren etxeko izen eta armarri berekoa baitzen¹⁰, eta biziki zuhur eta bertutetsua; eta Rolandine hainbertze estimatzen zuena, ezen maiz hantatzen baitzuen, eta bertzeek gaitzesten ziotena laudatzen zion, aitortuz haren xedea bertutea baizik ez zela izan. Ezkontza aitaren nahiz Rolandineren gogokoa izan zen, eta berehala egin zuten. Egia da anaia bat¹¹, etxeko ondoko bakarra zena, ez zela akort izan arreba deus ukan zezan, aita desobeditu zuela alegatuz. Eta aita hil ondoan hain zorrotz hartu zituen, non senarrak —zeina bigarren seme bat baitzen— eta Rolandinek lanak ukan baitzituzten bizi ahal izateko. Baina Jainkoa jin zen haien laguntzan, eta anaia, zeinak dena beretzat nahi baitzuen, hil egin zen egun batez supituki, eta han utzi zituen bere ondasunak nahiz arrebaenak, oro betan. Hala, Rolandine etxe on eta handi bateko ondoko izan zen, eta han bizi izan zen saildu eta ohoreski, senarraren maitazarrean. Eta, Jainkoak eman zizkien bi semeak hezi ondoan, lorioski eskuratu zion bere arima Hari, zeinaren baitan jarri ukan baitzuen konfiantza osoa bere mende guzian.

«Beraz, ene andereok, datozela orain honat gizonak, zeinek hain mudakortzat pintatzen gaituzten beti, eta erakuts diezagutela emazteki hura bezain on, hura bezain fede oneko eta atxikia den gizon baten etsenplurik; segur naiz hain gaitza eginen zaiela, non nahiago baitut, lan horretan has daitezen baino, orain berean utzistea. Baina zuei, ene andereoi, ez, zuei arren galdatzen dizuet, gure loriari jarraiki gakizkion, edo batere ez maitatzea edo, maitatzekotz, izan dadila hark maitatu zuen bezain perfektuki. Eta ez dezala nehork erran dama hark bere ohorea laidoztatu zuela, haren fermutasunak egiten baitu handiago guhaurena».

«Egia erran, Parlamente —erran zuen Oisillek—, emazteki bihotz onest eta handidun baten historia kontatu diguzu, baina bertze batengatik utzi nahi zuen senarraren desleialtasunak ematen dio haren fermutasunari hainbertzeko distira».

«Ene iduriz —erran zuen Longarinek—, atsekabe hura izan zen Rolandinerendako jasangaitzena, zeren ez baita deus hain pisu, ongi bat eginik diren bi pertsonaren arteko amodioak eztiki jasan ezin duena; baina bata bere eginbidea bete ez eta zama osoki bertzearen gainean uzten duenean, orduan pisutasuna jasangaitza da».

«Orduan —erran zuen Geburonek—, urrikaldu egin beharko zenkizkigukete, zeren guhaurek jasaten baitugu osoki amodioaren zama, eta zuek, ez duzue eri punta ere jartzeko lanik hartzen hura soleitzeko».

«Ai, Geburon! —erran zuen Parlamentek—, desberdinak dira maiz gizonaren eta emaztearen zama. Zeren emaztearen amodioa, Jainkoarengan eta ohorean funtsatua, hain da bidezko eta arrazoizko, ezen atxikimendu hura uzten duena Jainkoarenganako eta gizon-emazteenganako bihozgabe eta gaiztotzat hartu beharko baikenuke. Baina gizon on gehienen amodioa hain dago plazerean funtsatua, ezen emazteak, haien borondate gaiztoa hauteman gabe, ederki harrapatzen baitituzte batzuetan; eta Jainkoak ikusarazten dielarik prestutzat zeuzkaten haien bihotzen lohikeria, tenorez dira oraino berengandik hasantzeko, zeren erokeriarik laburrenak baitira beti onenak».

«Horra motibo bat —erran zuen Hircanek—, zure fantasiak moldatua, sostengatzen ari baitzara ezen emakume onestek utz lezaketela oneski gizonen amodioa, baina ez hala gizonek emakumeena,

¹⁰ Rohaneko Anne Rohaneko Pierrerekin ezkondu zen, 1515 edo 1517an. (I. O.)

¹¹ Rohaneko Claude, Quimper-eko apezpikua. (I. O.)

batzuen eta bertzeen bihotzak desberdinak balira bezala; baina bisaia eta beztimendak hala izanagatik, ene ustez desirak idurikoak dira denak, salbu gordeen den malezia, hura baita makurrena».

Parlamentek, apur bat haserre, erran zion:

«Ongi konprenitu dut ezen gaiztakeria agerian gelditzen zaien haiek direla, zure iduriko, emakumerik onenak?».

«Utz ditzagun kontu horiek —erran zuen Simontaultek—, zeren, hondarrean, gizon nahiz emazteen bihotzetan, onenak ere ez baitu deus balio. Baina ikus dezagun Parlamentek nori emanen dion hitza, istorio ederren bat entzun dezagun».

«Geburoni emanen diot —erran zuen hark».

«Orduan, eta nihaur hasi naizenez kordelierrez mintzatzen¹² —erran zuen—, ez ditut ahanzi nahi San Benediktorenak ere¹³, eta haiekin ene denboran gertaturiko kontu bat, ez baitut uste, elizgizon gaizto baten istorio bat kontatzeagatik, jende onen gainean duzuen iritzi onaren kaltetan izanen denik. Baina ikusirik salmogileak errana dela “jende oro gezurtia da”¹⁴, eta, bertze pasarte batean, “nehor ez da ongi ari denik, bat bera ere ez”¹⁵, iduri zait ezen gizona berez den horretan baizik ez dugula kontsideratu behar; zeren, ona bada, Jainkoarengatik da on, hura baita ontasun iturri, eta ez kreaturagatik beragatik, zeinari, loria eta laudorio gehiegi emanik, berez dela on uste ukaiten baitugu, eta jende gehienak tronpatu egiten dira hala. Eta, pentsa ez dezazuen ezinezkoa dela gehiegizko austeritatearen pean gehiegizko likiskeria egotea, entzun zer gertatu zen Frantzisko I.a erregearen denboran».

¹² Geburonek kontatu du, izan ere, bosgarren istorioa, Lehen Egunean. (I. O.)

¹³ Beneditarrak, San Benediktok VI. mendean fundaturiko ordena. (I. O.)

¹⁴ «*Omnis homo mendax*», Salmoak 115, 2. (I.O.)

¹⁵ «*Qui faciat bonum non est usque ad unum*», Salmoak 13, 2. (I.O.)

HOGETA BIGARREN ISTORIOA

Serora Marie Heroet¹⁶, zeinari Saint-Martin des Champs-eko priore batek bere ohorea galdatzen baitzion, gai izan zen, Jainkoaren graziaz, zituen tentazio handiak garaitzeko, eta, hala, priorea guziz nahasirik eta hura biziki loriaturik gelditu ziren.

Bazen, Paris hiriko Saint-Martin-des-Champsen, priore bat¹⁷, zeinaren izena gordean atxikiko baitut ukan diodan adiskidantzaren izenean. Haren bizitza, berrogeita hamar urte bete zituen arte, hain austeritate handikoa izan zen, non zuen saindutasun fama ezaguna baitzen erresuma osoan, eta ez zen han ez printze ez printzesarik hura ohore handiz hartuko ez zuenik bisitan jiten zitzaienean. Eta ez zen monasteriorik erreformatu nehon, ez bazen haren eskuz, eta egiazko monakotzaren aita erraten zioten. Fontevrault-eko damen monasterio handiko ikusliar hautatu zuten¹⁸, eta emakume haiek hain errespetu gaitza zioten, ezen, monasteriorat jiten zelarik, guziak beldurrez dardaran egoten baitziren. Eta emakumeek, prioreak ezartzen zien zorroztasun handi hura apazegatzeko, Errege bera balitz bezala tratatzen zuten; hastean arbuia egiten zuen hori hark, baina, hondarrean, berrogeita hamar urtera inguratu zelarik, biziki lakete egiten hasi zitzaion hatsarrean mespretxatu zuen tratamendua, eta, bere burua monakotza osoaren ongitzat zuelakoan, bere osasunari ordu arte ez bezala begiratzen hasteko nahia ukan zuen. Eta, nahiz eta erregelak haragia ez jateko manua ezartzen zion, dispentsatu egiten zuen bere burua, bertze nehorekin egiten ez zuena, erranez bere gain zituela monasterio bizimoldeko aferak oro. Eta hala, hain ongi bestatzen zuen bere burua, ezen hagitz fraide meharra zena hagitz gizena bilakatu baitzen. Eta bizimoldea gisa hartan mudatu izanak bihotza ere mudatu zion, halako maneran, non jendearen bisaia begiesten hasi baitzen, lehenago eskrupuluz baizik begietsiko ez zituenak; eta beloak are desiragarriago bihurtzen dituen edertasunei beha, haiek gutiziatzen hasi zen. Hala, bada, gutizia hura bete nahiz, hain amarrutsuki jokatzeko hasi zen, ezen artzain behar zuena otso bilakatu baitzen, eta, zenbait monasteriotan, serora aski ergel bat kausitzen baldin bazuen, huts egin gabe enganatuko zuen. Baina, bizimolde gaizto hura luzaz atxiki ondoen, Jainkoaren ontasunak, zeina ardi galdu gaixoez urrikaltzen baita, ez zuen gehiago jasan nahi ukan erregetza dohakabeko haren loria, ikusiko duzuen bezala.

Egun batez, Gif izeneko komentu batean¹⁹ bisitan zela, Paristik hurbil, gertatu zen ezen, serora guziak kofesatzen ari zelarik, kausitu zuela Marie Heroet izeneko bat²⁰, eta hain zen gozoa eta laketa haren mintzoa, non begitartea eta bihotza ere idurikoak ukanen zituela prometatzen baitzuen. Eta, soilik hari entzunik, bertze serorek eraginikoak oro gaingitu zituen amodiozko pasio batek atzeman zuen; harekin eleketan ari zelarik, burua makurtu zuen hobeki behatzeko, eta hain ezpain gorri eta goxoak ikusi zizkion, non ezin izan baitzen egon beloa altxatu gabe, ikusteko ea begiak ere gaineratekoa bezalakoak zituen, eta hala zuen ediren. Bihotza arrunt suhaturik, jateko eta edateko

¹⁶ Moja bat da, ahizpa edo arreba Marie Heroet. (I. O.)

¹⁷ Étienne Le Gentil-ez ari da, Parisko Saint-Martin-des-Champseko priore izana 1508tik 1536ra bitartean. (I. O.)

¹⁸ Saumur-etik (Maine eta Loira) gertu dagoen Fontevraud-eko abadia 1101ean fundatu zuen Robert d'Arbrissel-ek, eta bi komentu zituen, bata gizonetakoena eta bestea emakumeetakoena. Hil aurretik, d'Arbrisselek abdikatu egin zuen eta Petronilla de Chemilléren esku utzi zuen abadia, eta harrezkero fraideak eta mojak abadesa baten pean egon ziren beti, kasu bakarra Eliza Katoliko Erromatarraren historian. (I.O.)

¹⁹ Gif-sur-Yvette, Chevreuse haranean, non beneditarren abadia bat egon baitzen. (I. O.)

²⁰ Antoine Heroet (1492-1568) poetaren arreba, zeina Digne-ko apezpiku eta Margarita erreginarenekin ahaidea baitzen; platonismoa hedatzen lan egin zuen, eta *La parfaite amy* (1542) liburuaren egilea da. (I. O.)

gogoak eta neurritasun oro galdu zituen, disimulatzen entseatzen bazen ere. Prioretzarat itzuli eta ez zuen pausurik kausitzen, eta ezinegon handiz ematen zituen gauak eta egunak, bere desira hura nola beteko zuen xerka, harekin ere bertze anitzekin egina zuen bezala egin ahal izateko. Baina beldur zen gaitz izanen zitzaiola, emazteki hura ele eder eta izpiritu sotilekoa zela kausitzen baitzuen, eta, beraz, ez zuela esperantza handirik ukaiten ahal, eta, bertzalde, hain itsusi eta zahar ikusten zuen bere burua, ezen deliberatu baitzuen ez ziola batere hitz eginen, eta beldurraren bidez bereganatuko zuela. Horregatik, handik laster itzuli zen aipatu Gifeko monasteriorat, eta, nehoiz baino zorroztasun handiagoa erakutsiz, serora guziekin haserretu zen, eta bata erasiatuko zuen beloa behar bezain baxu ez zeramalako, bertzea burua goregi altxatzen zuelako, eta bertze bat erreberentzia ez ziolako behar bezala egiten. Eta hain zorrotz agertzen zen hutsalkeria horiekin guziekin, ezen beldurra baitzioten, nola ukaiten zaion azken judizioko Jainkoari. Eta hezueria zuenez, halako nekea hartzen zuen ohiko lekuen bisitak eginez, non bezperak errateko tenorea heldurik —aitzinetik xedatua baitzuen horrela—, etzalekuan baitzen²¹. Abadesak erran zion:

—Aita ohoragarri hori, bezperak errateko tenorea dugu.

Eta hark ihardetsi:

—Zoaz, ama, zoaz, erranaraz itzazu. Izan ere, hain naiz akiturik, hemen geldituko bainaiz, baina ez pausua hartzeko, ezpada serora Marierekin mintzatzeko, haren biziki erreport txarra egin baitidate: kalakan aritzen dela, hots, emakume mundukoi bat balitz bezala.

Abadesak, serora gaztearen amaren izeba baitzen²², larderia zezan galdatu zion, eta bakarrik utzi zuen harekin eta berarekin zen bertze fraide gazte batekin. Marierekin bakarrik egon zelarik, beloa goratzen hasi zitzaion eta begira ziezaiola manatu zion. Hark erran zion bere erregelak debekatu egiten ziola gizonei behatzea.

—Ongi errana, ene alaba —erran zion hark—, baina ez dun beharrezkoa gu, fraideok, gizontzat hartzea.

Eta hala, serora Mariek, desobedituz gero hoben eginen zuen beldur, aurpegiat behatu zion; eta hain itsusia kausitu zuen, ezen hari behatuz bekatua ez baizik penitentzia eginen zuela pentsatu baitzuen. Aita onak, zenbait ele erran ondoan zion amodioaren handiaz, eskua titian jarri nahi ukan zion, baina behar bezala gibelarazi zuen serorak eta, halako moduan haserretu zen priorea, ezen erran baitzion:

—Jakin behar ote du serora batek titiak badituenik ere?

Eta hark erran zion:

—Nik badakit baditudala eta, baiki, ez zuk eta ez bertze nehork ez ditu ukituko, ez bainaiz hain gazte eta ezjakina ez bereizteko xuxen zer den bekatu eta zer ez.

Fraideak ikusi zuenean ez zuela hitzen bidez bereganatuko, bertze modu batez enganatu nahi ukan zuen, eta erran zion:

—Ondikoz, ene alaba, aitortu behar dinat ene premia larria, zeren mediku guziek sendaezintzat duten eri bat baitaukat, sendaezina non eta ez naizen dostatzen eta bozkariatzen anitz maite dudan emazte batekin. Nitaz denaz bezainbatean, ez niken, heriotzatik libratzeagatik, bekatu mortal bat egin nahi; baina, nagoen kondizio honetan egonik, ongi zekinat haragizko lohikeria ezin dela nehola ere konparatu homizidioarekin. Horregatik, ene bizia estimatzen badun, salbatu eginen didan, hire kontzientzia krudelkeriatik begiratzen dunala.

²¹ Etzalekua da ohiko bisita leku horietako bat. (I. O.)

²² Catherine de Saint-Benoît, Gifeko komentuko priore anderea, serore Marie Heroeten izeba zaharra. (I. O.)

Emakumeak galdetu zion zein dosteta mota zeukan gogoan. Erran zion fraideak trankil pausatzen ahal zuela bere kontzientzia berarenaren gainean, ez zuela berak deus eginen bietarik nehor hobendun ekarriko lukeenik. Eta, galdatzen zuen denbora-pasaren nondik norakoa erakusteko, emakumea besarkatu eta ohe baten gainerat aurtikitzea entseatu zen. Hark, gizonaren asmo makurra hautemanetz, hain ongi defendatu zuen bere burua hitzez zein besoz, non gizonak beraren beztimendak baizik ezin ukan baitzituen ukitu. Eta berehala, ikusi zuelarik bere amarru eta ahaleginak oro ezdeus zirela, sumindurik eta ez soilik bere gontzetarik jalgia, ezpada baita berezko arrazoinamendutik ere, eskua abitu azpitik sartu zion, eta halako furian karraxmikatu zuen azazkalez ukitu ahal ukan zuen guzia, non, neska gaixoa, garrasi bizian, zolarat erori baitzen oso-osorik, trenputxarturik. Eta, oihua entzunik, ganberan sartu zen abadesa, bezperetan zela oroitua baitzen ilobaren alaba priorearekin utzia zuela, eta halako arrangura sortu zitzaion kontzientzian, ezen bezperak utzi eta ganberako aterat hurrandu baitzen zertan ari ziren entzutera. Baina, ilobaren boza aditu zuelarik, atea pusatu zuen, fraide gazteak atxikia baitzuen. Eta prioreak ikusi zuelarik abadesa zetorrela, honela erran zion, iloba trenputxarturik erakusten ziola:

—Segurik, ama gurea, handia da zure makurra, ez baitidazu erran nola zegoen serora Marie, eta nik, haren herbaltasunaz ez nekienez, zutik atxikiarazi dut ene aitzinean, eta larderiatu dudalarik trenputxartu egin zait, dakusazun bezala.

Bere onera etorraz zuten orduan ozpinez eta bertze zenbait gai hautaz, eta ikusi zuten buruan mina hartua zuela erorikotik. Onera etorri zelarik, prioreak, neskak izebari bere gaizkiaren kausa zein zen kontatuko zion beldur, bereiz hartu eta erran zion:

—Ene alaba, manatzen dinat, desobedientziagatik kondenatzeko penaren pean, ez dezanan sekulan konta zer egin dinadan nik hemen, bai baitakin ene amodioaren handiak beharturik aritu naizela. Eta, ongi dakusadanez ez naunala maitatu nahi, ez dinat bertze nehoiz halakorik aipatuko berriz, eta segurtatzen dinat ezen, maite nahi ukan banintzan, erresuma honetako hirur abadia onenetarik bateko abadesa hautaraz hintzaten eginen nukeela.

Ordea serorak ihardetsi zion nahiago zuela betiereko kalostran hil, ezen ez beragatik gurutzean hila zen Hura ez bertze amodiorik ukan, nahiago baitzuen Harekin pairatu munduak ematen ahal dituen gaitzak oro, ongiak oro Haren kontra ukan baino. Eta ez zekiola berriz hartaz mintzo, edo ama abadesari kontatuko ziola; baina isiltzen baldin bazen, bera ere isilduko zela. Eta horrela partitu zen artzain gaizto hura, zeinak, zen ez bezalakoa agertzeagatik eta ukaiteagatik oraino maite zuen hari behatzeko plazera, abadesari so egin eta erran baitzion:

—Ene ama, arren galdatzen dizut kantaraz diezaiezun zure alaba guziei Salve Regina bat, ene esperantza jarria dudana birjina honen ohoretan.

Eta hala egin zuten. Kantatzen ari zirela, negar baizik ez zuen egiten azeria hark, eta ez bere debozioz, serorarena bentzutu ez zuelako zuen damuagatik baizik. Eta serora guziek, pentsatuz Ama Birjina Mariari zion amodioagatik zela, gizon saindutzat zeukaten. Serora Mariek, ongi ezagutzen baitzuen haren malezia, birjintasuna manera hartan gutiesten zuen hura umiliatua izan zedin otoizten zuen bere bihotzean.

Hala itzuli zen hipokrita hura Saint-Martinerat, eta han ere pizturik zirauen gau eta egun bihotzean zeukan su gaizto hark, eta ez zion uzten bere xedea erdiesteko amarru posible guzien xerkatzeari. Eta abadesaren beldur zenez gauza guzien gainetik, emazte bertutetsua baitzen, monasterio hartarik nola lekuaraziko zuen pentsatzen hasi zen. Madame de Vendôme-rengana jo zuen, La Fere-n baitzen tenore hartan, non San Benitoren komentu bat fundatu eta eraikiarazia baitzuen, Mont d'Olivet izenekoa²³. Erreformatzaile nagusia zenez, erran zion andere onari Mont

²³ Vendôme-ko konde François de Bourbon-en emazte Marie de Luxembourg-ek beneditarren monasterio bat fundatu zuen, 1518an: Calvaire edo Mont d'Olivet. (I. O.)

d'Olivet hartako abadesa ez zela hauta halako komunitatea gobernatzeko, eta hark galdatu zion esleiei ziezaien bertze bat, kargu hartan aritzeko gai izanen zena. Eta prioreak, ez baitzuen bertzerik nahi, aholkatu zion Gifeko abadesa hartzeko, hura zuela Frantzian zen hautena. Madame de Vendôme berehala igorri zuen baten bat haren bila, eta Mont d'Oliveteko monasterioaren ardura eman zion. Saint-Martingo prioreak, bere esku baitzituen monasterio orotako bozak, bere gustuko abadesa bat hautarazi zuen Giferako. Eta hautaketa haren ondotik, han joan zen berriz aipatu Gif hartara, berriz ere entseatzera ea, otoiz edo eztiz, bereganatzen ote zuen serora Marie Heroet. Eta ikusiz ez zegoela modurik, etsirik itzuli zen Saint-Martingo bere prioretzarat, non, bere xedea erdietsi eta berarekiko hain krudela zen hartaz mendekatzeko —beldur zen, izan ere, aferaren berri jakinen ote zen—, Gifeko monasterioko erlikiak ebatsarazi baitzituen, gauez. Eta ebasketa hango kofesorari egotzi zion, gizon on eta txit zaharra bera, eta Saint-Martingo presondegian sartu zuten horregatik. Preso zeukan bizkitartean, sorrarazi zituen bi lekuko, zeinek batere jakin gabe sinatu baitzuten Saint-Martingo jaunak manaturikoa, hots, ikusia zutela jardun batean harako kofesor hura serora Marierekin, eginkari itsusi eta lohi batean ari, eta hala aitorrarazi nahi ukan zioten fraide zaharrari. Alabaina, hark, zeinak bai baitzekien priorearen hoben ororen berri, otoiztu zion kapitulurats igortzeko²⁴, eta han erranen zuela, elizgizon guzien aitzinean, zekien guziaren egia. Prioreak, kofesoraren aitortzak kondena ekarriko zion beldur, ez zuen bete nahi ukan galde hura. Baina kofesora fermu kaustu zuen bere asmoan, eta hain gaizki tratatu zuen presondegian, ezen batzuek diote han berean hil zela, eta bertze batzuek behartu zuela abitua uztera eta Frantziako erresumatik partitzera. Nolanahi den, ez zen sekulan berriz ere ikusia izan.

Prioreak begietsi zuelarik serora Marie bereganatzeko moduan zela, han joan zen monasteriorat abadesarengana, zeinak, bere nahitara jarria zuenez, ez baitzion deusetan ere kontra egiten. Eta, bisitari karguaz baliatuz, serora guziak etorerrarazi zituen bata bertzearen ondotik ganbera batera, etsaminatu behar zituela eta²⁵. Eta serora Marierekin aldia heldu zelarik, galdua baitzuen hark bere izeba ona, honela hasi zitzaion:

—Serora Marie, badakin zein krimen egozten zainan, eta hain xahua haizelako itxurak egiteak ez din deus balio ukan, ongi ezaguna baita guziz kontrakoa haizela.

Serora Mariek, begitarte fermuz, ihardetsi zion:

—Ekarraraz ezazu hona akusatzen nauena, eta ikusiko dugu ea atxikitzen duen bere jujamendu gaiztoa ene aitzinean.

Prioreak erran zion:

—Ez dinagu bertze frogarik behar, aitortu baitu kofesorak.

Serora Mariek erran zion:

—Gizon ontzat daukat, eta ez dut uste halako gezurrik aitortuko zuenik; baina, hala izanik ere, etorraraz ezazu ene aitzinerat, eta frogatuko dut nik erraten duenaren kontrakoa.

Prioreak, ikusiz ezin zuela nehola ere kordokarazi, erran zion:

—Hire aita naun, eta hire ohorea salbatu nahi niken; horregatik, hire kontzientziaren pean ezartzen dinat egia hori, eta dionanarekin akort izanen naun. Beraz, bekatu mortalaren penaren pean, galde eta otoizten dinat egia erran diezadanan, ea birjina hintzen hemen sartu hintzelarik.

Serorak ihardetsi zion:

²⁴ Kapituluak kalonjeen biltzarra da, zeinak, besteak beste, publikoki zigortzen baititu hobenduntzat harturiko fraideak. (I. O.)

²⁵ Komentuko bisitaria “arimen bisitaria” da, kontzientzien zuzendari lana egiten duena. (I. O.)

—Ene aita, bortz urte nituen, ez zenuke ene birjintasunaren bertze frogarik behar.

—Eta geroztik, ene alaba, ez ote dun galdu lili eder hori?

Gazteak zin egin zion ezetz, eta ez zuela nehoiz trabarik ukan, ezpada priorea bera. Gizonak erran zion ezin ziola sinetsi, eta proba bat egin beharra zegoela.

—Zein proba egin nahi zenuke? —erran zuen serorak.

—Bertze batzuekin egin ukan dudan bezala —erran zuen prioreak—, zeren, arimen bisitari naizen gisa berean naun gorputzen bisitari ere. Hire abadesa eta prioreak ene eskuetarik pasatu ditun, ez hadi beldur izan hire birjintasuna etsamina dezadan; etzan hadi ohatzean, eta jar ezan hire abituaren aitzinaldea bisairen gainean.

Serore Mariek hiraz ihardetsi zion:

—Hainbertzetan mintzatu zatzaizkit didazun amodio zoro horretaz, ezen iduri zait ene birjintasuna ikuskatu ez, baizik kendu egin nahi didazula; baina jakizu ez dudala sekulan amore emanen.

Orduan, prioreak erran zion eskumikaturik zegoela manua, ordenak galdatzen zion bezala, ez obeditzeagatik, eta ez baldin bazuen baia ematen, kapituluaren aitzinean desohoratuko zuela, eta kontatuko zuela beraren eta kofesoraren artean egon zena, bazekiela eta. Baina serorak, sosegu betea bisaian, ihardetsi zion:

—Bere zerbitzarien bihotza dazaguen Hark zuk gizon-emazteen aitzinean pasaraziko didazun lotsa bezainbat ohore eginen dit bere aitzinean. Horregatik, honaino heltzen denez zure malezia, nahiago dut bete dezan eneganako duen krudelkeria ezen ez desira makur hori, ongi baitakit Jainkoa juze zuzena dela.

Prioreak kapitulu osoa bildu zuen berehala, eta serora Marie bere aitzinerat ekarrarazi zuen belauniko, eta, erresumin handiz, erran zion:

—Serora Marie, gaitzi zaidan ikustea ene aholku on guziak alferrik ukan ditunala eta halako makurrean erori haizela, eta beraz, ene usantza ez bada ere, beharturik naun penitentzia bat ezartzera; izan ere, hire kofesora etsaminaturik egozten zitzaizkion hoben batzuen gainean, aitortu zidan abusatu zuela, non-eta lekukoek ikusia zutela erran zuten ber lekuan. Horregatik, nobizien buru izateko kondizio ohoretsura gorarazi hindudan bezala, manatzen dinat orain jar hazatela ez soilik guzien giblean, ezpada lurretik jaten ahizpa guzien aitzinean, ogi eta ur hutsik, harik eta hire kontrizioa grazia ukaiteko heineko askiesten den arte.

Serora Mariek —afera guziaren berri zekien kideetarik batek gaztigatua baitzen ezen, prioreari gaitzi eginen zitzaion zerbait erranez gero, *in pace* jarriko zuela, hots, kalostran betiko— jasan zuen sententzia hura begiak zerurantz altxatuz, eta eskatuz, bekatuari aitziz egiteko indarra eman zion Hari, izan zedin atsekabe hartan behar zuen pazientzia. Saint-Martingo priore hark orobat manatu zuen ezen, neskaren ama edo ahaideak jiten zirelarik, ez ziezaiotela utz haiekin mintzatzen hirur urtez, ez eta haiei eskribitzen ere, ezpada komunitatean eginiko gutunak.

Horrela joan zen gizon dohakabe hura, eta ez zen gehiago harat itzuli. Eta gaizo neska luzaz egon zen entzun duzuen atsekabe horretan. Baina haren ama, seme-alaba guzien gainetik maite baitzuen, ikusiz ez zuela haren neholako berririk, biziki balditu zen, eta erran zion semeetarik bati²⁶, zaldun zuhur eta prestua bera, ezen iduri zitzaiola alaba hila zela, baina serorek, haren urteko pentsioa ukan ahal izateko, disimulatu egiten zutela. Eta egin zitzala eginahal guziak arreba ikusteko. Zalu partitu zen anaia monasteriorat, non ohiko desenkusak egin baitzizkioten, hots, bazirela hirur

²⁶ Georges, Carrières-eko jauna. (I. O.)

urte ez zela ohetik altxatzen. Baina ez zen kontent gelditu arrapostu harekin, eta zin egin zien ezen, arreba ikusten ez baldin bazuen, harresien gainetik iragan eta monasterioa bortxatuko zuela. Serorak beldurtu egin ziren, eta arreba solastegirat ekarri zuten, baina, hain hurbil zeukan abadesa, ezen ezin baitzion anaiari deus erran hark entzun gabe. Baina Mariek, zentzuduna baitzen, eskribiturik ekarri zuen goian erran guzia, eta horrekin batera baita bertze elementia bat amarru ere, aipatu prioreak bera enganatzeko baliatu zituenak, eta kontatu gabe utzi ditudanak istorioa ez luzatzeagatik. Alabaina, ez nuke erran gabe utzi nahi ezen, seroraren izeba abadesa zelarik, eta pentsatuz itsusia zelako errefusatzen zutela, priore hark tentarazi zuela serora Marie fraide gazte eta eder batekin, esperantzaturik horrela serorak amodioaren indarrez obeditzen baldin bazion fraide hari, ukanen ahal zuela berak gero beldurrarenez. Baina lilitegi batean, non fraide gazte hark titulikatu nahi ukan baitzuen, jestu hain lizunez ezen lotsa bainintzateke orain hemen gogoratzeko, neska gaixoa lasterka joan zitzaion abadesari, oihuka:

—Ama, elizgizonen orde deabruak jiten zaizkigu ikuskatzerat.

Eta berehala, priorea, agerian geldituko zen beldur, erraten hasi zen, irriz:

—Segurik, ene ama, arrazoi du serore Mariek!

Eta, serora Marie eskutik atxikiz, erran zion abadesaren aitzinean:

—Entzuna nuen serore Marie hagitz ongi mintzatzen zela, eta hain ele-ederra zela, non mundutartzat hartzen ahal baitzen; horren kariaz, eta ene funtsaren kontra, mundutar gizonek emazteei egin ohi dizkieten solasak egin ukan dizkiot, izkribuetan kausitu baititut, sortu nintzen bezain ezjakina izanki esperientzia. Eta pentsatuz ni zaharra eta itsusia izateak erranarazten zizkiola hain hitz bertutetsuak, manatu nion fraide gazte horri iduriko eleak egitea, eta ikusi duzu zeinen bertute handiz egin dion aitzia. Beraz, hain daukat zuhur eta bertutetsutzat, ezen hemendik harat zure ondotik lehena eta nobizien buru izatea nahi bainuke, duen nahikunde on hori etengabe haz dadin bertutean.

Horrelako egintzak eta bertze hainbat egin zituen fraide on hark seroraz amorosturik egon zen hirur urteetan. Eta hark, erran dizuedan bezala, solastegiko saretik kontatu zion anaiari bere historia urrikgarriaren bilakaera. Eta anaiak amari jakinarazi zion, eta hura, guziz etsirik, Pariserat joan zen, non Nafarroako erreginarekin —Erregeren arreba bakarra bera²⁷— mintzatu baitzen, eta historia urrikgarri hura kontatu zion, erranez:

—Anderea, fida zaitez berriz zure hipokrita horietaz! Ene alaba paradisuko bide eta aldirietan neukalakoa, infernukoetan ezarri dut, izaten ahal diren deabrurik gaiztoenen esku artean; zeren deabruak ez baikaituzte tentatzen plazer ez badugu, baina hauek bortxaz berenganatu nahi gaituzte, amodio mentsean.

Nafarroako erregina pena handiz gelditu zen, konfiantza osoa baitzuen Saint-Martingo priore haren baitan, eta haren kargu utziak baitzituen bere bi koinatak²⁸, Montivilliers eta Caengo abadesak. Bertzalde, krimen handi hark sortu zion laztura eta neska gaixo hura mendekatzeko desira halakoa izan zen, non aferaren berri eman baitzion tenore hartan Frantzian Erregeren ordezkari zen kantzilerrari²⁹. Eta Saint-Martingo priorearen xerka joan ziren, eta hark ez zuen desenkusarik ukan, ezpada hirurogeita hamar urte zituela. Eta Nafarroako erreginari mintzatuz, arren galdatu zion eten zezan auzi hura, nehoiz egin nahi ukan ziokeen satisfazio ororengatik eta berak eginak zizkion eta egin asmo zizkion zerbitzu guziengatik, eta aitortuko zuela serore Marie Heroet ohore eta birjintasunezko

²⁷ Margarita bera, bistan da (I. O.)

²⁸ Nafarroako errege Henrike II.aren arabek: Catherine, Havretik gertu den Montivillierseko abadesa, eta Madeleine, Caen-go Trinitéko abadesa. (I. O.)

²⁹ Antoine Duprat, Frantziako kantziler, zeina kardenal eta aita sainduaren ordezkari izendatu baitzuten 1530ean. (I. O.)

perla fin bat zela. Hain miretsirik gelditu zen Nafarroako erregina hura entzunik, ezen ez baitzuen zer ihardetsi jakin, baina han berean utzi zuen, eta gizon gaixoa, ahalketurik guziz, bere monasteriorat erretiratu zen, non ez baitzuen nehork ikus zezan nahi ukan; eta handik urtebetera hila zen. Eta serora Marie Heroet, behar bezala estimatua Jainkoak haren baitan jarriak zituen bertuteengatik, Gifeko abadiatik kendu, non hainbertze makur pairatu baitzuen, eta Montargis-etik hurbil den Giy-ko abadiako³⁰ abadesa izendatu zuten Erregeren manuz; abadia erreformatu egin zuen, eta han bizi izan zen Jainkoaren izpiritu betean, eta bere mende osoan Hura goretsiz, ohorea eta sosegua berari itzultzeko plazera ukan zuelako.

«Hara, ene andereok, istorio hauta bat Ebanjelioak dioena erakusteko: Jainkoak ahulen bidez umiliatzen dituela indartsuak, eta gizon-emazteen begietarat ezdeus direnen bidez ezdeusten zerbait direla uste izanagatik deus ez direnen loria. Eta pentsa ezazue, ene andereok, ezen, Jainkoaren graziarik gabe, ez dela gizon-emazterik zeinarengandik igurikitzen ahal baita ezein ongirik, ez eta Hura gabe bentzutu ezin den tentazio hain handirik, eta hori aise hauteman dezakezue ikusirik zuzentzat hartzen zela haren nahasmendua, zeinak bekatarik eta gaiztotzat hartzea nahi baitzuen bertze haren gorestea. Horretan egiaztatzen da Gure Jaunak errana: “Zeren goratzen dena apaldua izanen baita, eta apaltzen dena goratua”.³¹».

«Ondikoz! —erran zuen Oisillek—, horra nola priore hark enganatu zuen jende ona!, bistan baita haren baitan gehiago fidatzen zirela Jainkoarenean baino».

«Ez ni —erran zuen Nomerfidek—, zeren halako laztura sortzen zait elizgizon bat ikusten dudalarik, ezen ezin bainaiz harekin konfesatu ere, iduri baitzait bertze gizon guziak baino makurragoak direla, eta ez dutela sekulan etxe bat hantatzen lotsaren bat edo aharraren bat sortu gabe».

«Badira onak ere —erran zuen Oisillek—, eta ez genituzke gaiztoen moduan jujatu behar; baina onenak, sekularren etxeak eta emazteak gutien hantatzen dituztenak dira».

«Egia diozu —erran zuen Ennasuitek—, zeren zenbat eta gutiago ikusi, hainbat eta gutiago ezagutzen dira, eta gehiago estimatzen; hantatzeak, aldiz, diren bezala ikusarazten ditu».

«Hortaz, utz dezagun komentua dagoen lekuan —erran zuen Nomerfidek—, eta dakusagun nori ematen dion hitza Geburonek».

Egin hobena erreparatzeko, hobena baldin bada elizgizon gaizto baten bizitza dohakabe eta hastiagarria jakitera eman ukana, eta haren idurikoen hipokrisiatik begiratzeagatik, Geburonek, hain estimu handian zeukanez Oisille anderea —dama zuhurra, eta prestago zegoena beti bertzeren baitan zekuskien alde onak laudatu eta agerrarazteko neherengatik gaizkika aritzeko baino—, hari eman zion hitza:

«Oisille andereari emanen diot —erran zuen—, erran diezagun zerbait elizgizonen fabore».

«Zin egin dugunez egia erranen dugula —erran zuen Oisillek—, ezin ukanen nuke parte hori atxiki. Zurea entzunik etorri zait gogora orobat bertze istorio bat, hain tristea, non beharturik bainago kontatzera, zeren istorio hori ene mendean gertatu baitzen, bizi naizen herrialdean berean. Eta beren burua bertzerena baino erlijiosoagotzat duten horien hipokrisiak lilura ez zaitzaten, ene andereok, eta, hala, zuen fedeari, bide xuxenetik zeharturik, iduri baldin bazaio salbazioa edirenen duela bertze kreaturaren baten baitan ezen ez gure sortze eta erredentzioan bakar-bakarrik parte hartu nahi ukan zuen Harenean, zeina guziz boteretsua baita gu bizitze eternalerako salbatzeko eta mundu honetakoan kontsolatu eta atsekabe orotarik libratzeko, eta jakinik Satan aingerua ardura argizko

³⁰ Egungo Gy-les-Nonnains, Loiret departamenduan. (I. O.)

³¹ Ebanjelioko aipua (Lukas 14, 11). (I. O.)

aingeru bihurtzen dela³², zertarako-eta kanpoko begiek, saindutasun eta debozio itxura hark itsuturik, ez diezaioten beha ihes egin beharko lioketen horri; horregatik, bada, uste dut on dela istorio hau zuei kontatzea, ene mendean gertatua baita».

³² «Horrelakoak sasi apostoluak dira, gezurrezko langile, Kristoren apostolu itxura baizik ez dutenak. Eta ez da harritzekorik: Satanek berak argizko aingeru itxurak hartzen baditu, ez da handi haren zerbitzariak ere salbamenduaren zerbitzari itxurak hartzea.» (2 Korintoarrei 11, 13-15). (I. O.)

HOGEITA HIRUGARREN ISTORIOA

Périgordeko zaldun batek San Frantziskoren ordenari zion erreberentzia handiegiaren kariaz hil ziren, miserableki, hura, emaztea eta seme ttipia.

Bazen, Perigordeko herrian, zaldun bat, zeinak halako debozioa zion San Frantziskori, non uste baitzuen haren abitua jaunzten zuten guziek saildu onaren idurikoak izan behar zutela. Eta hala, eginaraziak zituen etxean, haren ohorez, ganbera bat eta kabinete bat anaia haiek aloitzeko, eta haien aholkuz bideratzen zituen bere afera guziak, baita etxeko kontu xeheenak ere, haien aholku onei jarraikiz gero bide xuxenetik ibiliko zela uste baitzuen. Hala, egun batez, zaldun haren emaztea, zeina ederra bezain zuhurra eta bertutetsua baitzen, haur eder batez erdi zen, eta senarraren harenganako maitasuna doblatu egin zen. Eta komaia³³ bestatzeko, koinatu baten xerka bidali zuen baten bat. Eta afaltzeko tenorea hurbil zelarik, heldu zen kordelier bat, zeinaren izena isildu egingen baitut haren ordenaren ohoreagatik. Zalduna ontsa kontent zen bere aita espirituala han ikusirik, harendako ez baitzuen neholako sekreturik. Eta emaztearekin eta koinaturekin solas batzuk egin ondoan, mahaira eseri ziren afaltzeko. Afaritan ari zirela, zaldunak, emazteari beha, zeinak bai baitzuen grazia on eta edertasunik aski senar batek desiratua izateko, galdez hasi zitzaion aita onari, mintzo ozenez:

—Ene aita, egia da gizon batek bekatu mortala egiten duela emaztearekin erdiondoan oheratuz gero?

Aita onak, zeinak bisaia eta mintzoa bihotzaren guziz kontrakoak baitzituen, ihardetsi zion koleraz beterik:

—Dudarik ez, jauna, hori da, ene iduriko, ezkontzan egin ohi den bekatu handietarik bat. Horra Maria Birjina benedikatuaren etsenplua, hark ez zuen tenpluan sartu nahi ukan bere xahualdia bururatu arte³⁴, nahiz eta beharrik ez ukan hartarako³⁵; beraz, zuk uko egin behar zenioke beti halako plazer ttipi bati, ikusirik Maria Birjinak, legeari segitzeagatik, uko egiten ziola tenplurat joateari, han ukanik bere kontsolamendu guzia. Bertzalde, mediku jaunek ere diote peril handia dela ondotik datozkeen haurrendako.

Zalduna biziki samurtu zen ele haiek entzunik, aita onak baimena emanen ziola espero baitzuen, baina ez zuen bertzerik erran. Aita onak, solas hartan, eta behar baino gehiago edana zenez, damari behatu eta bere baitan pentsatu zuen ezen, senarra bera balitz, ez ziokeela fraideari neholako aholkurik galdatuko emaztearekin oheratzeko. Eta, nola suak pirka-pirka piztu eta etxe osoa hartzen duen, hala hasi zen sutan fraidea ere, irritsez, halako moduan, ezen tupustean deliberatu baitzen bere desira hura betetzerat, izan ere, hirur urte baino gehiago zen bihotzean estalirik zeramala.

³³ Amakidea. (I. O.)

³⁴ Erditzea —eta hilekoa— zer zikintzat hartuak ziren Itun Zaharrean, eta emakumeak xahutu, purifikatu egin behar zuen bere burua tenplura itzuli baino lehen edo sexu harremanak izan aurretik (cf. Lebitarrena 12, 1-5: «Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: “Esan israeldarrei: Emakumea, mutikoa izaten badu, zazpi egunez kutsaturik geldituko da, hilerokoa duenean bezala. Zortzigarren egunean mutikoa erdainduko dute; baina amak beste hogeita hamahiru egun itxaron beharko du galdu duen odoletik garbi gelditzeko; ez du ezer santurik ukituko, ezta santutegian sartuko ere, garbikuntza-egunak bete arte. Baina neskatoa izaten badu, bi astez geldituko da kutsaturik, hilerokoarekin bezala, eta beste hirurogeita sei egun itxarongo du odoletik garbi gelditzeko”»). (I. O.)

³⁵ Beste emakumeak ez bezala birjina baitzen. (I. O.)

Eta mahaitik zutitu zirelarik, zalduna besotik hartu eta, emaztearen ohatzerat eramanez, erran zion haren aitzinean:

—Jauna, ongi dakit zeinen handia den andere honen eta zure arteko amodioa, eta, hain zara gaztea, ezen biziki urrikaldurik bainagozu, naski, honek guziak nolako tormentua eragiten dizun ikusirik; horregatik, gure teologia sainduko sekretu bat erranen dizut, eta da ezen legeak, hagitzen zorrotza bada ere zentzu gutiko senarrek egin abusuekin, ez duela zu bezalako kontzientzia onekoen adimendua ilundu nahi. Horregatik, Jauna, eta jende aitzinean legearen larderiak zer manatzen duen aipatu badizut ere, gizon zuhurra zarenez, ez dizut gordeko haren gozotasuna. Jakin ezazu, ene semea, badirela emazteak eta emazteak, eta orobat gizonak eta gizonak. Lehenik, bada, jakin behar genuke ea honako dama honek, badirenez hirur aste erdi zela, oraino ere ba ote duen odol isuririk.

Hori entzunik, andereak ihardetsi zion guziz xahu zela.

—Orduan, ene semea —erran zuen kordelierrak—, baimendua ematen dizut harekin ohera zaitezen, arrangurarik gabe, baina bi gauza prometatu behar dizkidazu.

Eta gogo onez egin zuen promes gizonak.

—Lehena duzu —erran zuen aita onak— ez diozula nehoi deus erranen, eta gordean jinen zarela; bertzea, ez zarela etorriko gauerdia jo eta bi oren baino lehen, andere on honen digestioa ez dezaten traba zure erokeriek.

Eta halako juramentuz egin zion promes zaldunak, ezen fraidea, zeinak gizona ergeltzat baitzuen gehiago gezurtizat baino, segur gelditu baitzen. Eta, solas batzuk trukatu ondoan, erretiratu zen aita ona bere ganberarat, gau on erran eta benedizioe handi bat emanik. Baina, ganberarat zihoala, zalduna besotik hartu, eta erran zion:

—Zu ere bai, jauna, heldu zaitez eta ez ezazu komai gaixoa atzarririk atxiki.

Zaldunak, emazteari pot eman eta erran zion:

—Ene maitea, utz iezadazu irekirik ganberako atea.

Eta ongi aditu zuen hori aita onak. Horrela erretiratu ziren nor bere ganberarat. Fraidea erretiratu, erretiratu zen, baina ez zuen ez lo ez pausurik hartzeko asmorik, eta berehala, etxean neholako harrabotsik entzuten ez zelarik, matutietara joan ohi zen tenorean, damaren ganberarat jo zuen xuxen, baratxe-baratxe, eta, jaunaren beha zeuden ganbera hartako atea irekirik kausituz, kandela abilki itzali eta zalu baino zaluago oheratu zen emaztekiaren ondoan, batere hitzik erran gabe. Andereñoak, senarra zelakoan, erran zion:

—Nolaz, baina, ene maitea! Ez duzu batere ongi bete bart arratsean gure kofesoriari egin promesa, bi orenak baino lehen ez etortzekoa!

Kordelierrak, erneago une hartan bizi aktiboari kontenplatioari baino, eta ezagutuko zuten beldur zenez, bihotza luzaz pozoiturik zion desira makur hura betetzea pentsatu zuen emazteari deus ihardestea baino gehiago, eta biziki estonaturik gelditu zen hura. Eta ikusi zuelarik fraideak hurbil zela senarra jitekoa zen tenorea, emaztekiaren ondotik altxatu eta bere ganberarat itzuli zen zalu-zalu.

Baina irrisaren beroak hastapenean loa kendu zion bezala, orain beldurrak, gaiztakeriaren gibeletik etorri ohi baita beti, ez zion neholako pausurik hartzen uzten, eta horregatik etxeko bortazainarengana jo eta erran zion:

—Ene laguna, Jaunak manatu dit komenturat joateko berehala otoitz batzuk egitera, hango debotoa baita bera; horregatik, laguna, arren galdatzen dizut zaldia ekarri eta borta ireki diezadazu, nehork deus entzun gabe, afera beharrezkoa eta sekretua baita.

Bortazainak, ongi baitzekien kordelierrari obeditzea zaldun jaunak plazer zuen zerbitzua zela, isilean borta ireki eta joaten utzi zuen. Lipar hartan itzarri zen zalduna, eta, ikusiz hurbil zela aita onak emaztearen baitarat joateko baimendua zion orena, ohe atorra hutsik altxatu eta oheratzera joan zen fite, nora-eta Jainkoaren manuz eta bertze nehoren baimendurik gabe zilegi zuen lekurat. Eta emazteak entzun ziolarik bere ondoan eleketan, hain harriturik gelditu zen, ezen, jakin gabe zer gertatzen zen, erran baitzion:

—Nolaz, baina, Jauna! Hau ote da aita onari egin dionzun promesa, ene osasuna zurea bezain ongi begiratzekoa? Eta ez da soilik orena baino lehen jin zarela, ezpada berriz ere hemen zaudela! Otoi, Jauna, gogoeta zaitetz.

Zalduna, hain gelditu zen durduzaturik hura entzunik, non ezin ukan baitzuen bere atsekabea gorde, eta erran zion:

—Zer ele dira horiek? Ongi dakit duela hirur aste ez naizela zurekin oheratzen, eta erasian hartzen nauzu arduregi etortzen naizela eta? Halako eleekin jarraikiz gero, pentsaraziko zenidake ene konpainiak atsekabetu egiten zaituela, eta behartuko nindukezu, ene ohidura eta nahiaren kontra, bertzeren baitan xerkatzera Jainkoaren manuz zurekin hartu behar nukeen plazera.

Andereñoak, pentsatuz gizona trufan zebilela, ihardetsi zion:

—Arren galdatzen dizut, jauna, ez zaitetz tronpa ni tronpatu nahian, zeren, hitzik egin ez badidazu ere, ongi ezagutu zaitut etorri zarenean.

Berehala ohartu zen zalduna bi-biak zirela tronpatuak, eta zin-zinez erran zion bera ez zela lehenago etorri. Dama guziz triste gelditu zen, eta, negar iturri, galdatu zion lehiaz iker zezan nor izan zitekeen, zeren etxe hartan lotan anaia eta kordelierra baizik ez baitziren. Zalduna, berehala, kordelierra izanen zela goganbeharturik guziz, presaka joan zen hura egonen zela uste zuen ganberarat, eta hutsik kausitu zuen. Eta, hobeki segurtatzeko ihes egina ote zen, borta zaintzen zuena jinarazi eta galdatu zion ea bazekien zertan zen kordelierra, eta hark egia osoa erran zion. Zalduna, haren gaiztakeriaz segur, emaztearen ganberarat itzuli eta erran zion:

—Segur naiz, maitea, zurekin oheratu eta halako lan ederra egin duena gure aita kofesora dugu.

Dama, zeinak bizi osoan begiratu baitzuen bere ohorea, halako etsimenduan erori zen, ezen, jendetasun oro eta emakume natura ahantziz, belauniko otoiztu zion halako bidegabe handi hura mendeka zezan. Eta hala, bat-batean eta bertze luzapenik gabe, zaldia hartu eta kordelierraren gibeletik jalgi zen zalduna.

Anderea bakarrik gelditu zen ohatzean, bertze kontsolamendurik gabe haurño sortu berria baizik. Gogoatuz gertatua zitzaionkasu izugarri eta miragarri hura, eta ezjakintasuna aitzakiatzat hartu ezinik, bere burua hobenduntzat eta munduko pertsonarik malurusentzat hartu zuen. Eta horrela, dama hark, kordelierrengandik sekulan egintza onen konfiantza baizik ez baitzuen ikasia, eta bekatuak bizimolde austero batez, barur eginez eta erregela zorrotzez ordaintzen, ez zuen batere kontuan hartzen gure Jainko onak bere Semearen merezimenduz eman grazia, ez Aita gurekin adiskidetu izana Haren heriotzaren bidez, ez eta bekatariei Bere onezia eta miseriakordia hutsez emana ziela bizia ere, eta hain zegoen durduzaturik, bada, senarraren amodioari eta leinuaren ohoreari egin bekatuaren handi-larriek kausatu etsimenduaren oldarrean, ezen heriotza bera dohatsuagotzat baitzuen bizia baino. Eta tristeziak bentzuturik, halako etsimenduan erori zen, non ez baitzen soilik giristino orok Jainkoaren baitan ukan behar duen esperantzatik urrundu, ezpada zentzu komunetik guziz bertzerendurik gelditu baitzen, bere natura bera ahantziz. Eta hala, saminak garaiturik eta etsimenduaren bulkadaz, bere buruaren eta Jainkoaren ezjakin, eta suminez eta errabiaz mukuru, ohatzeko korda bat hartu eta bere burua ito zuen. Eta, makurrago dena, herio krudel haren agonian zela, halako maneran inarrosten zen gorputza beraren kontra borrokan, ezen haur ttipia jo baitzuen oinaz bekokian, eta bere inozentziak ez zuen begiratu ama doloros eta

atsekabetua bezala hiltzetik. Baina, hiltzear zela, halako oihua egin zuen, non ganberan lotan zen emazte bat presa handiz altxatu baitzen kandela piztera. Eta, berehala, emaztea ohatzetik dilindan ikusiz, eta haurra ere itorik eta hilik haren oinpean, lasterka jalgi zen handik guziz izuturik eta andere nagusiaren anaiaren ganberarat jo zuen, zeina jinarazi baitzuen ikuskari triste hura ikus zezan.

Anaiak, arreba bihotz osoz maite duen batek ukan behar eta ukaiten ahal duen moduko doluz, galdatu zion ganberazainari nork egin zuen halako krimena. Ganberazainak ihardetsi zion ez zekiela, nagusi jauna ez bertze nehor ez zela ganbera hartan sartu, eta hura partitua zela duela guti. Anaia, zaldunaren ganberarat joan eta kausitu ez zuelarik, segur izan zen hura izan zela krimenaren egilea, eta zaldia hartu eta, bertzerik ikertu gabe, haren gibeletik jalgi zen lasterka, eta han ediren zuen bide batean, bere kordelierrari jazartzetik itzulian zetorrela, biziki mindua hura atzeman ez zuela eta. Koinatua ikusi orduko, oihuka hasi zitzaion andereñoaren anaia:

—Defenda zaitetz, bihozgabe gaizto hori, zeren espero dut Jainkoak mendekatuko nauela gaur zutaz ezpata honekin.

Zaldunak, desenkusatu nahi bazuen ere, hain hurbil ikusi zuen koinatuaren ezpata, non behar handiagoa ukan baitzuen bere burua defendatzeko beren arteko disputa haren kausaz galdez hasteko baino. Eta hainbertze ukaldi eman zioten elkarri orduan, ezen galdu odolak eta unadurak lurrean eserarazi baitzituen, bata alde batean eta bertzea bertze batean. Eta hatsa berriz hartu zuelarik, zaldunak galdatu zion:

—Zer izan da, ene anaia, elkarri beti ukan diogun adiskidetasun handia halako gudu krudela bilakarazi duena?

Koinatuak ihardetsi zion:

—Eta zer dela-eta ero duzu ene arreba, nehoiz izan den emazterik onena? Hain manera makurrean, gainera, non, harekin etzan nahi zenuelakoan, ohatzeko kordetarik dilindatuz itoarazi duzun?

Zalduna, halako eleak entzunik, eta bizirik baino areago hilik, anaiarenganat jo eta, besarkatuz, erran zion:

—Posible ote da zure arreba erraten duzun maneran kausitu ukana?

Eta koinatuak segurtatu zionean:

—Otoi, ene anaia —erran zuen zaldunak—, entzun ezazu zergatik joana nintzen etxetik.

Eta berehala eman zion kordelier gaiztoaren berri. Orduan, koinatua guziz balditurik gelditu zen, eta haserre, gainera, arrazoirik gabe oldartu zitzaiolako. Eta, barkamendu galdez, erran zion:

—Hoben ekarri dizut, barkatu!

Zaldunak ihardetsi zion:

—Hobenik ekarri badizut, hau dut ene gaztigua, zeren hain nauzu zaurturik, ezen ez baitut osorik jalgitzeko esperantzarik batere.

Koinatua entseatu zen ahalik eta ongiena zalduna zaldi gainerat berriz iganarazten eta etxerat eramanean, eta han hil zen biharamunean. Aitortu zuen, zaldun haren ahaide guzien aitzinean, bera izan zela haren heriotzaren kausa, eta, justiziarekin betetzeagatik, aholkatu zuten galda ziezaion grazia Frantzisko erregeari, izen hura zuen lehena bera. Horregatik, senarra, emaztea eta haurra ohorezki ehortzarazi ondoan, gorterat joan zen, Ortzirai Saindu egunez, barkamendu eske. Eta hala,

kontatu zuen guzia maisu François Olivier-en bidez³⁶, zeinak erdietsi baitzuen barkamendua gaizo koinatuarendako, izanik Olivier hura orduan Alençoneko kantzileria, eta gero, zituen bertuteei esker, Erregek Frantziako kantziler hautatuko zuena.

«Ene andereok, ez zait iduri, istorio guziz egiazko hau entzun ondoan, zuetarik nehork halako peleginak ostatatuko dituenik bere etxean bigetan pentsatu gabe; eta jakizue ez dela pozoi perilosagorik gordean dena baino».

«Pentsa ezazue zein ergel handia zen senar hura —erran zuen Hircanek—, halako galant bat afaltzera gonbidatu baitzuen emazte onest eta eder baten baitara».

«Nihaurek ezagutu dut aro bat —erran zuen Geburonek—, zeinetan ez baitzen etxerik herri honetan aita onendako berariaz gorde ganbera bat ez zeukanik; baina egun, hain ezagutzen ditugu ongi, non mandilei baino beldur handiagoa baitiegu».

«Ene iduriko —erran zuen Parlamentek—, ohean den emazte batek ez luke nehoiz apezik onetsi behar bere ganberan, non ez den elizaren sakramentuak errezibitzeko; hala, nik dei diezaiedanean, xuxen ibiliko dira hil hurren naizela pentsatzen badute».

«Jendeak oro zu bezain zorrotzak balira —erran zuen Ennasuitek—, eskumikatuak baino makurrago biziko lirатеке apez gaixoak, emazteen ikustetik bereiz».

«Ez izan horren beldur —erran zuen Saffredentek—, ez baitira nehoiz emazte ments izaten».

«Nolaz! —erran zuen Simontaultek—; haiek dira-eta, ezkontza bidez, emazteekin estekatzen gaituztenak, eta gero, beren gaitakeriaz, entseatzen direnak laxa gaitezen eta eginarazia diguten juramentua hautsaraz dezagun!».

«Penagarria da —erran zuen Oisillek— sakramentuak administratzeko ardura dutenak horrela ibiltzea gero dostetan: bizirik erre beharko lirатеке».

«Hobe zenuke haiek ohoratzea ezen ez gaitzestea —erran zuen Saffredentek—, lausengu egitea ezen ez laido; izan ere, haiek dute bertze nehor erre eta desohoratzeko boterea: horregatik, *sinite eos*³⁷. Eta jakin dezagun orain nori ematen dion hitza Oisillek».

Bildurikoek biziki egoki kausitu zuten Saffredenten iritzia, eta, apezak han utziz, galdatu zioten Oisille andereari hitz bertze egin eta elea eman ziezaion baten bati.

«Dagoucini emanen diot —erran zuen—, ikusten baitut kontenplazio betean dagoela, eta erranen nuke prest dugula zerbait on kontatzeko».

«Ezin dudanez eta atrebitzen ere ez naizenez pentsatzen dudana erraterat —ihardetsi zuen Dagoucinek—, kontatuko dizuet bederen bati gertatu zitzaiona, zeinari halako krudelkeriak ondorio makurrak ekarri baitzizkion lehenik eta probetxua gero. Nahiz eta Amodiok guziz biluz joan nahi ukaiten duen —hain du bere burua sendo eta boteretsutzat—, eta enoagarri eta, finean, ezin jasana kausitzen duen jauntzirik ibiltzea, biziki maiz gertatzen da, ene andereok, ezen, haren aholkuari jarraikiz, batzuk laster baino lasterrago gelditzea agerian, ataka txarrean eroriz. Bada, hala gertatu zitzaion Gaztelako zaldun bati, eta haren istorioa entzunen duzue orain.

³⁶ Parisko Parlamentuan kontseilari, errekerimenduen arduradun, Alençoneko kantziler, Parlamentuko lehen presidente, eta, azkenik, hil zen arte Frantziako kantziler izan zena, 1545etik 1559ra arte. (I. O.)

³⁷ «Utz itzazue!». Mateo 15, 14-tik harturiko aipua da: «Utz itzazue! Itsu dira, eta itsu-gidari. Eta itsuaren gidaria itsua bada, biak zulora eroriko dira». (I. O.)

HOGITA LAUGARREN ISTORIA

Elisorrek zuhurgabeki adierazi zion Gaztelako erreginari zion amodioa, eta hain krudelki tratatu zuen hark, proban ezarriz, non makur handia ekarri baitzion, baina baita gero probetxua ere.

Gaztelako errege-erreginen etxean, zeinen izenak ez baititugu aipatuko, bazen zaldun bat, hain perfektua edertasun oro eta bertzelako kondizio on denetan, ezen ez baitzuen parekorik Espainia guzietan. Jende orok miresten zituen haren bertuteak, baina are gehiago haren izaera berezia, ez baitzen nehoiz jakin ezein damarik maite ukan zuenik. Eta Elisor izena zuen gizon haren horma urtzeko gai ziratekeen anitz baldin baziren ere gortean, batek berak ere ez zuen zalduna beretzat hartzeko ahalik ukan.

Erregina, biziki bertutetsua izanagatik, ez zegoen guziz libro gutien ezagutzen den eta gehien erretzen duen sugarretik eta liluraturik zebilen etxeko dametarik nehor maite ez zuen zaldun hari behatuz, eta egun batean galdatu zion ea posible ote zen itxura egiten zuen bezain guti maitatzea. Zaldunak ihardetsi zion ezen, haren bihotz barnekoa begitartea zekusan bezain ongi ikusiko balu, ez liokeela gehiago halakorik galdatuko. Erreginak, zer erran nahi zuen jakin nahirik, halako maneran hertsatu zuen gizona, non hark aitortu baitzion amodioa ziola dama bati, zeina giristino herri osoko bertutetsuena zela uste baitzuen. Eginahal oro egin zuen Erreginak, galdez eta manuz, dama hura nor ote zen jakiteko, baina ezin ukan zuen, eta biziki haserre zegoelako alegia egiten zuen, eta zin egin zion sekulan ez zitzaiola mintzatu ere eginen erraten ez baldin bazion hainbertze maite zuen haren izena. Hainbertze enoatu zen zalduna, non erran behar ukan baitzion nahiago zuela hil aitortu beharra baino; baina, ikusiz haren presentzia eta grazia galduko zukeela berez hain onesta zen eta nehork gaizki hartu beharko ez lukeen egia bat ez errateagatik, erran zion beldur handiz:

—Ene andere hori, ez dut nik ez indarrik ez ausartziarik zuri hori errateko, baina ihizira zoazen hurran aldian ikusaraziko dizut, eta segur naiz zuhaurek ere munduko damarik eder eta perfektuentzat ukanen duzula.

Arrapostu haren kariaz, Erregina bertzenaz joan zatekeena baino lehenago joan zen ihizirat. Elisor, abisatu egin baitzuten, prestatu zen ohi bezala haren zerbitzuko joatera, eta altzairuzko mirail handi bat eginarazi zuen, bular oskol gisa erabiltzeko, eta, bularrean paratuz, estali zuen guziz artile beltzeko manto handi batez, zeinak ertzak oro dentelaz eta urrezko hari izur batez nasaiki brodatuak baitzituen. Zaldi beltz distiratsu baten gainean zegoen, zaldi gainean ibiltzeko behar den guziaz horniturik, eta, metalezkoa zuen oro urrea zen, beltzez esmaileztatua, mairuen erara landua. Kapela, zeta beltzekoa, eta haren gainean entseina eder bat, non ikurburutzat Amodio bat ageri baitzen, halabeharrez estalia, eta harri biziz jori-jori guzia. Ezpata eta puñala ere kapela hori bezain eder eta ongi eginak ziren, eta harenak bezain onak zituzten ikurburuak. Labur erranik, zalduna biziki haxean zen, eta trebeago oraino zaldi gainean, eta hain ongi eramaten zekien, non ikusi zekusaten guziek ihiziaren denbora-pasa alde bat utzi eta Elisorrek zaldiari eginarazten zizkion laster eta jauziei beha gelditzen baitziren. Erregina sareak zeuden lekuraino jinarazi zuelarik, erran dizuedan bezala laster eta jauzi handi haiek arteko, zaldi gisako hartarik jausten hasi eta Erreginaren baitarat hurrandu zen, eta bere behorño baretik jausten lagundu zuen. Hark bere besoak hedatu zizkiolarik, zaldunak mantoa zabaldu zuen bular aldean, eta, Erregina beso artean hartuz eta bular oskoltzat zuen miraila erakusten ziola, erran zion:

—Ene anderea, otoi, beha ezazu hemen.

Eta, arraposturik iguriki gabe, hartu eta lurrean ezarri zuen emeki. Ihizia finiturik, Erregina gaztelurat itzuli zen, Elisorrekin mintzatu gabe, baina afalondoan deitu egin zuen, eta erran zion sekulan ikusi zuen gezurtirik handiena zela, prometatua baitzion ihizian erakutsiko ziola gehien maite zuen hura, eta ez zuela egin, eta, horregatik, ez zuela estimatuko eta deliberatua zela kasurik ez ematera gehiago. Elisorrek, goizean erran ziona Erreginak konprenitu ez ote zuen beldur, ihardetsi zion ez zuela huts egin beraren manua, ez baitzion soilik erakutsi emaztekoa, munduan gehien maite zuen gauza baizik. Erreginak, ez jakinarena eginez, erran zion bere irudiko ez ziola bere dametarik ezein ere erakutsi.

—Egia diozu, ene anderea —erran zuen Elisorrek—; baina, nor erakutsi dizut, bada, zalditik jausten laguntzen ari nintzaizula?

—Nehor ez —erran zuen Erreginak—, ezpada bular aitzinean heukan mirail bat.

—Eta zer ikusi duzu, bada, mirail horretan, anderea? —erran zuen Elisorrek.

—Ene burua baizik ez! —ihardetsi zuen Erreginak.

Elisorrek erran zion:

—Beraz, ene anderea, zure manuari atxikiz, bete dut prometatu nizuna, ene bihotzean ez baita nehoiz bertze irudirik izanen bularrean ikusi duzun hura baizik, eta hura da maitatu, jauretsi eta gurtu nahi dudan bakarra, ez emazte gisa, ene Jainkoa lurrean bezala baizik, eta haren eskuetan ezartzen ditut ene bizi-heriotzak, eta otoizten dizut ezen atxikimendu handi eta betegin hori, zeina ene bizia izan baita gorderik atxiki dudan bizkitartean, ez dakidan heriogarri bilaka orain agerian gelditzeagatik. Eta ez banauzu gai zuk behatua izateko, ez eta zure amorantetzat onartua izateko ere, onets ezazu bederen bizi ohi naizen moldean bizi nadin, ene bihotzak bere amodioaren ardaztat hain objektu perfektu eta duina hautatu duelako kontentamenduan, zeinaz ezin baitut bertze atseginik ukan ezpada jakitea ene amodioa hain dela handia eta betegina, eta aski dut maitatze hutsez, ezinezkoa baita maitatua izan nadin nehoiz. Eta orain, ene amodio handi horren berri dakizularik, ez baduzu ene fabore orain arte baino gehiago egin nahi, ez iezadazu bizia ken bederen, zu ohi bezala ikustea bertze onik ez baitu enetako. Zeren orain ez dut zuregandik ene premiarik handienak eskatzen duena baino deus gehiago, eta gutiago banu, zerbitzari gutiago ukanen zenuke zuk, nehoiz ukan duzun edo ukaiten ahal duzun onena eta atxikiena galduko baitzenuke.

Erreginak, zen bezalakoa ez agertzeagatik, edo luzara atxikitzeagatik gizonak zion amodio hura, edo harengatik utzi nahi ez zuen bertze bat maite zuelako, edo baita, gerorako gordez, maite zuen bertzeak hutsen bat egin eta haren lekua honi eman ahal ukaiteko, begitarte ez haserre ez lorios batez erran zuen:

—Elisor, ez diat deus erranen, Amodioren ahaleen berri ez baneki bezala, ni maitatzeko delibero goi eta zail hori hartzerat eramaneu erokeriaz, ongi baitakit gizon-emazteon bihotza ez zaiola haren manuei atxikitzen nahi duena maitatu edo hastiatzeko bezainbat; baina, hire delibero hori hain ongi gorderik ukan duanez, jakin nahi nirek noizdanik huen hartua.

Elisor, ikusiz haren begitartea hain eder eta bere eriaz galde egiten ziola, beha gelditu zen ea erremediorik eman nahi ukanen ote zion. Baina, bertzalde, galdez ari zitzaion haren egonmolde serio eta zuhur hura ikusiz, beldurrak hartu zuen, pentsatuz juzgua bere kontra ematen ahal zuen juje baten aitzinean ote zegoen. Alabaina, zin egin zion amodio hura gazte-gaztedanik zuela bihotzean errotua, baina ez zuela neholako penarik sentitu zazpi urtetik hona baizik; eta, egia erran, ez zela pena, ezpada eri bat, halako bozkarioa sortzen ziona, non heriotza baitzuen sendagarri.

—Hain aspaldidanikoa duanez fermutasun hori —erran zuen erreginak—, ez niake hire atxikimendu hori deklaratu didaan baino arinkiago sinetsi beharko. Horregatik, erraten duana egia bada, egia hori frogatzeko proba bat egin nahi nirek, sekulan ez dezadan ukan gero neholako dudarik,

eta, hire dolu horren proba egin ondotik, segurtzat emanen diat haizela eneganako hihaurek zin egiten duan hori, eta, jakinik nik erraten duan hori haizela, desira duan hori naizela edirenen duk hik.

Elisorrek arren galdatu zion egin ziezaion plazer zukeen proba, ez baitzen deus berarendako hain zail, zion amodioa deklaratzeko ohorea ukaiteagatik biziki erraz bihurtuko ez zitzaiona, eta berriz otoiztu zion manatzeko plazer zukeena berak egin zezan. Erreginak erran zion:

—Elisor, erraten duan bezala maite baldin banauk, segur nauk hiretako ez dela deus zailegi izanen, ene grazia ukaitekotz. Horregatik manatzen diat, erdiesteko duan desira eta galtzeko duan beldur ororen ganean, ezen, bihar goizetik, eta ni berriz ikusi gabe, parti hadin gorte honetarik eta joan hadin zazpi urtez ene berririk batere jakinen ez duan (ez eta nihaurek ere hirerik) lekuren baterat. Amodio honengatik zazpi urtez dolutan egon haizen horrek ongi dakik maite nauala, baina, nihaurek ere, iduriko esperientzia zazpi urtez bizi ondoan, jakin eta sinetsi ahal ukanen diat hire hitz soilek orain sinetsi eta konpreniarazten ahal ez didatena.

Elisorrek, halako manu krudela entzunik, alde batetik duda egin zuen ez ote zuen erreginak bere ondotik urrunarazi nahi, baina, bertzetik, probak beraren fabore beraren hitzak baino gehiago eginen zuelakoan, manua onetsi eta erran zion:

—Zazpi urtez neholako esperantzarik gabe bizi izan baldin banaiz, su hau gordean eramanez, orain, zuk horren berri dakizula, pazientzia eta esperantza hobean emanen ditut zazpi urte hauek bertze haiek baino. Baina, andere hori, zure manuari atxikiz gero, zeinaren bidez kentzen baitzait mundu honetan daukadan ontasun oro, zein esperantza ematen didazu zazpi urte horien buruan amorante fidel eta leialtzat hartuko nauzunik?

Erreginak, erian zuen eraztun bat ateraz, erran zion:

—Hona eraztun bat, har ezak. Bi zati eginen diagu; nik bata gordeko diat eta hik bertzea, eta, hala, denbora luzeak hire bisaiazen memoria galarazteko ahala baldin badu, ezagutu ahal ukanen haut ene erdiaren idurikoa den bertze horri esker.

Elisorrek eraztuna hartu eta bitan hautsi zuen, erreginari bat eman eta bertzea atxiki zuen, eta, haren baimenaz, arima eman dutenak baino hilago, bere egongiarantz joan zen partitzea arranjatzeko, eta halako maneran egin zuen, non bere puska guziak etxerat igorri baitzituen, eta bakar-bakarrik partitu zen, sehi batekin, leku bakarti baterat, non zazpi urte haietan ezein ahaide eta adiskidek ez baitzuen ukanen beraren berri jakiteko biderik. Ezin da deus jakin denbora hartan eraman zuen bizimoldeaz, ez eta absentsia hargatik pairatu zuen atsekabeaz, baina maite duen orok ongi daki zer den hori. Zazpi urteen buruan, erregina mezarat zihoan batean, hain xuxen, jin zen bizar handi bat zuen ermitau bat, eta, erreginari eskuan pot emanez, galde bat luzatu zion, baina hark ez zuen berehala behatu, nahiz eta bazuen presentatzen zizkioten galde guziak eskuz hartzeko ohidura, pobreetan pobreenak izanagatik. Eta mezaren erdian zela zabaldu zuen galde hura, non kausitu baitzuen Elisorri eman zion eraztunaren erdia, eta harriturik bezain lorios gelditu zen. Eta, barnean zegoena irakurri aitzin, manatu zion berehala bere omoniterrari etorraz zezan galdea ekarria zion ermitau handi hura. Omoniterrak ibili zen han eta hemen bila, baina ez zuen haren arrastorik kausitu, ezpada baten batek erran ziola zaldiz partitzen ikusia zuela, baina ez zekiela zein bide hartu zuen. Omoniterrak zer erranen zuen beha, irakurri zuen erreginak galdea, eta ezin hobeki eskribitu gutun bat zela kausitu zuen. Eta ez balitz zuek konpreni dezazuen dudan desiragatik, ez nintzatekeen sekulan ausartu itzultzeraz, eta arren eskatzen dizuet, ene andereok, pentsa dezazuen Gaztelako hizkuntzaren graziak ez duela parekorik halako pasio bat deklaratzeko. Baina hau duzue haren mamia:

Denborak indarrez dit eni irakatsi,
amodioa zer den ongi dut ikasi.

Denbora eman izan zait eni gerora,
eta horren handia ezarri dit proba,
non sinesgaitzak sasoiz baitu begiesten
amodioa gai ez dena erakusten.

Denborak, zeinak jabe baitzuen bihurtu
amodioa ene gogoan, du urtu
den-dena hondarrean, ez baita ikusiz
hura ezagutzerik, ai nola sinetsiz.

Denborak erakutsi dit zeren gainean
nahi zuen maita ene bihotzak funtsean.

Funts hori, finean, zen oi zure ederra,
baina haren azpian, han zure krudela.

Denboraz etorri zait edertasuna ez,
krudeltasuna baizik ene on beharrez,
haren ederrak nau ni ontsa harrapatu,
hainbertze ditut begi haiek lasterkatu.

Zure edertasuna noiz-eta gainditu,
zorroztasun zurea orduan sentitu.

Hala ere obedient izan nauzu, hara!
eta pozik naiz guziz, txit lorios, hala:
ikusirik denbora, amore iturri,
urrikaldu zaidala luzeegiaz niri
eta eman didala guziz tornu hauta,
ezin baitezaket nik hura berriz dasta,
hemen naukazu, bada, errateko soilik
ez egun on, ez otoj, agur soila baizik.

Denborak irakatsi dit amodioa
bere hustasunean dugula txiroa,
eta denbora berez zait eni damutu,
desiratu nuena orain zait dolutu;
eroturik nenbilen, amodioz itsu,
baina damua baizik ez dut orain, aizu!

Amore ez den horri diot muzin egin,
egiazkoaz berri denboraz dut jakin,
bakarrik ezagutu dut leku hontan nik,
non zazpi urtez kexaz, bainago isilik.

Denboraz ezagutu amore gorena
eta haren ondoan deus ere ez dena,
guziz errendaturik nago harendako
eta bertzea, aldiz, ez dut niretako.

Hari emanen diot bihotz ta gorputza,
ez zuri, alafede, hari nik zerbitza.

Zure zerbitzari hau duzu mespretxatu,
eta nik, irain handiz, ezdeusa maitatu.

Zu zerbitzatuz, bada, eman didazu fin,
Hark, ordea, bizitza, nahiz itzuri egin.

Orain amore honek, ongiaz beterik,
bertzea mendean du, horra bentzuturik,
haize bilakatu da, hutsa baitzen dena!,
enetako gozoa bezain faltsu zena.

Hor uzten dizut dena, hartzazu osorik,
ez dut zure beharrik, ez eta harenik,
bertze amodioa, betea da eta,
hari lotu natzaio, betiko hor nauka.

Haren baitara noa, Haren zerbitzuko,
ez dut gehiago zure jainkorik beharko.

Adio krudeltasun, agur penak oro,
destaina, torment, herra, den-denak adio;
agur zure su hori, beterik zaudena,
eta zure gorputza, ederrena dena.

Ezin hobeki erran, adio makurrak,
lan gogor, atsekabe, guzizko malurrak,
sugar amodiozko horren infernua;
hitz bakar batez diot: andere, banoa,
ez dut igurikitzen, non-nahi zaudela,
ez nik zu ikustea, ez zuk ni nauzula.

Gutuna negar eta estonamendu handiz irakurria izan zen, dolu sineskaitzez lagundua, zeren erreginak hain amodio perfektuz bete amorante hura galdu ukana edozein tresor handi galdu ukanaren parekoa baitzen, erresumak berak ere ezin zion kendu munduko emazterik pobre eta miserableena izatearen titulua, munduko ontasunek oro ez baitzioten bihurtzen ahal galdua zuena. Eta meza bururaino entzun eta ganberarat itzuli zelarik, egin zuen erreginak bere krudeltasunak merezi zuen bezalako dolua, eta inguruko mendi, harkaitz eta oihan orotara igorri zuen jendea ermitau haren xerka; baina eskuetarik kendua zion Hark berak begiratu zuen zalduna berriz kausitzetik, eta haren neholako berririk jakin aitzin igorri zuen gizona paradisurat.

«Etsenplu honen bidez bistan da, ene andereok, ez duela amorante batek aitortu behar kaltetan jinen zaion eta batere lagunduko ez duen deus. Eta are gutiago galdatu behar zenukete, sinesgaiztasunez, halako proba zailik, ezen, proba erdietsirik, amorantea galtzea ekarriko duenik».

«Egiazki, Dagoucin —erran zuen Geburonek—, betidanik entzuna nuen ezen kasu hori agitu zitzaion dama munduko damarik bertutetsuena zela, baina orain erranen nuke nehoiz izan den damarik eroena dela».

«Alabaina —erran zuen Parlamentek—, ene iduriko ez zion neholako hobenik egin zazpi urtez proban jarritz, zaldunak erraten zuen bezainbat maite baldin bazuen, zeren gizonek halakoetan hainbertze gezur erraten dute, non, haietaz fidatu baino lehen, fidatzerik baldin badago, ez baitago proba luzeegirik eginarazterik».

«Emazteak —erran zuen Hircanek—, anitzez zuhurragoak dira behialakoak baino, eta zazpi eguneko proba batez segurago egoten ahal dira amorante batez lehengoak zazpi urteko batez zeudekeena baino».

«Baina badira hemen, gure artean —erran zuen Longarinek—, zazpi urtez baino luzazago maitatu dituzten emaztekiak, eta, orotariko eginahalak eginik ere, ez dute gizonek haien amodioa erdiesten jakin».

«Jainkoagatik —erran zuen Simontaultek—, egia diozu, baina egia da orobat bertze sasoi batekoak direla horiek, ez genituzke egungotzat hartuko».

«Alabaina —erran zuen Oisillek—, zaldun hura ongi zorretan zen damarekin, hari esker itzuli baitzion bere bihotza guziz Jainkoari».

«Zorte handia ukan zuen —erran zuen Saffredentek—, Jainkoa kausitu baitzuen bidean, zeren, ikusirik zein atsekabe handian zegoen, ez zatekeen harritzekoa izanen deabruaren baitara biltzea».

Ennasuitek erran zion:

«Orduan, zu ere halako nagusi baten baitara bildu zara, zure damak gaizki erabili zaituenean?».

«Bai frankotan —erran zuen Saffredentek—; baina deabruak, ikusiz infernuko tormentuek oro ez zidaketela makur handiagorik eginen damak egiten zidana baino, ez ninduen sekulan hartu nahi ukan, ongi baitaki ezen ez dela deabru jasanezinagorik ongi maite duzun baina maite nahi ez zaituen dama bat baino».

«Zu bezalakoa banintz —erran zion Parlamentek Saffredenti—, hain fermu iritzietan, ez nuke emazterik maitatuko».

«Halakoa da ene atxikimendua beti —erran zuen Saffredentek—, eta hain handia ene nahasmendua, ezen manatu ezin dudan lekuan guziz uros bainaiz zerbitzatzearekin, emazteen maleziak ezin baitu garaitu nik haiei diedan amodioa. Baina, otoi, erradazu kontzientzian, laudatzeko modukoa iduri zaizu hain larderia handiko dama?».

«Bai —erran zuen Oisillek—, ene iduriko, hark ez baitzuen ez maitatua izan nahi ez eta nehor maitatu».

«Hala baldin bazen haren nahia —erran zuen Simontaultek—, zergatik eman zion esperantza poxi bat zazpi urteen ondorerako?».

«Akort naiz zurekin —erran zuen Longarinek—; izan ere, maitatu nahi ez duten emazteek ez diote biderik ematen batere zaien amodioari».

«Agian bertzeren bat maite zuen —erran zuen Nomerfidek—, gizon onest haren parekoa ez zena, eta txarrago batengatik onena utzi zuen».

«Alafede —erran zuen Saffredentek—, ene iduriko, damak erresalbutzat zuen zalduna, tenore hartan gehien maite zuen hura utzi behar ukanen zuenerako».

«Ikusten ari naiz —erran zuen Oisillek— ezen, zenbatez barneratzenago garen gai honetan, hainbatez txarrago eta ahal guzian, gainera, mintzatuko direla gutaz gaizki tratatuak izan nahi ez dutenak, eta horregatik, Dagoucin, arren galdatzen dizut eman diezaiozun hitza emazteren bati».

«Longarineri emanen diot —erran zuen—, segur bainaiz batere malenkoniatsua ez den istorioren bat kontatuko digula, eta, egia errateagatik, ez duela ez gizonik ez emazterik gupidetsiko».

«Horren egiatitzat nauzunez —erran zuen Longarinek—, ausartuko natzaizue printze net handi bati gertaturiko kasua kontatzera, zeinak bertutean gibeletik baitzituen bere sasoiko guziak. Erranen didazue gezurra eta disimulua direla gutien erabili behar genituzkeenak premia larririk ezean, bizio itsusi eta ahalkegarriak izanki, printze eta jaun handien baitan bereziki, haien aho-bisaietan hobeki ematen baitu egiak bertze nehorenean baino. Baina ez da printze hain handirik mundu honetan, desiratzen ahal diren ohore eta ontasun oro edukirik ere, ez dagoena Amodioren inperio eta tiraniaren mende, eta iduri du ezen zenbatez nobleago eta bihotz handiagoko izan printzea, hainbatez indar handiagoz entseatzen dela Amodio bere manupean atxikitza. Izan ere, jainko lorios horrek ez ditu gauza arruntak prezatzen, ezpada bere maiestateak plazer hartzen du egunero mirakuluak egiteaz, hala nola sendoak ahuldu, ahulak sendotu, adimendua eman ezjakinei, zentzua kendu jakintsuenei, pasioen fabore jokatu, arrazoinamendua suntsitu; halako kanbiamenduak egiteaz hartzen du plazer amodiozko jainko horrek. Eta ez daudenez printzeak ere amodioaz salbuetsirik, ez daude librerik haren premietarik ere; beraz, ez dira libro Amodio zerbitzatu nahiak ezartzen dizkien premietarik, eta zilegi dute, bada, ezinbertzez, gezurra, hipokrisia eta itxurapena baliatzea, zeinak, Jehan de Mehun maisuaren dotrinaren arabera³⁸, etsaiak garaitzeko bideak baitira. Beraz, eta halakoetan printze baten baitan laudagarria denez bertze nornahirenean gaitzestekoa litzatekeena, kontatuko dizuet zein arte asmatu zituen printze batek jende guzia tronpatu ohi dutenak tronpatzeko».

³⁸ Jean de Meung (1240-1304), poeta frantziarra, zeinak amaiera eman baitzion Guillaume de Lorris-ek hasitako *Roman de la Rose* poema alegorikoari. (I. O.)

HOGITA BORZGARREN ISTORIOA

Printze gazte bat abokatuaren baitarat bisitan joaten ohi zen, eta, zituen aferei buruz harekin mintzatzeko estakuruz, hain lañoki solastatzen zen beraren emaztearekin, non galdatu zion guzia eskuratu baitzuen harengandik.

Bazen Parisko hirian abokatu bat, halako guzien artean estimatuena zena³⁹, eta, jende orok harenganat jotzen zuenez zeukan antze handiagatik, bere kideen arteko aberatsena bilakatua zen. Baina lehen emaztearengandik haurrik batere ukan ez zuenez, iguriki zuen bigarren batengandik ukanen zituela, eta, gorputzez markets bazebilen ere, bihotza eta esperantza bizirik zituen, eta, horregatik, hiriko neskari ederretenarik bat hautatu zuen, hemezortzi edo hemeretzi urtekoa, biziki ederra begitarte eta larru kolorez, eta areago oraino kaizuz eta karantzaz, zeina ahalik eta ongiena maitatu eta tratatu baitzuen; baina harengandik ere ez zuenez lehenarengandik baino haur gehiago erdietsi, neska nardatu egin zen hondarrerako. Baina gaztetasunak, ez baitu enoadurarik jasaten, etxetik kanpora joarazi zuen libertimendu bila; eta dantza eta oturuntzetarat joaten hasi zen, hain oneski betiere, ezen senarrak ezin baitzuen iritzi txarrik eduki, haren konfiantzakoak ziren emaztez lagundua joaten baitzen beti.

Eztei batean zen egun batez, printze handi-mandi bat kausitu zuen, zeinak, istorio hau kontatu zidalarik, bere izena aipatzea debekatu baitzidan. Erraten ahal dizuet, hori bai, erresuma honetan orain arte izan direnatarik ederrena eta dohain handienekoa zela, eta, erranen nuke, gerorat ere hala izanen dela⁴⁰. Printze hura, dama gazte eta eder hura ikusiz, zeinaren begiek eta egonmoldeek maita zezan gonbita egiten baitzioten, hasi zitzaion eleketan halako mintzaira eta graziaz, non neskak bera hasi balitz bezalako gogo onez hartu baitzuen mintzaldia. Eta ez zion neholako ere gorde ezen luzaz zeukala bere bihotzean orain printzeak galdatzen zion amodio hura, eta ez zuela bera gogatzeko batere nekerik hartu beharko, zertarako-eta, Amodiok ikuste hutsez onetsarazia zion zerbait egiteko. Erdietsirik, bada, amodioaren lañotasunaz denboraren ahalaz merezi behar zuena, Jainkoari eskerrak ematen zizkion printze gazte hark. Eta, handik harat, halako gogoz entseatu zen afera haren gibeletik, ezen akort jarri baitziren biak elkar ikusteko bertze nehork ikusiko ez zituen maneran. Leku-tenoreak adosturik, printze gazteak ez zuen huts egin, eta, damaren ohorea begiratzeko, desgisaturik agertu zen. Baina, gauez hirian ibili ohi ziren gaiztaginen kariaz, ez baitzuen nehork ezagutzea nahi, lagun hartu zituen konfiantzakoak zituen zenbait zaldun. Eta dama zegoen kaleko kantoian zela utzi zituen, erranez:

—Oren laurdenaren buruan ez baduzue neholako azantzik aditu, segi etxerat; eta hiru edo lau orene inguruan, jin berriz ene xerka.

Eta hala egin zuten: neholako azantzik ez zenez, erretiratu egin ziren. Printze gaztea xuxen-xuxen joan zen bere abokatuaren etxerat, eta borta zabalik kausitu zuen, prometatu zioten bezala. Baina, eskailera maila igan zuenean, han zen senarra eskuetan kandela bat zuela, eta hark lehenago

³⁹ *Heptameron*aren eskuizkriburik zaharrenetan, “halako bederatzi baino estimatuagoa” dio pasarte honetan. Hor hitz joko bat egin duke egileak abokatuaren izenarekin (hortik jakin ahal izan da nor zen), zeina “Disome” baitzen (eta, “dix hommes” gisa irakurritz gero, 'hamar gizon' esan nahi du noski). (I. O.)

⁴⁰ Laudorio horrek, eta aurreraxeago arrebak zion atxikimendu handia aipatzen denez, pentsarazten du, inondik ere, printzea Frantzisko I.a dela (Errege izan aurretik, segur aski); Margaritaren anaia, hain zuzen. (I. O.)

ikusitu zuen, gainera, printzea beraz ohartu baino. Baina Amodiok, entelegua eta ausartzia ematen baititu premiekin betan, printzea harenganat bideratu zuen xuxen, eta erran zion:

—Abokatu jauna, ongi dakizu nolako konfiantza dugun zure baitan nihaurek eta etxeko guziek, eta ene zerbitzari leialen eta onenentzat zaitudala. Horregatik etorri nahi ukan dut zure baitara sekretuki, bai ene aferak zure esku uzteko, eta bai edateko zerbaiten galdean, egarri handi batek harturik bainauzu; eta, otoi, ez nehoi erran hona jin naizenik, zeren hemendik bertze leku baterat joan behar baitut, eta ez nuke nahi nehork jakiterik.

Abokatu on hura hain kontent izan zen printzea horrela beraren etxera etorri izanaz, ezen bere ganberarat eramane baitzuen, eta erran zion emazteari prestatzeko askari ttipi bat eskumenean zeuzkakeen fruitu eta konfiturarik onenekin; hala egin zuen damak, biziki gogo onez, eta ahal ukan zuen askaririk hautena ekarri zuen. Eta, nahiz eta emaztea jauntzirik egon ohi baino ederrago egiten zuten buru oihal eta manto batez, printze gazteak ez zion behatzen, ez eta ezagutzen zuelako itxurarik egiten ere, eta senarrari mintzatzen zitzaion denbora guzian bere aferez, aspaldidanik maneatzen zituen bati nola. Eta damak, konfiturak eskuetan zituela belauniko printzearen aitzinean, eta senarra mankara joana zela printzearendako edariren baten bila, erran zion ezen, ganberatik jalgitzean, sar zedila eskuinerat kausituko zuen kabinete batean, berehala joanen zitzaiola ikustera. Edan eta berehala, printzeak eskerrak eman zizkion abokatuari, zeinak zernahi kosta ere kanporat lagundu nahi baitzuen, baina printzeak segurtatu zion ezen, zihoan lekura joateko, ez zuela neholako laguntzarik behar. Eta emaztearenganat itzuliz, erran zion:

—Bertzalde, ez nizuke nekerik sortu nahi zure senar on hau kenduz, zeina aspaldidanik baitut zerbitzari. Hain zara dohatsua berarekin, ezen ongi eginen zenuke Jainkoa laudatzen eta senarra obeditzen eta ongi zerbitzatzen; zeren, bertzela eginez gero, biziki dohakabea baitzinateke.

Halako ele onestak erranik joan zen printze gaztea, eta, borta bere gibeletik hetsiz, nehork ez ziezaion jarrai eskailerarat, sartu zen kabinete barnean, eta, senarra loak hartu bezain fite, han agertu zen dama eder hura, eta biziki haxean ezarri logela baterat eramane zuen, nahiz eta orduan han zeuden iduririk ederrenak emaztea eta gizona berak izan, zeinahi ere ziren jauntzi nahi zituzketen beztimendak. Eta, dudarik ez dut, emazteak prometatua zion guzia eman zion han.

Bere zaldunei erran tenorean erretiratu zen handik printzea, eta beha egoteko erran zien lekuan kausitu zituen. Eta bizimolde horrek luzaz iraun zuenez, ediren zuen printzeak bide laburrago bat harat joateko, fraide monasterio batean barna pasatzen zena. Hain ongi landu zuen afera hango priorearekin, ezen gauerd inguruan irekitzen baitzion beti borta bortazainak, eta berdin egiten zuen printzea itzultzen zelarik. Eta zihoan etxea handik hurbil zenez, ez zuen nehor eramane berekin. Nahiz eta erraten ari natzaizuen bizimoldea eramane, printzeak Jainkoa maite zuen eta Haren beldur zen. Eta, nahiz eta joanean batere gelditu ez, itzuleran hutsik gabe egoten zen, denbora luzez, otoitz egiten elizan, eta, hala, hainbertzetan ikusten zuten fraideek han belauniko, matutietara zihoazela edo haietarik itzultzean, ezen munduko gizonik sainduena zela iduri baitzitzaien.

Printze hark arreba bat zuen, monasterio hartara hagitx maiz joaten zena; eta anaia munduan bertze nehor baino gehiago maite zuenez, ezagutzen zituen jende on guziei galdatzen zien beren otoitzetan gogoan har zezaten⁴¹. Eta egun batez, monasterioko prioreari anaiarekiko halako atxikimendua ukan zezan eskatzen ari zitzaiola, hark erran zion:

—Ondikoz, anderea! Nor ari zatzaizkit gomendatzen? Ez nuke nihaurek munduko bertze nehoren otoitzetan gogoan hartua izan nahi gizon horrenetan bezainbat; zeren, gizon hori ez bada

⁴¹ Arreba hori dateke, gorago esan bezala, Margarita bera, Alençoneko dukesa zen garaian. (I. O.)

saindua eta xuxena ("Zorionekoa da gaizki jokatu ahal izan eta egin ez duena" dioen pasarte haren aipu egin zuen prioreak⁴²), ez dut igurikitzen nihurtasun halakotzat hartuko nautenik.

Arrebak, jakin nahirik zer zekien aita on hark anaiaren oneziaz, hain hertsiki galdekatu zuen, ezen hark, kofesioaren sekretupean, zekiena erran baitzion:

—Ez al da miresgarria printze gazte eta galant bat ikustea plazerak eta pausaldia utzi eta gure matutiak entzuterat biziki maiz jiten dela, ez printze gisa, munduko ohorearen bila, ezpada fraide xume bat bezala, bakar-bakarrik, eta gure kapera hauetarik batean gordetzen dela? Egia erran, hainbertze harritzen gaitu hain onezia handiak, non haren ondoan ez baitugu merezi fraide izena ere.

Arrebak, halako eleak entzunik, ez zekien zer pentsatu; zeren, anaia arrunt munduko gizona bazen ere, ongi zekien biziki kontzientzia onekoa zela, eta handia zela Jainkoaren baitan zuen fedea eta amodioa, baina sekulan ez zuen pentsatuko superstizio edo zeremonia xerka ibiliko zenik, ez bederen giristino on batek egin behar dituenetarik kanpo. Horregatik, harenganat joan eta kontatu zion zein iritzi ona zuten fraideek berari buruz, eta hark ezin ukan zion irriari eutsi, halako begitartez, ezen arrebak, zeinak bere burua bezain ongi ezagutzen baitzuen anaia, hauteman baitzuen bertze zerbait zegoela debozio haren giblean; eta ez zuen etsi harik eta anaiak egia erran zion arte.

«Eta emazte hark eskribiarazi dit hau hemen⁴³, jakin dezazuen, ene andereok, ez dela abokatu hain maleziatsurik ez eta fraide hain maltzurrik ere (zeinak ohituak baitira bertze jendeak tronpatzen), zeinak Amodiok ez baititu, hala behar ukanez gero, enganatzen eta tronparazten, eta noren eskutik, bada ongi maitatzen bertzerik ez dakiten haienetik, hain xuxen ere. Eta ongi dakienez Amodiok tronpatzaileak tronpatzen, haren beldur izan behar dugu guziz jende xume eta ezjakinok».

«Printzea nor den segur ez badakit ere —erran zuen Geburonek—, erran beharra daukat egiten zuen hori laudatzekoa dela; izan ere, jaun handi guti ikusten dut nik hala axolaturik damen ohoreagatik, edo eskandalu publikoagatik, plazer xerka baizik ez baitira ibili ohi; eta ardura kontent dira jendeek funski dagoena baino zerbait makurragoa dagoela pentsatzen badute».

«Egiazki —erran zuen Oisillek—, nahi nuke jaun gazte orok printze haren baitan hartzea etsenplu, eskandalua usu bekaturia baino txarragoa baita».

«Pentsa ezazue —erran zuen Nomerfidek— ezen pasatzen zen monasterioan egiten zituen otoitzak ongi funtsatuak zirela!».

«Ez zenuke jujatu behar —erran zuen Parlamentek—, zeren, agian, hain zegoen doluturik itzuleran, non barkaturia baitzitzaion bekaturia».

«Gaitz duzu halako gauza plazentaz dolutzea —erran zuen Hircanek—. Nitaz denaz bezainbatean, frankotan kofesatu izan naiz, baina dolutu, nekez».

«Hobe litzateke batere ez kofesatzea egiazko damurik ez baldin badago —erran zuen Oisillek».

«Bai, anderea—erran zuen Hircanek—, bekaturia ez dut batere laketa, eta samurtzen nau Jainkoa ofentsatzeak, baina bekaturiak plazer ematen dit beti».

«Zuk eta zu bezalakoek —erran zuen Parlamentek— gogoko zenukete Jainkorik eta legerik ez egotea, eta zuen desiren arabera izatea lege bakarra?».

«Aitortzen dizut —erran zuen Hircanek— ezen gogoko nukeela Jainkoak ere plazer handia har lezan ene plazerekin, nik hartzen dudana bezala, zeren loriatzeko parada emanen bainioke ardura».

⁴² Bibliako Ben Sirak 31, 8-10. (I. O.)

⁴³ Behartu egiten da hemen, bihurtu nolabait, liburuan arau den ahozketasuna. (I. O.)

«Ez baldin baduzu Jainko berri bat sortzen —erran zuen Geburonek—, dugun hura obeditu beharko dugu. Utz ditzagun disputa hauek teologoendako, eta ea nori ematen dion hitza Longarinek».

«Saffredenti emanen diot —erran zuen Longarinek—. Baina galdatzen diot ahalik eta istoriorik ederrena konta diezagun, eta ez dadin hainbertze entsea emazteei buruz gauza txarrak erratera, ezpada, onik dagokeen lekuan, egia agerraraztera»

«Egiazki —erran zuen Saffredentek—, akort naiz, esku artean baitaukat emazte ero baten eta zuhur baten historia; zuek erabaki gero bietarik zeinen etsenplua duzuen gogokoen. Eta ikusiko duzue ezen amodioak gaiztoei gaiztakeriak eginarazten dizkien bezala, bihotz onest bati laudorioa merezi duten gauzak eginarazten dizkiola; zeren, amodioa, berez, on baita, baina sujetaren maleziak harrarazten dizkio usu ero, arin, krudel edo bilau bezalako izengoiti berriak. Baina orain kontatzera noakizuen istorioan, ikusi ahal ukanen duzue ezen amodioak ez duela deusetan kanbiatzen bihotza, ezpada den bezalakoa erakusten duela: ero, eroen baitan, eta zuhur, zuhurrenean».

HOGEITA SEIGARREN ISTORIAO

Dama zuhur baten aholkuari eta haurridetasunezko atxikimenduari esker utzi zion Avannes-eko jaunak Iruñean bizi zen emazte eder batekin zuen amodio afera eroari⁴⁴.

Bazen, errege Luis XII.aren sasoian, jaun gazte bat, Avanneseko jaun erraten ziotena, murde Albretekoaren seme eta Nafarroako errege Joanen anaia⁴⁵, zeinarekin bizi baitzen usaian. Bada, jaun gazte hori, hamabortz urte zituela, hain zen eder eta grazia on ororen jabe eta dun, ezen iduri baitzuen ez zela sortua behatua eta maitatua izateko baizik; eta hala zen, izan ere, ikusten zuten guzien aldetik, eta, bertze nehorenetik baino gehiago, Nafarroako Iruñean bizi zen dama batenetik, esposatua bera biziki gizon aberats batekin, eta hain oneski bizi zena harekin, non, hogeita hirur urte baizik ez bazituen ere —eta senarrak berrogeita hamar inguru—, hagitz oneski jaunzten baitzen, eta alarguna baitzirudien ezkondua baino gehiago. Eta ez zuen nehork sekulan ikusiko eztei eta bestetan senarra gabe, zeinaren bertutea hain estimu handian zuen, ezen nahiago baitzuen bertze ororen edertasuna baino. Eta senarra, bai baitzituen emaztearen zuhurtziaren frogak, hain zen hartaz segur, non etxeko afera guziak gomendatzen baitzizkion. Egun batez, gizon aberatsa eta emaztea beren ahaide batzuen ezteietara gonbidatu zituzten. Eta han zen, ezteiliarrak ohoratzeke, Avanneseko jaun gaztea, zeinak dantza laket baitzuen, hainbertze, ezen bere sasoian ez baitzuen hartan parekorik. Eta bazkalondoan, dantzan hasi zirelarik, gizon aberatsak dantza zedin galdatu zion Avanneseko jaun hari. Jaunak galdetu zion ea nor nahi zuen ateratzea. Hark ihardetsi zion:

—Ene jauna, nehor balitz hemen ene emaztea baino ederragorik eta eskurago neukakeenik, presentatuko nizuke, baina otoiztu behar dizut ohore egin diezadazun hura aterarik dantzara.

Hala egin zuen printze gazteak, eta hain zen handia haren gaztetasuna, non plazer handiagoa hartzen baitzuen jauzika eta dantzan emazteen edertasunari beha baino. Baina harekin zenak, kontrarat, Avanneseko jaun haren grazia-ederrei egiten zien so areago ari zen dantzari baino, nahiz eta, zuen zuhurtzia handiagatik, ez zuen batere adierazten. Afaltzeko tenorea heldu zelarik, Avanneseko jauna, bildurik zirenei adio erran, eta gaztelurat erretiratu zen⁴⁶, aberatsak lagundurik bere mando-mularen gainean, eta, bidean zirela, erran zion:

—Ene jauna, halako ohorea egin diguzu egun ene haurrideei eta nihauri, non esker gaiztokoa nintzaizuke ene burua eskainiko ez banizu, daukadan guziarekin, zu zerbitzatzeko. Badakit, jauna, zu bezalako jaun batek, dituzun buraso oies eta abarizios horiekin, sos premia handiagoa ukan ohi duela ardura guk baino, guk, bizimolde umilaz eta ontasunen menaiu onez, diruaren metatzea baizik ez baitugu buruan. Eta kontua da ezen Jainkoak, ene gogoko emazte bat eman badit ere, ez didala eman nahi ukan mundu honetan paradisu nukeena, eta aita bati hurrek ematen dioten loria kendu dit. Badakit, jauna, ez dagokidala zu semetzat adoptatzea, baina, plazer banauzu sehitzat hartu eta ematen badidazu zure afera ttipien berri, ehun mila ezkuturainoko laguntza ematen ahal nizuke premia ukanez gero, izan segur.

⁴⁴ Balzac-en *Le Lys dans la vallée* eleberria istorio honetatik eratorria dateke. (I. O.)

⁴⁵ Egungo Avesnes eta Lesparre-ko jaun hori Gabriel da, Napoliko erregeorde eta Guyenneko seneskal, Alain Albretekoaren semea eta Nafarroako errege Joan (edo Joanes) III.aren anaia. (I. O.)

⁴⁶ Iruñeko gaztelura, inondik ere, non bizi baitzen Gabriel Albretekoa anaia erregearekin. (I. O.)

Avanneseke jauna biziki lorios gelditu zen eskaintza harekin, zeren bertzeak erran bezalako aita baitzen harena, eta, eskertu ondoan, adopziozko aita izendatu zuen.

Handik harat, halako amodioa hartu zion gizon aberats hark Avanneseke jaunari, non gau eta egun galdez baitzuen, ea zerbait behar zuen. Emazteari ere ez zion isildu jaun hari eta haren zerbitzuari zion atxikimendua, eta hark doblezka maite zuen horregatik. Handik aitzina, Avanneseke jaun hark ez zuen desira zuen deus ments ukan. Usu joaten zen gizon aberatsaren baitarat, harekin jan eta edatera, eta, gizona etxean ez bazen, emazteak ekarriko zion galdatzen zuen oro; eta, gainera, hain zuhurki mintzatzen zitzaion, zuhurra eta bertutetsua izan zedin sutsuki aholkatuz, ezen gaztea haren beldurrago baitzen mundu honetako ezein emazteren baino, eta nehor baino maiteago zuen. Emazteak, Jainkoa eta ohorea baitzituen beti presente, aski zuen ikustiaz eta harekin mintzatzeaz, harendako horretan baitzetzan amodio onaren eta onestasunaren gogobetetzea. Eta, hala, ez zion sekulan deus adierazi mutirik pentsa lezan zion atxikimendua haurridetasunezkoa edo giristinoa ez zen bertze zerbait izan zitekeenik. Adiskidetasun gorde hark iraun zuen bitartean, Avanneseke jauna, aipatu laguntzen kariaz, ongi jauntzirik eta arras elegante ibiltzen zen. Bazituen hamazazpi urte ia, eta hasia zen damen xerka aitzinetik ohi zuena baino areago. Eta, dama zuhur hura maite ukanen bazuen ere gogo onez, beldur zen, hark halakorik entzunez gero, zuten adiskidetasuna galtzeko, eta horrek bulkatu zuen isiltzera eta bertzerekin libertitzera. Hala, hantatzen hasi zen Iruñe inguruko emazte gisako bat, hirian etxea zeukana, eta esposatua zena oroz gainetik behorak, zakurrak eta txoriak maite zituen gizon gazte batekin. Eta, haren amodioagatik, hamaika denbora-pasatan parte hartzen hasi zen, hala nola torneo, lasterkaldi, guduka, maskarada, oturuntza eta bertzelako jokoetan, zeinetan guzietan egoten baitzen dama hura; baina hain zelako bere gisakoa senarra, eta ongi zekitenez burasoek alaba biziki ttutta eta ederra zela, estekan tinko zeukan bere ohorearen arduraz, eta Avanneseke jaun hark ezin zuen harengandik erdietsi dantzaren batean eleren bat edo bertze baizik, nahiz eta ongi jakin, ele guti haien despit, beren artekoak ments zuen gauza bakarra tenorea eta lekua zirela. Horregatik, bere aita on aberatsaren baitarat joan zen, eta erran zion gogo handia zuela Montserrateko Gure Amarenerat joateko⁴⁷, eta galdatu zion etxean har zitzaen beraren zerbitzari guziak, bakarrik joan nahi baitzuen. Gizona akort izan zen. Baina emaztea, bihotzean baitzeraman Amodio profeta handia, berehala goganbehartu zen bidaia haren egiaz, eta ezin ukan zion eutsi Avanneseke jaunari hau erran gabe:

—Ene jauna, ene jauna, zuk gurtzen duzun Gure Ama hori ez dago hiri honetako murruekarik kanpo; horregatik, arren galdatzen dizut, egiozu kontu osasunari.

Gaztea, emaztearen beldur zen bezainbat maite baitzuen hura, biziki gorritu zen hitz haiek entzunik, eta, deus erran gabe, egia aitortu zion; eta hala, partitu egin zen.

Eta Espainiako zaldi eder pare bat erosirik, zamaltzain beztu zen, eta hain ongi desgisatu zuen bere bisaia, non nehork ez baitzuen ezagutzen. Zaldunak, emazte buruarin haren senarrak, zaldiak maite zituen gauza oroz gain, eta ikusi zituelarik Avanneseke jaunak zeramatzanak, berehala joan zitzaion erosteko xedez. Erosi ondotik, zamaltzainari behatu eta, ikusiz biziki ongi eramaten zituela, galdatu zion ea bere zerbitzurat nahi zuen sartu. Baietz erran zion Avanneseke jaunak, bera zamaltzain pobre bat baizik ez zela, behorak karatoxatzen ez bertze deusetan ez zekiena; eta hain ongi eginen zuela lan hori, ezen zalduna kontent izanen baitzen berarekin. Zalduna ontsa kontent gelditu zen, eta behor guzien arta utzi zion; eta, etxean sartuz, erran zion emazteari bere esku uzten zituela behorak eta zamaltzaina, gaztelurat zihoala eta. Dama, senarraren gogara egiteko nahiz denbora-pasa hobea ukaiteagatik, behorretara joan zen, eta han ikusi zuen zamaltzain berria, zeina karantza ederrekoa iduri baitzitzaion; hala ere, ez zuen nehola ere ezagutu. Hura, ikusirik damak ez zuela ezagutzen, Espainiako maneran gur egitera joan zitzaion eta pot eman zion eskuan, eta, horretan ari zela, hain hertsiki tinkatu zuen, non emazteak ezagutu egin baitzuen, dantzan anitzetan

⁴⁷ Kataluniako monasterioa, Bartzelonatik hurbil. (I. O.)

egina baitzion halako higialdia; eta handik aitzina, damak ez zion utzi harekin bereiz solastatu ahal ukaiteko lekuak xerkatzeari. Eta arrats hartan berean kausitu zuen bat, zeren, senarrak eraman nahi zuen oturuntza batera gonbidatua izaki, eri zela-eta ezin joan zelako itxura egin zuen. Senarrak, ez baitzien lagunei huts egin nahi, erran zion:

—Maitea, jin nahi ez duzunez, arren galdatzen dizut arta ditzazun ene zakur eta behorrek, ez dezaten ukan deus eskas.

Damak biziki laket ukan zuen mandatua, eta, bertzerik adierazi gabe, erran zion ezen ez zuenez deus hoberik berarendako, erakutsiko ziola den gutienekoan ere zenbatetaraino nahi zion gogara egin. Eta doi zen senarra etxetik kanpo, ezen emaztea barrukirat jaitsi baitzen, eta atzeman zuen bazela han zerbait makurrik; eta, haxean ezartzeko, hainbertze mandatu egin zien sehiei bazterrez bazter, non bakarrik gelditu baitzen zamaltzain nagusiarekin. Baina, bat edo bat agertuko zen beldur, erran zion:

—Hoa gure baratzerat, eta igurika nazak bidexkaren buruan den aterpean.

Hain zalu bete zuen gazteak manaturikoa, non eskerrak emateko astirik ere ez baitzuen hartu. Barrukikoak oro arras haxean ezarririk, zakurrak ikusterat joan zen dama, eta haiekin ere iduriko arta hartu zuen eta ongi tratatu zituen, halako moldez, ezen nagusia baino areago zerbitzaria baitzirudien. Gero, bere ganberarat itzuli zen guziz akiturik eta ohean sartu zen, pausua hartu nahi zuela erranez. Neskato guziek bakarrik utzi zuten, konfiantza handikoa zuen batek izan ezik, zeinari erran baitzion:

—Hoa baratzerat, eta jinaraz ezan honat bidexkaren buruan kausituko dunan hura.

Ganberazaina damak erran lekurat joan zen, han kausitu zuen zamaltzaina, eta berehala ekarri zuen haren baitara; damak, orduan, kanporat igorri zuen ganberazaina, senarraren zelatan egon zedin. Avanneseko jaunak, damarekin bakarrik zela ikusirik, zamaltzain beztimendak erauntzi zituen, gezurrezko sudurra eta bizarra kendu, eta, ez zamaltzain beldurti gisa, ezpada zen bezalako jaun eder baten maneran, damari baimendurik ere eskatu gabe, ohean sartu zen bipilki haren ondora, non hartua izan baitzen sasoi hartako kreaturarik ederrenak herri hartako damarik ederren eta eroenak hartzea merezi zuen moduan. Eta han gelditu zen harik eta jauna itzuli zen arte; hura jin zelarik, maskara berriz jauntzi, eta fineziaz zein maleziaz usurpatua zuen leku hura utzi zuen. Zaldunak, korralean sarturik, berehala ikusi zuen nolako zalutasunez bete zuen andereak manatu ziona, eta biziki esker handia eman zion.

—Maitea —erran zuen damak—, ene eginbidea dena baizik ez dut egiten. Egia da mutil gaizto horiek beilatu ezean, ez zeneukakeela zaragarrik gabeko zakurrik, ez eta behor gizenik ere; baina, ongi ezagun dudanez haien alferkeria eta zer desira duzun zuk, nehoiz baino hobeki zerbitzaturia izanen zara.

Zaldunak, munduko zamaltzainik onena hautatu zuelakoan, galdetu zion ea zer iduri zitzaion:

—Aitortzen dizut, ene jauna —erran zuen emazteak—, ezen hautatzen ahal zenuen bertze edozein zerbitzarik bezain ongi betetzen duela bere lana, baina haren xerka ibili beharra dago beti, nehoiz ikusi dudan sehirik lotiena baituzu.

Horrela bizi izan ziren jaun-andere haiek, ordu arte baino amodio handiagoan. Eta galdu zuen gizonak emazteaz zuen goganbehar eta jelsia oro, zeren lehenago oturuntza, dantza eta bilkurak maite ukan zituen bezala, etxearen menaiuaz zen orain artatsu; eta usu aski zuen atorraren gainetik zamarra bat hutsik jaunzte, lehenago apaintzeko behar ohi zituen lau orenak gabe. Hala, senarrak eta jende orok goستن zuten, ez baitzuten ikusten deabru gaiztoago batek kanporatua zuela ttiptiagoo. Horrela bizi izan zen dama gazte hura, hipokrisiaren eta emazte onaren abitu pean, halako haragikoikerian, non ez arrazoiak, ez kontzientziak, ez ordenak ez eta neurritasunak ere ez baitzuten lekurik ukan gehiago haren baitan. Baina Avanneseko jaunaren gatzetasunak eta gorpuzkera

delikatuak ezin ukan zuen luzaz jasan bizimolde hura, eta hain jarri zen zuhail eta mehar, non maskara gabe ere ez baitzegoen ezagutzeko gisan; baina dama hari zion amodio eroak halako moldez teteletu zion entelegua, ezen uste baitzuen indar aski zuela Herculesek ere huts egingen zukeen hartan aritzeko; eta hala, eritu egin zen hondarrean, eta, damaren aholkuz, ez baitzuen eri sasoa bezainbat maite, baimendua eskatu zion nagusiari burasoen etxerat joateko, eta hark, damu handiz, eman egin zion, promes eginaraziz sendatu orduko itzuliko zela beraren zerbitzurat. Horrela partitu zen Avanneseko jauna, oinez eta pausuan, karrika baten luzea baizik ez baitzuen korritu behar; eta, aita on zuen gizon aberats haren etxerat heldu zelarik, haren emaztea baizik ez zuen han kausitu, zeinari zion amodio bertutetsua ez baitzen batere mendratua egin bidaiaiatik. Baina hura, gaztea hain mehar eta zurpail ikusirik, ezin egon izan zen erran gabe:

—Ene jauna, ez dakit zure kontzientzia nola dagoen, baina zure gorputza ez da batere hobekitu peleginaje horrekin, eta duda naiz gauez egin bideak ez ote dizun makur handiagoa egin egunezkoak baino, zeren, Jerusalemerat oinez joan izan bazina, eguzkiak belzturik itzuliko zinatekeen, ez ordea hain mehar eta ahul. Aski duzu, bada, batekin, ez itzazu gehiago zerbitza halako sainduak, zeren, hilak piztu baino areago hilarazten baitituzte biziak. Eta gehiago erranen nizuke, baina, zure gorputzak bekatu egin baldin badu, halakoa du gaztigua, eta urrikari dut orain gehiago enoatzea.

Ele haiek guziak entzunik, Avanneseko jaunak, ahalke bezain penaturik, erran zion:

—Anderea, behiala entzuna dut dolua bekatuari jarraikitzen zaiola, eta orain ene bizkar dut frogatu; arren galdatzen dizut, bada, barka dezazun ene gartzetasuna, ezin baita hura gartzigatu sinetsi nahi ez duen makurra esperimentatuz baizik.

Damak, hitz bertze eginez, ohatze eder batean etzanarazi zuen, non egon baitzen hamabortz egunez, bizkorgarriz soilik elikatuz. Eta hain konpainia ona eman zioten senarrak zein emazteak, non beti baitzuen bata edo bertzea bere ondoan. Eta entzun dituzuen erokeriak egin bazituen ere, dama zuhur haren nahi eta aholkuen kontrara, hari ez zitzaion, ordea, sekula mendratu gizonari zion amodio bertutetsua, iguriki baitzuen beti ezen, lehen egunak erokeriatan eman ondotik, erretiratu eta kontentatuko zela amodio onestaz, eta, hala, osoki berea ukanen zuela. Eta bertutezko amorezko hainbat ele on egin zion etxean ukan zuen hamabortz egun haietan, ezen gizona egin erokeriaz hastio ukaiten hasi baitzen, eta, damari behatuz, zeina ederragoa baitzen bertze ero hura baino, eta haren grazia eta bertuteen jakileago gerotik gerora, egun aski ilun batez, eta beldurrak oro kasatuz, ezin egon izan zen erran gabe:

—Anderea, ez dut molde hoberik ikusten zuk nahi duzun eta predikatzen didazun bezain bertutetsua izateko, ezen ene bihotza eta izate osoa bertuteari amodio osoz ematea baizik; arren galdatzen dizut, ene anderea, erran diezadazun ea emanen didazun horretarako ahal duzun laguntza eta fabore guzia.

Damak, guziz arrai gizonari halako mintzoa entzunik, erran zion:

—Promes egiten dizut, ene jauna, ezen, bertuteari atxikitzen bazatzaizkio zu bezalako jaun bati dagokion gisan, zerbitzatuko zaitudala Jainkoak ene baitan ezarri dituen ahalak oro erdiets ditzazun.

—Hortaz, anderea —erran zuen Avanneseko jaunak—, oroit zaitez egin promesaz, eta pentsa ezazu ezen Jainkoak, zeina ez baitute gizon-emazteek ezagun fedez baizik, onetsi zuela bekatuaren iduriko haragia hartzea, gure haragia bere humanitatearen amodiorat erakarriz tira zezan orobat gure izpiritua bere dibinitatearen amodiorantz; eta ezin ikusizko bideak baliatzen ditu, fedez maita ditzagun ezin ikusizko gauzak. Ene bizi osoan maitatu nahi nukeen bertute hori ere ezin ikusizkoa da, ezpada kanpotik ikusten ahal diren ondorioen kariaz; horregatik, beharrezkoa da nolazpait gorputzea gizon-emazteek ezagut dezaten, eta hala du egin zureaz beztiturik, ediren ahal ukan duen perfektuena baita. Horregatik, onesten eta aitortzen dut bertutetsua ez ezik, bertutea bera zarela, eta orain, haren distira sekulan izan den gorputzik perfektuarenaren beirapean dakusadalarik, ene

mende osoan zerbitzatu eta ohoratu nahi nuke, hargatik utziz bertze edozein amodio hutsal eta biziozko.

Dama, kontent bezain miretsirik halako hitzak entzunik, sentitzen zuen arraitasuna hagitz ongi disimulatu eta erran zion:

—Ene jauna, ez duzu ene asmoa zure teologiari ihardestea, baina, gaizkiaren beldurrago nauzunez ongiaren sinestun baino, otoiztu nahi nizuke ez gehiago eni erratea halako hitzik, hain guti estimatzen badituzu haiek sinesten dituztenak. Ongi dakit bertze edozein bezalako emazte bat ez ezik, imperfektua naizela, eta bertuteak egitate handiagoa egingen lukeela ni hura bilakatuz ezen ez hark ene iduria hartuz, non eta ez lukeen ezezagun izan nahi mundu honetan, zeren, enea bezalako abitu baten pean, ez bailitzateke ezagutzen ahal egiaz den bezala. Alabaina, jauna, ene imperfekzioa imperfekzio, Jainkoaren eta Haren ohorearen beldur den emazte batek behar eta ahal duen bezalako atxikimendua dizut beti. Baina atxikimendu hori ez zaizu deklaratu harik eta zure bihotza amodio bertutetsuak manatzen duen gisako pazientzia ukaiteko gai izan dadin arte. Orduan, jauna, jakinen dut nola mintzatu, baina ez dezazula pentsa zure ontasuna, zure ohorea eta zuhauren burua nik bezainbat maite dituzunik.

Avanneseke jaunak, lotsati eta negarra begietan, biziki otoiztu zion hitz haien berme pot bat eman ziezaion, baina emazteak errefusatu egin zuen, erranez ez zuela harengatik hautsiko bere herriko ohidura. Horretan zirela, senarra agertu zen, eta Avanneseke jaunak erran zion:

—Ene aita, hain atxikia sentitzen nauzu zuhauri zein zure emazteari, non arren galdatzen baitizut betikoz har nazazun semetzat.

Hala egin zuen gizonak, biziki gogo onez.

—Eta adiskidetasun hori segurtatzeko —erran zuen Avanneseke jaunak—, zuri pot emateko baimena galdatzen dizut.

Eta eman egin zion. Gero, erran zion:

—Ez banintz legea hausteko beldur, bertze horrenbertze egingen nuke zure emazte ene amarekin.

Senarrak, hura ikusiz, pot eman ziezaion manatu zion emazteari; eta hala egin zuen hark, neholako keinurik egin gabe, ez senarrak manatzen zion hura nahi zuelakorik ez eta nahi ez zuelakorik ere. Berehala, mintzoa gaizo jaunaren bihotzean pizten hasia zen sua bizitu egin zen potagatik, hainbertze biziki galdatua izan zelako zein krudelki errefusatua.

Eta hala, gaztelurat partitu zen Avanneseke jaun hura anaia erregea ikustera, eta istorio eder-
ederrak kontatu zituen han Montserraterat egin bidaiaz. Eta han jakin zuen anaia erregea Oly eta Taffareser⁴⁸ joateko xedez zebilela, eta, bidaia luzea izanen zelakoan, tristezia handi batean sartu zen, hainbertze, non partitu aitzin deliberatu baitzen entseatzera ea dama zuhur hark erakusten ote zion batere nahikari hoberik itxura egiten zuena baino. Eta hiriko etxe batean aloitu zen, dama bizi zen ber kalean; etxe zaharra zen, tzarra eta zurezkoa, eta gauerdia irian su eman zion. Hain azantz handia zabaldu zen hiri osoan, non gizon aberatsaren etxeraino heldu baitzen, eta hark, leihotik galdetuz sua non ote zen, jakin zuen Avanneseke jauna zegoen etxe hartan zela, eta harat joan zen berehala etxeko jende guziekin. Kanean kausitu zuen jaun gaztea, atorra-hats, eta halako maneran urrikaldu zen, ezen beso artean hartu eta, bere arropa gainetik jarritz, etxerat eraman zuen ahalik lasterrena; eta ohean zetzan emazteari erran zion:

—Maitea, begira ezazu ongi presoner hau, trata ezazu nihaur banintz bezala.

⁴⁸ Egungo Olite, non egoitza baitzuen Nafarroako erregeak, eta Tafalla; Iruñetik gertu biak. (I. O.)

Eta hura partitu bezain zalu, Avanneseke jaun erraten zioten hark, zeinak gogo onez hartuko baitzuen senartzat tratatua izatea, ohatzerat egin zuen jauzi arinki, okasioak eta lekuak dama zuhur hura iritziz aldatuko zutelakoan, baina kontrakoa kausitu zuen, zeren bera ohearen saihesten batetik aitzinatu ahala jalgi baitzen dama bertzetik, eta zamarra hartu eta jauntzi, ohebururat jin, eta erran zion:

—Pentsatu duzu, ene jauna, mudatzen ahal dutela okasioek bihotz kasto bat? Sinets ezazu ezen, urrea sutan probatzen den bezala, bihotz kasto bat ere tentazioen artean bilakatzen dela sendoago eta bertutetsuago, eta hainbatenaz eta gehiago hozten dela zenbatenaz ere oldartzenago baitzaio bere etsaia. Horregatik, zaude segur ezen, erakutsi dizudan ez bertzelako nahikaririk banu, ez nukeela huts eginen hartarako bideak kausitzen, baina, erabili nahi ez ditudanez, ez ditudala kontuan ere hartzen; eta arren galdatzen dizut ezen, dizudan atxikimenduari jarraiki nakion nahi baduzu, burutik ken dezazun, ez soilik, egiten duzuna egiten duzula ere ni naizen ez bertzela hartu nahia, ezpada hori pentsatze hutsa ere.

Solas hartan ari zirela damaren ganberazainak heldu ziren, eta manatu zien orotariko konfiturak ekar zitzaten otordu arin bat egiteko; baina gizona ez zen jadanik ez gose ez egarri, hain zegoen desesperaturik bere eginbidean huts eginik, eta beldur, egin zuen desira erakutsiak ez ote zion galaraziko damarekiko zuen etxekotasuna.

Senarra, sua iraungitzeko beharrezkoak zirenak antolaturik, etxerat itzuli zen, eta arren galdatu zion Avanneseke jaunari gau hura beraren etxean eman zezan. Eta gau hura han iragan zuen, begiak emanago negarrera lotara baino. Goizean goizik, ohera joan zitzaien adio erratera, eta, damari pot ematean, ongi ohartu zen egin ofentsagatik urrikalduagoa zela hura, eta ez zuela beraren kontrako borondate gaiztorik; bertze ikatz bizi bat izan zen hura, haren amodio suaren emendagarri. Afalondoan, Taffareserat joan zen Erregerekin, baina, partitu aitzin, berriz joan zitzaien adio erratera aita onari eta damari, eta hark, senarrak lehenago manatua zionez, ez zuen neholako trabarik jarri gizonari semea balu bezala pot emateko. Baina zaudete segur ezen, zenbatenaz bertuteak galarazten baitzien dama haren begi-bisaiei gordean zeukan sua erakusten, hainbatenaz emendatzen zela eta jasangaitz bihurtzen, halako maneran, non, pairatu ezinik beraren bihotzean amodioak eta ohoreak elkarrekiko zuten gudua —deliberatua baitzen sekulan ez agerian ezartzerat—, eta galdurik bizigai zuen hura ikusi eta entzuteak ematen zion kontsolamendua, malenkoniazko umore batek kausatu sukar jarraiki batean erori baitzen⁴⁹, eta, zango-beso muturrak guziz hotz bazeuzkan ere, barnea sutan zuen tai gabe. Medikuek, zeinen eskuetan ez baitago gizon-emazteen osasuna, beldur ziren haren eriaz, hain beldur —gorputz adarretako malenkonia hura sortzen zion tapadura baten kariaz—, non erran eta aholkatu baitzioten senarrari gaztiga ziezaion emazteari bere kontzientzia etsaminatu eta pentsa zezan Jainkoaren esku zegoela, osasun onean direnak hala ez baleude bezala. Senarra, bete-betean maite baitzuen emaztea, hain triste gelditu zen medikuen hitzak entzunik, non, kontsolatzeko, Avanneseke jaunari eskribitu baitzion, arren galdatuz bisitan jiteko nekea har zezan, bera ikusteak eriari on eginen ziolakoan. Gutunak errezibitu bezain laster, zaldia hartu eta bere aita onaren etxerat etorri zen Avanneseke jaun hura. Atalondoan, etxeko ganberazain eta sehiak kausitu zituen, nagusi andereak merezi zuen bezalako doluan zirela, eta hain estonaturik gelditu zen, ezen ate ondoan baratu baitzen, hormaturik bezala, harik eta bere aita ona ikusi zuen arte; hark besarkatu egin zuen eta negarrez hasi zen, halako moduan, non ezin baitzuen hitzik ere egin, eta eraman zuen Avanneseke jauna eri gaixoa zegoen lekuraino. Damak, bere begi triste eta ilaunak harenganat biratuz, behatu eta eskutik atxiki zuen indar guziz bereganat erakarritz, eta, deitore handi bat eginez, erran zion:

⁴⁹ Errenazimentu garaiko medikuntzak lau umoreen oreka zuenez osasunaren oinarritzat, malenkonia (etimologikoki 'behazun beltza') umoreen desoreka batengatik sortzen zen, umore beltzaren gehiegiagatik, hain zuzen. (I. O.)

—O, ene jauna, heldu da tenorea disimulu oro utzi eta aitor dezadan hainbertze nekez isildu ukan dizudan egia, eta da ezen, zure eneganako atxikimendua handia baldin bada, ez dela ttipiagoa enea zurekiko; baina ene doluak zurea gainditu du, hainbertze, non ene bihotz-nahien kontra gordetzearen samina pairatu baitut. Pentsa ezazu, ene jauna, ezen Jainkoak eta ene ohoreak galarazi egin didatela beti zuri halakorik deklaratzeari, zure baitan gutitu nahi nuen hura handituko zen beldurrez; baina jakizu ezen zuri hainbertzetan eman ukan dizudan ezak halako mina eman didala erraterakoan, non ene herioaren sorburu baita, eta kontent nauzu hartaz, Jainkoak hil nadin grazia eman baitit ene amodioaren azkarrak ene kontzientziaren eta omen onaren gainean nota beltzik utz zezan baino lehen. Izan ere, enea baino su ttipiagoez errekaratu ukan dituzte etxe handiago eta sendoagoak. Hortaz, kontent noa, zeren hil aitzin deklaratu ukan ahal baitizut zurea bezainbatekoa duzun ene atxikimendu hau, salbu eta ez direla ber gauza gizonen ohorea eta emazteona. Eta arren galdatzen dizut, jauna, ezen hemendik harat ez zaitezzen beldur izan damarik handi eta bertutetsuenenganat hurbiltzeko, halakoen bihotzetan baitautza pasiorik handien eta zuhurrenak; eta duzun grazia, edertasun eta onestasunak ez dute haizu utziko zure amodioak fruiturik gabe lan egin dezan. Ez dizut galdatuko Jainkoari ene fabore otoitz egin diezaiozun, bai baitakit paradisuko bortak ez direla nehoiz hetsirik egiazko maitatzaileendako, eta amodioaren suak aski gaztigatzen dituela bizi honetan amorosak, purgatorioko tormentu garratzetik libratzeraino. Adio, bada, jauna, ene senar zure aita onari gomendatzen zaitut, eta arren galdatzen dizut eni buruz dakizun egia erran diezaiozun, ongi jakin dezan zenbat maitatu dudan bai Jainkoa eta bai bera; eta begira zaitez ene begien aitzinean paratzetik, hemendik aitzina Jainkoak mundua sortu baino lehen hitzeman zizkidanei beha baizik ez bainago.

Eta hori erranik, bere beso ahulen indarrak handienaz besarkatu eta pot eman zion. Jaun hura, bihotza hilik baitzeukan urrikalmenduz damak oinazez bezainbat, hitz bat bera ere errateko indarrak gabe, haren bistatik apartatu eta ganbera barnean zegoen ohatze baterat erretiratu zen, non hainbat aldiz trenputxartu baitzen.

Damak, berehala, senarra deitu zuen, eta, zenbait kontseilu onest eman ondotik, Avanneseke jauna gomendatu zion, segurtatuz hura zela, beraren ondotik, munduan gehien maitatu zuen pertsona. Eta, pot emanez, erran zion adio senarrari. Sarri Gorputz Saindua ekarri zioten aldaretik, eta gero oliadura saindua, eta bere salbamenduaz segur dagoenak bezalako bozkarioaz errezibitu zituen; eta, ikusiz ikusmena gutitzen eta indarrak huts egiten ari zitzaizkiola, biziki ozen hasi zen *In manus-a*⁵⁰ erraten. Oihu hura entzunik, jaiki zen Avanneseke jauna ohetik, eta, damari urrikariz beha, han ikusi zuen bere arima loriatsua emana zion Hari errendatzen hasperen ezti batez. Eta, hilik zela ohartu zelarik, gorputz hilera jo zuen zalu, bizirik zela beldurrez hurrantzen zitzaion hartara, eta besarka eta potka hasi zitzaion, halako maneran, non neke handiz kendu ahal ukan baitzioten beso artetik. Senarra guziz balditurik gelditu zen, ez baitzuen sekulan pentsatu halako atxikimendua zionik. Eta “Aski da, jauna” erranez, erretiratu ziren bi-biak. Eta, luzaz negar egin ondotik, kontatu zituen Avanneseke jaunak beren arteko amodioan ukan solasak oro, eta nola hil arte ez zion damak nehoiz egin larderiazkoak ez bertze keinurik; horiek entzunik, sekulan baino kontentago gelditu zen senarra, baina orobat dolutua eta samindua emaztea galdua zuelako. Eta bizi osoan iraun zuen Avanneseke jaunaren zerbitzuketan. Baina, haren ondotik, Avanneseke jaun hura, zeinak hemezortzi urte baizik ez baitzituen, gorterat joan zen, eta han bizi izan zen hainbat urtez, munduko ezein dama ikusi gabe eta ezeinekin ere mintzatu gabe, hain zen handia bere damagatik zuen dolua; eta hamar urtez baino gehiago iraun zuen ilundura hartan.

⁵⁰ Hil hurren dagoenaren otoitzaren hasiera (Salmoak 31, 6): “Zure eskuetan jartzen dut bizia: aska nazazu, Jauna, Jainko leiala!”. (I. O.)

«Horra, ene andereok, zein diferentzia dagoen dama ero baten eta zuhur baten artean, haien baitan ageri baitira amodioaren ondore desberdinak: batak herio loriagarri eta laudoriozkoa ukan zuen, eta bertzeak, aldiz, bizi luzeegia, doilor eta ahalkegarri fama haren pean; izan ere, sainduaren heriotza Jainkoarendako baliosa den bezainbat da bekatariarena txarra guziz».

«Egiazki, Saffredent —erran zuen Oisillek—, den istoriorik ederrenetarik bat kontatu diguzu; eta pertsonaia nik ezagutu bezala ezagut dezanak, are ederragoa kausitu duke. Izan ere, ez dut ezagutu zaldun ederrago eta dohatsuagorik Avanneseko jaun hura baino».

«Horra, bada, emazte zuhur bat —erran zuen Saffredentek—, zeina, agertzeagatik kanpotik bihotz barnetik zen baino bertutetsuagoa, eta naturaren borondatez jaun onest bati zion amodioa disimulatzeagatik, hiltzeraino heldu baitzen, gordean desira zuen plazerari ez emateagatik!⁵¹».

«Halako desirarik ukan balu —erran zuen Parlamentek—, bazuen aski lekuri eta okasiorik erakusteko, baina hain izan zen handia haren bertutea, ezen desirak ez baitzuen nehoiz arrazoia gainditu».

«Nahi duzuen gisan pintatzen duzuela ere —erran zuen Hircanek—, ongi dakit nik ezen deabru gaiztoago batek kanporatzen duela beti bertzea, eta damen artean urguiluak areago xerkatzen duela gozamina ezen ez Jainkoaren amodioa eta beldurra. Orobat, haien jauntziak hain direla luzeak eta disimuluz ehunduak, non ezin baita jakin azpian zer gordetzen duten, zeren, haien ohorea ez balitz gurea baino zikinago geldituko, aise kausituko genuke Naturak ez duela deus utzi aherentziago haien baitan gurean baino; eta, desira duten plazeraren bila ez ausartzearen traba hori ezarriz beren buruei, bizio hori onestagotzat duten handiago batez ordainkatu dute. Eta betan dira loria eta krudeltasuna, zeinen bidez erdietsi nahi baitute hilezkortasuna, loriatuz horrela naturaren legearen bizioari (natura biziozkoa baldin bada) buru egin ukanaz, eta modu horretan ez dira soilik piztia bihotz-gogor eta krudelen iduriko bihurtzen, deabruenen baizik, haiengandik hartzen baitute urguilua eta malezia».

«Damu da zuk emazte on bat ukaitea —erran zuen Nomerfidek—, ikusirik bertutea, gutietsi ez ezik, biziotzat presentatu nahi duzula».

«Ontsak kontent nauzu batere eskandalu-emailea ez den ene emazteaz —erran zuen Hircanek—, nihaure ere ez nauzu eskandalu eman zalea batere; baina, bihotz kastitateaz denaz bezainbatean, uste dut bi-biak Adam eta Evaren umeak garela; horregatik, guhauren baitan artoski behatuz gero, ez dugu beharrik ukanen gure biluztasuna hostoz estaltzeko⁵², ezpada, areago, gure hauskortasuna aitortzeko».

«Ongi dakit —erran zuen Parlamentek— guziok dugula Jainkoaren graziaren premia, denok baikaude bekatuz inguraturik; gure tentazioak ez baldin badira zuenen iduriko, eta guk urguiluagatik egiten badugu bekatu, ez diogu bertze nehoi kalterik egiten, eta gure gorputzak eta gure eskuak ez dira zikintzen horregatik. Ordea, zuen plazera emazteak desohoratzean datza, eta zuen ohorea gizonak gerlan hiltzean: horra formalki Jainkoaren legearen kontrakoak diren bi kontu».

⁵¹ Bitxia da Saffredenten iruzkin hori orain: kontalari gisa protagonistaren bertutea goraiatzeko ibili ondoren (izan ere, hala eskatu zitzaion hitza eman zitzaionean, emakumeen bertutea azpimarratzeko bere istorioan), istorioaren eredugarritasuna apurtzen du bere hitz horiekin (baina ez dago iruzkina beste inori esleitzerik, oso argi dago eta eskuizkribuetan Saffredent dela hori esaten duena). Gorago aipatutako Balzacen eleberrian ere antzeko zerbait gertatzen da, Nathalieren gutunak protagonistaren bertutea “suntsitzen” baitu amaieran, kontakizun idealista zirudiena ironiko bihurtuz. (I. O.)

⁵² Adam eta Evaren bekatu egin ondoko lotsaz ari da, noski (Hasiera 3, 7): “Orduan, begiak zabaldu zitzaizkien eta biluzik zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten”. (I. O.)

«Arrazoi duzu erraten duzun horretan—erran zuen Geburonek—, baina Jainkoak errana da: “Haragi gutiziaz behatzen duena, adultero da jadanik bere bihotzean, eta hurko laguna hastio duena, hiltzaile”⁵³. Zure iduriko, gu baino libroago al dira emazteak horretaz?».

«Jainkoa dugu bihotzaren juje —erran zuen Longarinek—, eta Hark emanen du bere sententzia; baina ez da guti gizonek akusatu ezin bagaituzte, zeren hain da handia Jainkoaren borondatea, non, akusatzailerik gabe, ez baikaitu batere jujatuko; izan ere, hain du ezagun gure bihotzen hauskortasuna, ezen areago maitatuko baikaitu gure nahia bete ez dugulako».

«Utz dezagun, arren, disputa hau —erran zuen Saffredentek—, irakastaldi batena baitirudi istorio batena baino areago; eta Ennasuiteri emanen diot hitza, arren eskatuz irri eginaraziko digun zerbait konta diezagun».

«Egiazki —erran zuen hark—, ez dizuet horretan huts eginen; eta erranen dizuet ezen, honat nentorrela egungo egunean istorio eder bat kontatzera deliberaturik, kontatu didatela printzesa baten bi zerbitzariri buruzko istorioa, hain plazenta bera, non, irriaren irriz, ahantzarazi egin baitit biharko utziko dudan bertze tristeago bat; izan ere, oraingo ene begitarte hau arraiegia litzaizueke istorio hari on irizteko».

⁵³ Mateo 5, 28: “Nik, berriz, hau diotsuet: Emakume ezkondu bati irrikaz begiratzen dionak, egin du jadanik adulterioa bere bihotzean”, eta 1 Joan 3, 15: “Bere haurridea hastio duena jende hiltzaile da”. (I. O.)

HOGEITA ZAZPIGARREN ISTORIOA

Sekretario bat bere ostatzaille eta lagun zuen baten emaztearen gibeletik zebilen, amodio desonest eta legez kontrakoz, eta sinetsarazi zion bere buruari emaztekoa bereganatua zuela, gogo onez entzuten ziolako alegia egiten zuelako hark; baina hain zuhurra izan zen emakumea, ezen disimulatze haren bidez tronpatu baitzuen gizona bere esperantzan, eta haren bizioaren berri eman zion senarrari.

Amboise herrian printzesa baten zerbitzarietarik bat bizi zen, ganberazain lana egiten ziona, gizon onesta bera eta gogo onez bestatzen zituen bere etxera jiten ziren jendeak eta, oroz gain, lagun zituenak; etxe hartara, bada, etorri zen duela guti ostatu hartzera andere nagusiaren sekretario bat, eta han gelditu zen hamar-hamabi egunez. Aipatu sekretario hura hain zen itsusia, non gehiago iduri baitzuen kanibalen errege bat⁵⁴ giristino bat baino. Eta nahiz eta ostatzailleak anaiatzat eta adiskidetzat hartu zuen ahalik eta modurik prestuenean, jokaldi makur bat egin zion, eta ez onestasun oro ahanzten duen gizon baten jokaldia, ezpada bihotzean halakorik sekulan ukan ez duenarena, amodio desonest eta legez kontrakoz hasi baitzitzaion gibeletik lagun zuen haren emazteari, zeinak ez baitzuen deus maitagarririk bere baitan ezpada sentsuen gutiziaren kontrakoa; izan ere, hain zen emazte ona, non ez baitzen bertze bat halakorik bizi ziren herri hartan. Eta emakume hark, sekretarioaren nahikari lizuna hautemanik, eta nahiago zuenez agerian jarri haren bizioa disimuluz ezen ez bat-bateko errefus batez estali, haren eleak gogoko zituelakoa egin zuen, eta gizonak, bereganatua zuelakoan, eta erreparatu gabe emakumea adinean sartua zela —berrogeita hamar urte bai baitzituen—, eta ez zela ederretarik ere, eta kontuan hartu gabe senarra maite zuen emazte ona izatearen omena zuela, etengabe hertsatzen zuen.

Egun haietarik batez, senarra etxean zela, eta biak sala batean, emakumeak adierazi zion gizonari ezen, desira zuen gisan berarekin bakarka mintzatzeko, leku segur bat bilatu bertzerik ez zuela, eta hark berehala erran zion aski zutela sabairat igotzea. Emaztea altxatu egin zen supituki, eta galdatu zion aitzinetik joateko, joanen zela bera gero. Gizona, zimino handiek baten bati besta egitean ohi duten irri gozoa bisaian zuela, zalu igo zen eskailertatik, eta, halako desiraz igurikitzen zuen hura erdiestear sutan zegoela —baina ez orre egurrak egiten duen bezalako su argi batez, ezpada ikatz puska handi batek aroztegian egiten duena bezalako batez—, emaztekoa gibeletik ote zetorkion beha jarri zen; baina, haren oin hotsa aditu orde, beraren boza entzun zuen, erranez:

—Zaude pixka bat, sekretario jauna, banoa ea senarrari ongi iduri zaion ni zure gibeletik joatea.

Pentsa ezazue, ene andereok, zer itxura ukanen zuen negarrez irriz hain itsusia zenak! Beheiti jin zen berehala, negar xorta begietan, eta galdatu zion damari, Jainkoaren amoreagatik, ez zezan hauts bere hitzez lagunaren eta bien arteko adiskidantza. Damak ihardetsi zion:

—Segur naiz hainbertze estimatzen duzula, ezen ez baitzenidake hark entzun ezin duen deus erran nahi ukanen; horregatik, banoa haren xerka.

Eta hala egin zuen, gizonak jarri traba eta egin otoiak gorabehera. Eta, ihes eginik, guziz ahalketurik gelditu zen, nola senarra kontent emazteak gizon hura zein oneski tronpatu zuen jakinik: eta hain laket izan zitzaion emaztearen bertutea, non lagunaren bizioa ez baitzuen kontuan hartu, nahikoa zigorra baitzuen hark etxe hartan sortu nahi ukan zuen lotsa berekin eramanik.

⁵⁴ *Kanibal* hitza, Mundu Berria aipu duten liburuen bidez zabaldua, berria zen oso *Heptamerona* idatzi zen garaian. Kanibalak txakur burua duten gizaki mitikoekin nahastu ziren hasiera batean, ez zuten giza irudirik. (I. O.)

«Iduri zait ezen, istorio honekin, jende onek ikasi behar luketela ez errezibitzen etxean kontzientziaz, bihotzez eta enteleguz Jainkoa, ohorea eta egiazko amodioa bazter uzten dutenak».

«Nahiz eta zure istorioa laburra den —erran zuen Oisillek—, hain da atsegina, non ez baitut nik parekorik entzun emazte onest baten ohoretan».

«Jainkoagatik —erran zuen Simontaultek—, ez da halako ohore handia emazte onest batendako hain itsusi itxuratu diguzun sekretario hori bezalako gizon bat errefusatzeari; ederra eta prestua izan balitz, bai, hor frogatu zatekeen haren bertutea. Eta nor den badakidala uste dudanez, ene aldia balitz kontatuko nizueke haren bertze istorio bat, entzun berri duguna bezain atsegina».

«Ez dadila hori traba izan —erran zuen Ennasuitek—, gogo onez utziko dizut ene lekua».

Eta, berehala, honela hasi zen Simontault:

«Gortean edo hiri handietan ibili ohi direnek hain estimu handian dute beren jakitatea, ezen uste baitute bertze gizonak oro ez direla deus beren ondoan; bada, alabaina, herrialde eta jende mota guzien artean, jende maltzur eta gaiztoa franko. Nolanahi den, trebeenak direla uste duten horien urguiluaren kariaz, eskarnioa, hobenen bat egiten dutelarik, hagitzez ere plazentagoa izan ohi da, eta hori erakutsi nahi nizueke duela guti gertatua den istorio honekin».

HOGITA ZORTZIGARREN ISTORIOA

Bernard du Hak trebeki tronpatu zuen bera tronpatu nahian zebilen sekretario bat.

Paris hirian zela Frantzisko erregea, izen hori zuen lehena, eta harekin arreba zuen Nafarroako erregina, bazuen azken horrek Jehan izeneko sekretario bat⁵⁵, ez zena hazia lurrean bota eta deus biltzen ez dutenatarik, halako moduan, non ez baitzen ez presidenterik, ez kontseilaririk hura ezagutzen ez zuenik, ez martxantik ez eta gizon aberatsik ere hark ezagutu eta hantatuko ez zuenik. Tenore hartan, orobat, jin zen aipatu Paris hiri hartarat Baionako martxant bat, Bernard du Ha izenekoa, zeinak, bai zituen negozioengatik eta bai zigor saileko lotinanta⁵⁶ auzoa zuelako, harengana jo baitzuen aholku eta laguntza eske. Nafarroako erreginaren sekretario hura ere ardura joaten zen lotinant haren baitarat bisitan, bere nagusi jaun-andereen zerbitzari ona baitzen. Joan zen, bada, besta egun batez, aipatu sekretarioa lotinantaren etxerat, eta ez zuen han kausitu ez lotinanta ez eta emaztea, ezpada Bernard du Ha, han baitzebilen biola batez edo bertze musika tresnaren batez hango ganberazainei Gaskoiniako dantzak irakasten. Hura ikusi zuelarik, sekretarioak sinetsarazi zion munduko gauzarik makurrena egiten ari zela, eta, lotinantak edo haren senarrak jakiten baldin bazuten, hagitx deskontent izanen zirela berarekin. Eta beldurra begien aitzinean paratu ziolarik — hainbertze, ezen martxanta arrenka hasi baitzitzaion deus erran ez zezan otoiztuz—, galde egin zion:

—Zer emanen didazu ez baldin badut deus erraten?

Bernard du Hak, ez baitzen itxura egiten zuen bezain beldur, eta ikusiz sekretarioa bera tronpatu nahian zebilela, prometatu zion ezen sekulan jan zuen Euskal Herriko xingarrezko hostorerik onena ekarriko ziola⁵⁷. Sekretarioak, biziki kontent, galdatu zion hostorea iganderako ekar ziezaion, bazkal ondorako, eta hala eginen zuela hitzeman zion martxantak. Eta promes hartaz segur, Parisko dama batengana joan zen sekretarioa, harekin ezkontzeko desira baitzuen oroz gain, eta erran zion:

—Ene dama, plazer baduzu, jinen naiz igandean zurekin afaltzera, baina ez duzu ardo eta ogi ona ekartzeaz bertzerik axolatu behar, zeren enganatu baitut baionar ergel bat, eta haren gain izanen da gaineratekoa; eta tronperia horri esker, Parisen sekulan jan den Euskal Herriko xingarrik onena dastatu ahal ukanen duzu.

Andereñoak sinetsi egin zion, eta bere auzo zintzoenatarik bizpahiru bildu, eta segurtatu zien nehoiz dastatu ez zuten jaki berri bat emanen ziela.

Igandea heldu zelarik, sekretarioa martxantaren bila joan zen, eta Changeko zubian kausitu zuen, eta, grazioski agurtzen zuela, erran zion:

—Deabruak eraman hazala, a zer nolako lanak hartu behar ukan ditudan hire xerka!

Bernard du Hak ihardetsi zion aski jendeak hartu zuela berak baino neke handiagoa, hondarrean halako pieza batekin sariztatua izan gabe. Eta hori erranik, erakutsi zion mantopean zekarren hostorea, herri oso bat elikatzeke bezain handia zena. Orduan, hain handia izan zen sekretarioaren bozkarioa, ezen, nahiz aho handi eta itsusia ukan, egin zuen keinu goxo batez ttipitu egin baitzitzaion,

⁵⁵ Ematen du Jean Frotté izan daitekeela, Nafarroako errege-erreginen finantza sekretario izandakoa. (I. O.)

⁵⁶ Pariseko prebostearen bi lotinanteatarik bat, auzi kriminalez arduratzen dena (bestea auzi zibilez arduratzen da). (I. O.)

⁵⁷ Garai hartan fama zuen dagoeneko Baionako xingarrak. (I. O.)

halako maneran, non ezin sinetsi baitzen xingarrari ausiki egiteko gai izanen zenik. Eta xingarra lehiaz hartu, eta, martxanta gonbidatu gabe, damarenganat joan zen, zeinak gogo handia baitzuen jakiteko ea Guienako⁵⁸ jakiak Pariskoak bezain onak ziren. Eta afaltzeko tenorea heldu zelarik, eltzekaria jaten ari ziren bizkitartean, sekretarioak erran zien:

—Utz ditzagun jaki geza hauek, eta dasta dezagun ardoaren akuilu amoros izanen zaigun bertze hau.

Eta hori erranik, hostorea hartu eta, xingarra kausitzeko irekitzera entseatu zelarik, hain zegoen gogorra, non ez baitzuen ganibeta sartzen ahal; eta, zenbait aldiz entseatu ondoan, ohartu zen tronpatu zutela, eta ikusi zuen eskalapo zurezko bat zela, Gaskoinian erabiltzen ohi direnetarik. Gidertzat ilinti mutur bat zeukan, eta gainetik burdina errautsez hautseztaturik eta biziki urrin oneko espeziak estalirik zegoen. Sekretarioa ahalketurik gelditu zen, bai berak tronpatu nahi ukan zuen hark tronpatu zuelako bera eta bai egiati agertu nahi zitzaion hari engainua egin ziolako; bertzalde, biziki haserreazten zuen afaltzeko eltzekari soil batez gelditzeak. Damek, aldiz, hura bezain haserre baitziren, tronperia egin ukana egotziko zioketen, ez balitz izan haren bisaia ezagun zuela berak baino haserreago zegoela. Afari arin haren ondotik, guziz koleraturik partitu zen sekretarioa, eta, ikusirik Bernard du Hak ez zuela hitza bete, berea ere hautsi nahi ukan zuen. Eta zigor saileko lotinantaren baitarat joan zen, Bernarden gainean ahal zuen gaizkien hitz egitera deliberaturik. Baina ez zen tenorez heldu, zeren bera baino lehenago joana baitzitzaion aipatu Bernard hura lotinantari, eta kontatua baitzion aferaren berri guzia; lotinantak sententzia eman zion, erranez hala ikasi zuela gaskoinen tronpatzen, eta sekretarioak ez zuen harengandik ahalkea ez bertze kontsolamendurik erdietsi.

«Gertatzen ohi zaie batzuei, ezen, maltzurregi izan nahiz, maltzur usteko bertzerik ez direla; horregatik, ez genioke nehoi egin behar guri guhauri egitea nahi ez genukeenik».

«Segurtatzen dizuet —erran zuen Geburonek— ardura ikusi ukan ditudala iduriko gertakariak, eta herriko ergeltzat harturikoek tronpatu ukan dituztela maiz jende maltzurak, ez baita ergelagorik bere burua maltzurtzat duen hura baino, ez eta zuhurragorik bere ezdeusaren berri dakiena baino».

«Orobat —erran zuen Parlamentek—, badaki zerbait deus ez dakiela dakienak».

«Ederki —erran zuen Simontaultek—, eta denboraz eskas ibil ez gaitezen, Nomerfideri emanen diot hitza, segur bainaiz, duen erretorikaz, ez gaituela luzaz atxikiko⁵⁹».

«Orduan, bada —erran zuen hark—, enegandik espero duzuen bezala beteko dut ene aldia. Ez naiz harritzen, ene andereok, amodioak printzei periletik salbatzeko biderik ematen baldin badie, zeren, hainbertze jende jakintsuren ondoan hazi dira, non guziz miretsiko bainintzateke gauza batzuetan ezjakinak balira; baina, amodio aferetan, asmamena garbikiago agertzen da izpirituz labur direnen baitan. Horregatik kontatuko dizuet apez batek egin jokaldia; apez hura amodio kontuetan zen jakile, zeren bertze guzietan hain zen ezjakina, ezen doi-doi baitzekien meza liburua irakurtzen».

⁵⁸ Guiena Okzitaniako eskualde historikoa da, egungo Frantziako hego-mendebaldean kokatua eta garai bateko Akitaniako Dukerriko lurraldea. (I. O.)

⁵⁹ Nomerfideren istorioak laburrak (eta komikoak) dira beti. (I. O.)

HOGITA BEDERATZIGARREN ISTORIAO

Erretore batek, laborari bat tupustean etxerat itzuli eta ustekabeen harrapatu zuelarik bere emazteari harrera ona egiten ari zitzaiola, zalu kausitu zuen manera gizonaren bizkar salbatzeko, eta hura batere ohartu gabe.

Maineko konderriko Carrelles izeneko herri batean⁶⁰, bazen laborari aberats bat, zaharra zela emazte gazte batekin ezkondu zena, zeinak ez baitzuen harengandik haurrik ukan; baina emazte hura zenbait amoranterekin kontsolatzen zen galtze hartarik. Eta zaldunek eta jende handiak huts egin ziotelarik, bere azken baliabideari atxiki zitzaion, hots, elizari, eta absolbitzen ahal zuena hartu zuen bekatuan lagun: hau da, apezka, zeina maiz jiten baitzitzaion bisitan bere ardiari. Senarrak, zaharra eta dorpea baitzen, ez zuen neholako goganbeharrik, baina, oiesa eta sendoa zenez, emazteak ahal zuen gordeen zeraman bere misterioa, beldur baitzen senarrak, ohartzuz gero, hil egingen zuela. Egun batez, gizona kanpoan zela, andereak, pentsatuz ez zela hain goiz itzuliko, erretorearen bila igorri zuen baten bat, kofesatzera etor zekion. Eta hala, elkarrekin asealdi on bat egiten ari zirela, heldu zen senarra, hain bat-batean, non apezak ezin ukan baitzuen etxetik ihes egin. Eta, gordetzeko leku bila zebilela, emakumearen aholkuz sabaira igo zen tranpa zulo batetik, eta galbahe batez estali zuen. Sartu zen senarra etxean, eta emakumeak, goganbeharturik ote zen beldurrez, hain ongi entretenitu zuen afarian, ezen edatekoa ere franko eskaini baitzion, eta hark ederkixko edan zuen, eta, alorretan eginga zuen lanaren nekeaz, logaleak eraman zuen, aulki batean eserita zegoela, sutondoan. Apezka, enoaturik sabaian hain luzaz egoteagatik, eta ganberatik deus ere aditzen ez zuelarik, tranpa zulora hurbildu zen, eta, lepoa ahal bezainbat luzatuz, ikusi zuen gizona lo zela; baina, hari beha zegoela, bermatu zen oharkabeen galbahearen gainean, behaztopa egin, eta han erroiztu ziren galbahe eta apez beherat, lotan zegoen gizonaren ondora, zeina itzarri egin baitzen harrabotsaren kariaz. Apezak, bertzeak hauteman baino lehen altxatu baitzen, erran zion:

—Ene adiskidea, hemen duk hire galbahea, eta eskerrik anitz.

Eta hori erranik, joan egin zen. Laborari gaixoak, guziz estonaturik, galde egin zion emazteari:

—Baina zer da hau?

Hark ihardetsi zion:

—Ene gizona, hire galbahea duk, apezak mailegatua zuena; itzultzera etorri zaik.

Senarrak, erasiaka, erran zion:

—Bai dorpeki itzuli ere, etxea behera zetorrela zirudinan.

Halako maneran salbatu zen erretore hura gizonaren gain, eta ez zuen bertze makurrik ediren haren baitan galbahea gibelerat itzultzeko erabili zuen dorpezia baizik.

«Ene andereok, apez hark zerbitzatzen zuen nagusiak⁶¹ salbatu zuen bera tenore hartan, hala luzazago atxiki eta tormentatu ahal ukaiteko».

«Ez dezazuela pentsa —erran zuen Geburonek— jende xehe eta kondizio apalekoek guk baino malezia ttipiagoa dutenik; ordea guk baino handiagoa, maiz: hara hor ohoinak, hiltzaileak, belagileak, diru-faltsutzaileak eta halako jendeak oro, zeinen izpiritua ez baita nehoiz pausuan; pobreak dituzue guziak, ofizialeak».

⁶⁰ Egungo Carrelles, Mayenne departamenduko herria. (I. O.)

⁶¹ Deabrua, inondik ere. (I. O.)

«Eni ez zait estrainioa iduri —erran zuen Parlamentek— horien baitan malezia gehiago egotea bertzerengan baino, baina bai amodioak horiek tormentatzea bertzela ere sobera dituzten nekeen artean, edo halako pasio nobleak lekua ukaitea bihotz arrunt batean».

«Anderea —erran zuen Saffredentek—, badakizu Jean de Meung maisuak zer dioen⁶²:

Berdin estaltzen dituzte bihotzeriak
oihalki finek zein piltzarkiak⁶³.

izan ere, istorioak aipatu amodioa ez da armaduradun batena⁶⁴; zeren, jende pobreak, nahiz ez ukan ez ondasunik ez ohorerik, badu, ordea, berez eta guk baino aiseago, guk ez dugun aisia. Haien biandak ez dira horren apetitosak, baina apetitu hobea dute, eta hobeki elikatzen dira ogi arruntez gu bizkorgarriz baino. Ez dituzte ohatzeak gureak bezain eder eta ongi eginak, baina hobeki egiten dute lo eta pausu onagoa dute. Ez dauzkate nehola ere guk idolatratzen ditugun dama pintatu eta apainduak, baina guk baino maizago gozatzen dituzte beren plazerak, eta mintzo gaiztoen beldurrik gabe, ezpada beha dituzten pitzia eta txorienak. Guk daukagunetik ments dira, eta ez daukagunetik ausarki dute.

«Arren galdatzen dizut —erran zuen Nomerfidek—, utz dezagun laborari hau bere laborarisarekin, ea bezperen aitzin bururatzen dugun eguneko eginbidea, zeinari Hircanek emanen baitio fin».

«Hala da —erran zuen hark—, gordea baitut zuendako istorio triste bezain estrainio bat, nehoiz entzun gabekoa. Eta biziki gaitzi bazait ere zuon emazteon ahalkegarri izanen den kontu bat honat ekartzea, jakinik gizonak, hain beterik maleziaz, bakar baten hobena profitatzen dutela beti bertze emazte guziak laidoztatzeko, hain ezohikoa da kasua, ezen dudan beldur hori alde batera utzaraziko baitit; orobat, agian, emakume baten ergelkeria agerian jartzeak bertzeak zuhurrago bihurtuko dituelako. Beraz, beldurrik gabe kontatuko dizuet istorio hau».

⁶² Jean de Meung —jaiotzaz Jean Clopinel edo Chopinel— (Meung-sur-Loire, Frantzia, c.1240 - 1305) Erdi Aroko frantses olerkaria izan zen. Guillaume de Lorris-ek hasitako *Roman de la Rose* alegoria poemari amaiera eman zion, 10.000 bertso erantsiz. (I. O.)

⁶³ *Roman de la Rose* poematik ateratako aipua, hain zuzen ere (v. 4.333-4.334): «*Aussy bien sont amourettes, Soubz bureau que soubz brunettes*», non *bureau*: fraidearen abitua egiteko erabili ohi den oihal latz arrunta baita, eta *brunette*: artile fineko oihal arina. (I. O.)

⁶⁴ Erdi Aroko eleberrietan, dama batenganako amodioagatik eraman ohi dute zaldunek armadura, eta harengatik egin ohi dituzte balentriak. (I. O.)

HOGITA HAMARGARREN ISTORIAO

Hamalau edo hamabortz urteko zaldun gazte bat, amaren dama gazteetarik batekin oheratu nahian zebilela, amarekin berarekin oheratu zen, zeina handik bederatzi hilabetera semearen alaba batez erdi baitzen; zaldunak alaba hura esposatu zuen hamabi edo hamahiru urteren buruan, jakin gabe neska alaba eta arreba zuela, ez eta hark ere mutila aita eta anaia zuela.

Luis XII.a erregearen sasoian, Amboise etxeko seme bat zela Avignon-eko legatu, Frantziako legatu Georges izenekoaren iloba bera, bazen Languedoc-eko eskualdean dama bat, zeinaren izena isildu eginen baitut haren leinukoen errespetuz, lau mila dukat baino gehiagoko errenta zeukana. Emazte hura arras gazterik alargundu zen, seme bakarra zuela; eta, bai senarraz zuen doluagatik, bai semeari zion amodioagatik, deliberatua zen sekulan berriz ez ezkontzerat. Eta, arriskuari ihes egiteagatik, debozioko jendea baizik ez zuen hantatzen, pentsatzen baitzuen ezen okasioak berak sortzen duela bekatua, jakin gabe bekatuak duela apailatzen okasioa. Alargun gaztea Jainkoaren zerbitzurat eman zitzaion osoki, arbuiauz guziz konpainia mundukoi oro, halako moldean, non eskrupuluz joaten baitzen ezteietara edo organoa entzutera eliza batera. Semeak zazpi urte ukan zituen, amak gizon saindu bat hartu zuen hari eskola eman ziezaion, eta hari esker doktrinatu ahal ukan zuten mutikoa guzizko saindutasun eta debozioan. Hamalau edo hamabortz urtera heldu zelarik, Naturak, eskola-emaile isil-isila baita, mutikoa ongi zaindua eta aizinaz mukuru zebilela kausiturik, bere eskola-emaileak irakasten ez zizkion bertze ikasgai batzuk irakatsi zizkion. Eta eder iduri zitzaizkion gauzak behatzen eta desiratzen hasi zen, eta, bertzeak bertze, amaren ber ganberan lo egiten zuen andereño bat; nehork ez zuen deus pentsatu, ez baitziren harengandik begiratzen haur batengandik baino gehiago, eta, bertzalde, etxe osoan Jainkoaz baizik ez baitzuen mintzatzen entzuten. Galant gazte hori damaren gibeletik ibiltzen hasi zen gordean, eta hark nagusiari erran zion, zeinak, hainbertze maite eta estimatzen zuen semea, pentsatu baitzuen hura hastio zezan erran ziola hori neskak; baina halako maneran hertsatu zuen anderea, non hark erran baitzion:

—Ikertuko dinat eta, dionana egia baldin bada, gaztigatuko dinat; baina, orobat, hari hori egotzi eta egia ez bada, hihaurek hartuko dun gaztigua.

Eta, frogantza egiteko, manatu zion andereñoari hitzordua egin zezan mutilarekin, gauerdian etor zedin berarekin oheratzera anderearen ganberarat, borta ondoan zen eta neska hark bakarrik lo egiten zuen ohera. Andereñoak nagusiak errana bete zuen, eta, iluntzean, nagusi anderea etzan zen neskaren lekuan, deliberaturik, hark erraten zuena egia baldin bazen, semea ongi gaztigatzera, halako maneran, non ez baitzen berriz nehoiz emazte batekin oheratuko ez akordatzeko moldean.

Halako gogoeta eta koleran sarturik zen anderea, semea harekin oheratzera jin zenean; eta, ezin baitzuen oraino sinetsi, hura oheratzen ikusirik ere, deus desonestik egin nahi ukanen zuenik, isilik gelditu zen haren borondate gaiztoaren keinurik ikusi arte, ezin sinetsirik, xehetasunak xehetasun, haren desira laidozko zerbaitekaraino helduko ahal zenik. Baina hainbertze luzatu zen haren pazientzia eta hain hauskor gertatu zitzaion natura, non, ama izena ahantziz, zuen kolera hura plazer higuigarri bilakatu baitzitzaion. Eta, nola bortxaz atxiki urak ohi baino oldartsuago korritzen duen libro uzten denean, hala itzulikatu zuen dama gaixo hark bere omen ona bere gorputzari ematen zion hertsatze hartan. Eta bere onestasunaren lehenbiziko maila jausten ari zelakoan, azkenekoraino eramana izan zen tupustean. Eta, gau hartan, izorra utzi zuen bertze nehor izorra utz ez zezan begiratzen zuen hark berak. Bekatua egin bezala, hain tormentu handian ezarri zuen kontzientziaren ausikiak, ezen doluak bizi osoan iraun baitzion, eta hain izan zen garratza hatsarre hartan, non semearen ondotik jaiki —hark beti pentsatu zuen andereñoarekin egona zela—, eta gabinete ttipi batean sartu baitzen, eta han, ukan zuen delibero ona eta egin zuen makurkeria gogoan, gau osoa eman zuen bakarrik, negarretan eta deiadarka. Baina umiliatu eta aitortu behar bidean ezen gure

haragiak, Jainkoaren laguntzarik gabe, ezin duela bekatu egin baizik, eta bere gisa eta bere negar xortez kitatu nahirik iragana eta bere zuhurtziaz ekidin etorkizuneko gaitza, betiere bekatuaren desenkusatzat gertakaria bera emanez eta ez malezia, zeinak ez baitu erremediorik ezpada Jainkoaren grazia, pentsatu zuen zer egin, etorkizunean berriz halako kinka gaiztoan ez erortzeko. Eta, pertsonari kalterik dakarkiokeen bekatu mota bakar bat balego bezala, indarrak oro jarri zituen bekatu horiek bakarrik ekiditera. Baina haragizko bekatuak ontsatu behar lukeen urguiluaren erroa hazi egin zen tai gabe, eta hala, gaitza ekidin orde, bertze batzuk egin zituen andereak; izan ere, biharamun goizean, eguna argitu bezain laster, semearen tutorea jinarazi zuen beragana, eta erran zion:

—Ene semea hazten ari da, eta tenore da etxetik kanpo igor dezagun. Badut nik ahaide bat, Chaulmont-eko maestre handiarekin bizi dena bortuez haraindi, Montesson-eko kapitain izeneko, zeina pozik izanen baita bere konpainian hartuz. Beraz, eraman ezazu harat berehala, eta ez dakidala etor adio erratera ere, ez dezadan neholako damurik ukan.

Hori erranik, bidaia egiteko behar ukanen zituen sosak eman zizkion. Eta goizean goizik partiarazi zuen gizon gaztea, zeina biziki kontent baitzen, ez baitzuen, andereñoarekin ukan gozamenaren ondotik, gerlara joan nahi baizik.

Anderea luzaz gelditu zen tristezia eta malenkonia handian, eta, ez balitz izan Jainkoaren beldur zelako, sarri desiratuko zukeen barruan zeukan fruitu ondikozko haren akabantza. Eri zelako alegia egiten zuen, mantoa jauntzi eta bere makurra estali ahal ukaiteko horrela, eta, erditzear zelarik, pentsatu zuen munduan ez zuela bertze nehor konfiantza handiagokorik anaia bastart bat baizik, zeinari fabore anitz eginak baitzizkion; hura etorrarazi eta bere desgraziaren berri eman zion, erran gabe umea semearena zuenik, eta ohorea gordetzen lagun zezan otoiztu zuen. Hala egin zuen hark, eta, erdi behar zen eguna baino zenbait egun lehenago, galdatu zion airez aldatu eta beraren etxerat jin zedin, han lehenago kobratuko zuela osasuna berean baino. Berekin jende guti batzuk hartu eta joan zen, eta han kausitu zuen emagin zuhur bat, anaiaren emaztearen baitara etorria, zeinak, gau batez, anderea ezagutu gabe, errezibitu baitzuen umea, neskatxa eder bat. Zaldunak unide bati eraman zion umea, eta berea balitz bezala hazarazi zuen. Anderea, han hilabetez egon ondoan, guziz osasun onean itzuli zen etxerat, non sekulan baino austeritate handiagoan bizi izan baitzen, bai barur, bai diziplinatan. Baina semeak, gizondu zelarik, eta ikusiz ordukotz ez zela gerlarik Italian, igorri zuen baten bat amaganat otoiztuz etxera itzultzeko baimendua eman ziezaion. Amak, lehengo makur berean erortzeko beldur, ez zion hartarako biderik eman nahi ukan, baina, hain tinko hertsatu zuen semeak hondarrean, non andereak ez baitzuen neholako motiborik ukan baimendua ukatzeko; baina beraren aitzinerat ez etortzeko manatu zion, guziz maite zuen emazteren batekin ezkonduzik ez bazen, eta ez ziezaiola batere begiratu haren ontasunei, ezpada emakume gisakoa izateari, aski zela horrekin. Denbora hartan, anaia bastartak, ikusiz bere gain zuen neska hazi egin zela eta biziki ederra zela, urruneko etxeren baterat igortzea pentsatu zuen, nehork ezagutuko ez zuen lekuren batera, eta, amaren kontseiluz, Nafarroako erregina Katalinari⁶⁵ bidali zion. Neska hark bete zituen hamabi edo hamahiru urte, eta hain zen eder eta onesta, ezen Nafarroako erreginak atxikimendu handia baitzion, eta ongi eta handizki esposatu nahi zuen. Baina, pobrea zenez, maitaleak bai, franko, baina senarrik ez zuten bat bera ere kausitzen. Egun batez, aita ezezagun zuen zalduna, bortuetarik itzulian zela, agertu zen Nafarroako erreginaren etxean, non, alaba ikusi zuen bezain laster amorosturik gelditu baitzen. Eta amaren baimendua zuenez atsegin zuen edozein emakume esposatzeko, noblea ote zen baizik ez zuen jakin nahi ukan, eta, hala zela jakinik, emaztetzat galdatu zion erreginari; hark biziki gogo onez eman zion, ongi baitzekien zalduna aberatsa zela, eta ez soilik aberatsa, baizik ere ederra eta onesta.

⁶⁵ Joan Albretekoaren emaztea, Margaritaren senar Henrike II.aren ama. (I. O.)

Ezkontza beterik, amari eskribitu zion berriz gizonak, erranez jagoitik ezin ukatuko ziola etxean sartzea, desiratzen ahal zen bezain errainik perfektuena eramane ziola ikusirik. Andereak, ikertu baitzuen semea norekin elkartua zen, ediren zuen emaztea bi-bien alaba bera zela, eta hain dolu etsian sartu zen, non bat-batean hil nahi ukan baitzuen, ikusiz ezen zenbatenaz traba gehiago jartzen baitzion bere malurari, hainbatenaz bitarteko handiagoa bihurtzen zela bera malur hori haz zedin. Eta, ez zekienez zer bertze egin, Avignoneko legatuaren baitarat joan zen, eta hari aitortu zion bere bekatuaren izugarria, eta kontseilua galdatu zion nola gobernatu behar zuen. Legatuak, bere kontzientzia satisfatzeagatik, zenbait doktore teologo ekarrarazi eta aferaren berri eman zien, pertsonaien deiturarik aipatu gabe; eta jakin zuen, haien kontseiluz, damak ez ziela nehoiz deus erran behar bere seme-alabei, zerena, haiek, deusik ez zekitenez, ez baitzuten neholara ere bekatu egin, eta, ordea, bera zela bere mende osoan penitentzia egin behar zuena, haiei batere alegiarik egin gabe. Horrela itzuli zen gaizo dama hura etxerat, nora laster bai laster heldu baitziren semea eta erraina: hainbertze maite zuten haiek elkar, non sekulan ez baitzen izan ez senarrik, ez emazterik elkarrenganako atxikimendu eta elkarren eite handiagoa zuenik, zerena emakumea alaba zen, arreba eta emaztea, eta gizona, bere aldetik, haren aita, anaia eta senarra. Maitasun handi hartan iraun zuten beti, eta andere gaixoak, bere penitentzia handian, ezin ukan zituen sekulan ikusi ferekaka bera negar egiterat erretiratu gabe.

«Horra, ene andereok, zer gertatzen ohi zaien beren indar-bertuteez soilik amodioa eta natura bentzutzero entseatzen direnei, Jainkoak haiengan ezarri dituen ahalak hain handiak izanik. Hobe litzateke norbere ahulezia aitortu eta halako etsaien kontra ez lehiatzea, eta, egiazko Adiskidearengana bilduz, erratea salmogilearekin batean⁶⁶: “Jauna, anitz sufritzen ari naiz, hartu zure gain nik eginikoa!”».

«Ez da posible hau baino istorio estrainioagorik entzutea —erran zuen Oisillek—. Eta iduri zait ezen gizon zein emazte orok burua apaldu behar lukeela, Jainkoaren beldurrez, ikusirik gauzak ongi egin nahirik hainbertze gaitz heldu dela».

«Jakizue ezen gizon-emazteek beren buruaz fidatuz ematen duten lehenbiziko urratsaz egiten dutela bertze bat gibelerat Jainkoaren konfiantzan —erran zuen Parlamentek».

«Zuhurra da bere burua duena etsai bakartzat —erran zuen Geburonek—, eta bere borondate zein jujamenduaz mesfidatzen dena».

«Ontasun eta saindutasun itxurak oro gorabehera —erran zuen Longarinek—, ez dago on itxura hain handirik emazte bat gizon batekin oheratzera menturarazteko moldekoea denik, nahiz dena dela elkarren arteko ahaidegoa, iztupa ondoko sua ez baita batere segura».

«Batere dudarik gabe —erran zuen Ennasuitek—, zoro handi bat izanen zen emazte hori, eta, kordelieren kariaz eldarniotan-edo, pentsatu zukeen hain zela saindua, ezen hutsik gabea baitzen, haietarik zenbaitek sinetsarazi nahi ohi diguten bezala, hots, gure gisa izaten ahal garela hobengabe, eta hori akats handia da».

«Posible ote da, Longarine —erran zuen Oisillek—, halakorik sinesteko gai den hainbertze zoro egotea?».

«Areago oraino —erran zuen Longarinek—, erraten baitute usatu beharra dagoela kastitatearen bertutera, eta, beren indarren frogantza egiteko, emazterik ederrenekin solastatzen dira, atseginen dituztenekin, eta pot eta ukituz egiaztatzen dute beren haragia guziz hilik ote den. Eta halako plazeraz kilikaturik sentitzen direnean, hastandu egiten dira, barur egin eta diziiplina zorrotzak

⁶⁶ Isaias 38,14: “Estu naiz, Jauna! Egizu zerbait nire alde!” (I. O.)

begiratzten dituzte. Eta beren haragia horretaraino meneratu dutelarik, ez dutelarik deboziorik⁶⁷ sentitzen ez mintzoaz ez eta potez, tentaziorik handiena entseatzen dute, hots, elkarrekin oheratzea eta haragi gutiziarik gabe besarkatzea. Baina, bat jalgi bazen ere osorik halako batetik, hainbat traba sortu ziren, ezen Milango artzapezpikuak, han egiten baitziren halako praktikak, bereizi egin behar ukan baitzituen, emazteak emazteen komenturat eta gizonak gizonenerat».

«Egiazki —erran zuen Geburonek—, erokeriaren erokeria da norbera hobengabe bihurtu nahi eta halako grinaz xerkatzea bekatu egiteko okasioak!».

Saffredentek erran zuen:

«Badira kontrakoa egiten dutenak ere, ahalik eta gehiena ekiditen baitituzte okasioak; eta, hala ere, haragi gutizia gibeletik dute beti. Eta San Jeronimo on hark ere, bere burua azotatu eta deserturat erretiratuagatik, aitortu zuen ezin zuela iraungi barne-barnean zeukan sua. Horregatik gomendatu behar dugu guhauren burua Jainkoari, zeren, Hark ez bagaitu fermuki atxikitzen, plazer handia hartzen dugu guk behaztopa harriotan».

«Baina zuek ez dakusazue nik dakusadana —erran zuen Hircanek—: eta da ezen, gu gure istorioak kontatzen aritu garen bizkitartean, fraideek, hesi horren gibelean, ez dutela aditu ere egin bezperen zeinua, eta orain, Jainkoaz mintzatzen hasi garelarik, joan direla, tenore honetan bigarren joa egitera».

«Ongi eginen dugu haien gibeletik joanik Jainkoa gorestera —erran zuen Oisillek—, posible zen bezain alegeraki eman baitugu eguna».

Eta hori erranik, altxatu eta elizarat joan ziren, non debozio handiz entzun baitzituzten bezperak. Eta gero, afaltzera joan ziren, eguneko solasez ihardukiz eta beren mendean gertaturiko zenbait kasu gogoratuz, ikusteko ea zeinek mereziko zuen atxikia izatea. Eta arrats osoa alegeraki eman ondoan, pausu ezti bat hartzera joan ziren, igurikiz biharamunean jarraiki ahal izanen zitzaizkiola hain atsegin zuten eginbide hari. Horrela finitu zen hirugarren eguna.

Hirugarren egunaren azkena.

⁶⁷ Beste eskuizkribu batzuen arabera, “emoziorik” litzateke hor. (I. O.)